

IKUSMIRAN

Botere sindikala:
errealitate aldakorra

MONOGRAFIKOA • 2016ko uztaila

Aurkibidea

SUBJEKTU SINDIKALA IKUSMIRAN Kizkitza Gil de San Vicente	3
AZTERKETA TEKNIKOARI BURUZ.....	5
1. METODOZKO OHARRAK	7
1.1. ERABILITAKO ITURRIAK ETA DATUAK	7
BIGARREN MAILAKO DATU ITURRI OFIZIALAK.....	7
INKESTAK.....	7
TXOSTENAK.....	8
LAB-en DATU BASEA	8
2. LANGILEEN ORDEZKAPENERAKO EREDUAK. EUSKAL HERRIA ETA EUROPA.....	11
2.1. LANGILEEN ORDEZKAPENERAKO EREDUAK.....	11
2.2. HEGO EUSKAL HERRIKO LANGILEEN BABES MAILA ETA ORDEZKAPENA EUROPAKOEKIN ALDERATUTA. ...	13
3. LANAREN TESTUINGURUA	15
3.1. LAN HARREMANEN ALDAKETA NAGUSIAK 2002-2015	15
3.1.1 SEXUAREN ARABERA	18
3.1.2 ADINAREN ARABERA	19
3.1.3 ORDAINPEKOAK.....	21
3.2. ENPRESA DEMOGRAFIA DINAMIKA 1999 - 2015.....	22
3.2.1 ENPRESA EGITURA ETA DINAMIKA.....	22
3.2.2 ENPRESEN BILAKAERA SEKTOREAREN ARABERA.	25
3.3 LANGILEAK ENPRESA TAMAINAREN ARABERA.....	27
4. LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK.....	29
5. HAUTESKUNDE ETA ORDEZKARITZA SINDIKALA	34
5.1 HAUTESKUNDE SINDIKALEN HEDAPENA	34
5.1.1 HAUTESKUNDE SINDIKALEN HEDADURA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2009 - 2010.	34
5.1.2 HAUTESKUNDE SINDIKALEN HEDADURA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAN, 2006.....	36
5.2. HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK.....	39
5.2.1 HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK ARABAN, BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN, DENBORA ALDI JAKINEKO SISTEMAN 1978 - 1990.	39
5.2.2 HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK HEGO EUSKAL HERRIAN, DENBORA ALDI IREKIKO SISTEMA, 1995 - 2016.....	41
6. AFILIATUAK	52
6.1 AFILIAZIOAK EDOTA ELKARTEGINTZA HEGO EUSKAL HERRIAN.	52
6.2 ORDAINPEKOEN AFILIAZIO TASA. OCDE ETA HEGO EUSKAL HERRIA.....	53
6.3 AFILIATU KOPURUA HEGO EUSKAL HERRIAN.....	55
6.4 AFILIAZIO TASA HEGO EUSKAL HERRIAN ETA OCDEN: 1999 - 2013 BILAKAERA.	55
6.5. AFILIATUTAKO LANGILEEN EZAUGARRIAK	57
6.5.1 AFILIATUEN EZAUGARRITZEA.....	57
7. LANGILEEN IRITZIAK.....	65
7.1. EKINTZA SINDIKALAREN GAINEKO EZAGUTZA ETA BALORAZIOA.....	65
8. ERANSKINAK.....	69
BOTERE SINDIKALAREN HIGADURA Rafa Diez Usabiga	70
ORDEZKARITZA ETA EKINTZA SINDIKALA, TXANPON BERDINEKO BI AURPEGIAK Gorka Berasategi.....	74
HAUTESKUNDE SINDIKALAK NAFARROAN Igor Arroyo.....	77
BOTERE SINDIKALA ZABALTZEKO PROPOSAMENAK Sophie Béroud.....	79
EUSKAL SINDIKALGINTZARI BEGIRADA BAT Manuel Garí.....	81

SUBJEKTU SINDIKALA IKUSMIRAN

Kizkitza Gil de San Vicente • Ipar Hegoa Fundazioa

IKUSMIRAN Ipar Hegoa Fundazioaren hausnarketa tresna da, egunez eguneko arazoetatik harago, errealitate sozial eta politikoa ikuskatzeko euskarria izan nahi duena. Botere harremanen pultsoa, moduak eta joera nagusiak atzeman nahi dituena. Eredu sozial berri bateranzko eta langileria osoa boteretzeko aldaketa bitartekoak zeintzuk diren aditzeko azterketa da, beti ere ekintza sindikalak eman beharreko erantzunak alboratu barik, are gehiago momentu honetan, kapitalaren ofentsibak eta langileriaren abandonu politiko-instituzionalak ekintza sindikal hau are beharrezkoago bihurtu dute eta.

IKUSMIRAN subjektuari begira dago, politikan eta ekonomian hitza bereganatu eta erabaki zein kudeaketa ahalmena eskuratu behar dituen subjektuari begira. Publikoa eta pribatua aldatzeko. Eraldaketa boterea daukan subjektua da hau eta ohiko langile nukleoa baino zabalagoa da. Honela, ahaztutako, menperatutako, baztertutako eta estigmatizatutako talde sozialak –askotan sindikalismoak berak horrela tratatu dituenak– erdiguneari kokatu behar ditu. Zeren eta gu, euskal emakume langileak, komunitatearen jardunaren eta biziraupenaren gunea baikara. Zeren eta zatikaturik, indibidualizatuta, hierakizaturik eta alienatuta dagoen langile klaseak ikuskera berriak behar baititu. Esplotatutako eta menperatutako pertsonen erresistentzia errealitateetik eta eskarmentutik begiratu eta teorizatu nahi du IKUSMIRANek. Anbizio handirik, ala? Ziurrenik bai, baina kasu honetan anbizioa zera da, perspektibaz aritzea eta proba-errakuntzak egiteari beldurrik ez izatea. Urte hauetan zehar, IKUSMIRANek errealitate honen zerumugara behiratu nahi izan du, sumintzen eta mobilizarazten gaituen errealitatera, aldaketarantz bultzatzen gaituen eta, era berean, hunkitzen gaituen errealitate honetara begiratu nahi izan du. Euskal Herrian atzematen ari garen aldaketa eta eraldaketa joerei begira aritu izan da.

IKUSMIRAN, 2016 honetan, hala ere, eremu sindikalaren gai zehatzari ekin diogu: Euskal Herriko ordezkariak sindikalaren bilakaera. Ipar Hegoa Fundazioak uste du sindikalismoa egiten ari den hausnarketa globalari lagundu diezaiokeela azterketa honek. Sindikalismoak jakin badaki bere burua birpentsatu behar duela eta horretan ari da. Sindikalismoaren eraginkortasun eta ordezkariak krisia deitu izan den horri aurre egitea da helburua, krisi honek mendebalde kapitalistan dimentsio orokorra, baina Euskal Herrian profil propioa daukala jakinda.

Eraginkortasun krisia, Euskal Herriko klase sindikalismo soziopolitikoak badakielako klase gatazkan –politikan zein lan eremuetan– kapitala garaitzen ari dela. Ordezkaritza krisia, langile klasearen sektore batzuk mundu sindikaletik zeharo aldendurik daudela ere badakielako. Honela, gure erronkei izena ematen diegu; langile guztien ahotsa eta langile guztien arteko elkartasuna antolatzen dituzten bitartekorik gabe, ez dago benetako eraldaketarako estrategiarik. Hori ere badakigu.

2016ko IKUSMIRAN txostenean ordezkariak eta estaldura sindikalaren banaketa eta bilakaera kuantitatiboa eta afiliazioen profilak aztertu dira. Era berean, sindikalismoaren inguruan dagoen pertzepzio sozialera ere hurbildu gara. Eta txostena osatu nahi izan dugu sindikalismoan erreferenteak diren hainbat lagunek horren inguruan egiten dituzten ekarpenek: Sophie Beraud eta Manuel Garí, Euskal Herriko kanpoko ikuspegi konplizeak; Rafa Díezek, azterketa euskal sindikalismoaren etorkizuneko erronkei lotu die; Gorka Berasategik eta Igor Arroyok, praktika sindikalaren eremu zehatzetatik aztertu dute txostena..

Espero dugu praktika sindikalaren ibilbide berriak topatzen lagundu dezala txostenak. Uste dugu hausnarketa hauek baliagarriak izango zaizkiola eraldaketa sozialarekin engaiaturik dagoen orori. Baita, beste eredu sozial bat defendatu arren, euskal komunitatearen etorkizunarekin konprometiturik dauden horiei ere. Izan gaituzten kontziente, hona ekarri ditugun datuek erakusten digute euskal sindikatuok milaka afiliatudun eragile politiko irmoak eta sozialki aitortuak garela. Inork ezin dio errealitate honi ezizuziarena egin eta, are gutxiago, mundu sindikalaren parte garenok.

Neoliberalismoak, argi dagoenez, ez du holakorik egiten. Horregatik dago tematuta sindikalismoaren ekintza eta ordezkariak gaitasuna erasotzen eta kapital-lan harremanak indibidualizatzen. Honetarako, politika eta instituzioak aldebakartasun kapitalistaren eragile bihurtzen ditu, eta klase gatazka demokratizatu ahal duen edozein marko, eskubide, kontratu edo eremu dekretuz ezabatzen du. Sindikalismo eraginkor eta politikoki aitortua ezinbestekoa da demokrazian eraikitzeko, erdiesteko, demokrazian bizitzeko. Sindikalismoak bere burua birpentsatu behar du bere funtzio historikoa betetzeko eta euskal komunitatearen erronkei aurre egiteko, ados. Euskal Herriak horretarako giharra badauka, jardun eta ekin diezaiogun, bada.

AZTERKETA TEKNIKOARI BURUZ

Eskuartearen duzun lan hau egitea ez da erraza izan. Datu ekonomikoak, asko eta askotarikoak, (ia) egunero jasotzen baditugu ere, lan harremanen inguruko datuak biltzea (lan hitzarmenak, hauteskunde sindikalak, afiliazioak, langileen iritziak...) oso zaila suertatu da.

Batetik, egiturazko arazoa dugu. Euskal Herriak aitortza instituzionalik ez izateak, are gutxiago lan munduan, bere inguruko datuak edukitzea izugarri zailtzen du. Kasu honetan, landuko ditugun gaien inguruko informazio osorik ez dago. Ondorioz, ezinezko edo oso zail egiten da ikuspegi orokor batetik ezer aztertzea.

Bestetik, Hego Euskal Herrira mugatuta ere, arazoa ez da desagertzen. Nafarroa Garaian lortu ahal izan dugun guztia urteko itxierak izan dira, datu horiek funtzionario mota eta lan kontratadunak diren ezberdinduta. Gainera, datu horiek ez daude publikatuak eta LABen lanari esker eskuratu ditugu.

Araba, Bizkaian eta Gipuzkoan, datuak biltzen dituzte Eustatek eta LHKK, baina publiko egiteko orduan, batzuetan modu puntualan eta bestetan modu partzialan egiten dute. Atal batzuen inguruan informazio gehiago dago besteetan baino. Beraz, ez dago iturri ofizial bat eremu honi guztiari jarraipena egiten dionik eta ondorioz ikuspegi orokor koherente bat ematea (Euskal Herriko edozein eremu izanda ere) oso zaila da. Datu iturri ezberdinetara eta data ezberdinetara jo behar izan dugu ikuspegi orokor hori osatzen saiatzeko, lehenengo atalean (metodozko oharrak) azaltzen dugun bezala.

Lan honen mugak eta zailtasunak aipatuta, txostena horrela antolatu dugu. Lehenik, bigarren atalean, marko orokorraren zertzelada batzuk eman ditugu, bereziki ikuspegi konparatu batetik. Hego Euskal Herriko eta OCDEko eta Europar Batasuneko lan harremanen sistema ezberdinen arteko alderaketa xume bat egin dugu lan hitzarmenen hedadura, ordezkariak sindikala eta afiliazioa kontuan hartuta.

Ondoren, Hego Euskal Herrian zentratu eta xeheago aztertu ditugu hiru eremu horiek. Hiru eremu horiek aztertzeko hautua, galdera hauei erantzuna emateko beharretik egin dugu:

Hego Euskal Herrian nortzuk daude lan harreman sistemaren arabera eta sindikatuen lanaren ondorioz babestuta eta nortzuk ez?

Hego Euskal Herriko langileak, zer harreman eta pertzepzio ditu sindikatuetik? Harremanak dituztenak (eta ez dituztenak) nortzuk dira eta zer ezaugarri dituzte?

Aurretik aipatutako zailtasun eta ezintasunengatik, bildutako hainbat datu zaharkituak egon zitezkeela eta, Euskal Herriko datuetan zentratu aurretik, lehenik lan harremanen azterketa egin dugu, langile eta enpresen dimentsioei dagokienez. Horrela, hirugarren atalean, biztanleria orokorrean, aktiboak eta hirugarrenen kontura lan egiten duten soldatapeko langileak zehazki, aztertu eta haien ezaugarritzea egin dugu, baita enpresa demografiarena ere.

Horren ondotik, aipatu hiru eremuetan murgildu gara: Lan hitzarmenak (laugarren atala), langileen ordezkariak eta hauteskunde sindikalak (bostgarren atala) eta afiliazioaren datuetan (seigarren atala) sakondu eta horrela aztertu dugu:

- **Lan hitzarmenak.** Horiek hirugarrenen kontura lan egiten duten soldatapeko langile guztiei eragiten diete. Bestela esanda, langilearen nahiaren gainetik kokatzen da eta bera bere eskubide edo interesetik jokabide aktiboa edo pasiboa izan, berdin-berdin babestuko du. Hartara, lan hitzarmenaren egungo hedadura eta ezaugarritzea aztertu dugu, egondako bilakaerarekin batera.
- **Ordezkariak sindikala.** Horren bidez hirugarrenen kontura lan egiten duten soldatapeko langile batzuek (modu orokorrean esanda, 6 langile edo gehiago dituzten enpresa edo lantokietakoak) lantokian bertan eta sektoreko negoziazioetan ordezkariak sindikala edukitzeko aukera dute. Hori ez da beti gauzatzen, aurrerago ikusiko dugun bezala, eta ondorioz, horren azterketa beharrezkoa da ezaugarritzeko ekintza sindikalaren eragin esparrua zein den.

Beraz, ordezkariak sindikala aztertzean honako galderetan kokatuko dugu arreta: Nortzuek antolatzen dituzte hauteskunde sindikalak eta nortzuek ez? Zeintzuk izan dira hauteskunde sindikalen emaitzak eta bilakaera?

- **Azkenik, afiliazioa.** Sindikatu batean izena ematen dutenek osatzen dute. Hauek, sindikatuta egoteagatik hainbat abantaila jasotzen dituzte (defentsa juridikoa, informazioa, babes kolektiboa edo komunitarioa, eta abar), baina nolabait, autoeraketa eta autogestioaren bidez gauzatzen da, hau da, sindikatuta daudenen artean euren buruari eskaintzen dieten zerbitzu eta laguntza kolektiboa litzateke.

Bukatzeko, gaiaren inguruko langileen hainbat iritzi bildu ditugu zazpigarren atalean.

1. METODOZKO OHARRAK.

1.1. ERABILITAKO ITURRIAK ETA DATUAK.

BIGARREN MAILAKO DATU ITURRI OFIZIALAK.

Lehenik eta behin datu estatistikoak biltzen dituzten iturri ofizialetara jo dugu. Honakoak:

- **INE:** Udal errolden ustiaketa jarriak baliatuta biztanleria datu soziodemografikoak bildu ditugu.
- **Lan eta gizarte segurantzaren ministerioa:** Lan hitzarmenen inguruko datuak bildu ditugu.
- **EUSTAT:** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 1995 eta 2011 arteko emaitza sindikalen bilakaera jaso dugu.
- **Lan Harremanen Kontseilua (LHK):** Lan hitzarmenen inguruko datuak eta 2011-14 emaitza sindikalak
- **Nafarroako Gobernuak:** Nafarroa Garaiko 2000 eta 2015 arteko emaitza sindikalen bilakaera jaso dugu.

INKESTAK.

Eurofound: 3rd European Company Survey (ECS), 2004, 2009 eta 2013 urteetan egindako inkesta da. 2013koa (guk erabilitakoa) Gallup inkesta etxeak egindako lana da, EBko Eurofound agentziarentzat (Lanaren eta bizitza baldintzen hobekuntzarako europar fundazioa). Datu baseak UK Data Archive-etik eskuratu ahal izan ditugu. Hirugarren olatu hau, 32 herrialdetan egin zen (EBko 28ak eta Islandia, Mazedonia, Montenegro eta Turkian) 10 langile baino gehiagoko enpresetako 30.113 giza baliabideetako arduradun eta 9.094 langile ordezkari inkestatuz. Espainian 1.651 giza baliabideetako arduradun eta 506 langile ordezkari izan ziren, ondorioz, ezinezkoa izan da hortik Hego Euskal Herriko azpilagin esanguratsurik ateratzea.

INE: EPA inkestatik, biztanleria aktiboa eta ordainpekoen inguruko datuak jaso ditugu.

Lan eta gizarte segurantzaren ministerioa:

- **Encuesta de Condiciones de Vida en el Trabajo (ECVT):** Espainiako Lan eta gizarte segurantzaren ministerioak 1999an hasita 2010 arte urte urte egindako inkesta da. Pertsona okupatuak inkestatu eta batetik, haien lan egoera eta senide ezaugarrien inguruko informazio objektiboa biltzen zen eta bestetik, haien lan baldintza eta lan harremanen inguruko iritzi eta ikuspegi subjektiboa. Inkestan ikertzen diren gaiak honakoak dira: okupazioaren edo lanpostuaren ezaugarriak, lan mugikortasuna, okupatuaren asebetetze maila lanean, lan antolaketa, negozioz kolektiboa, lan harremanak, lan denborak, soldatak, prestakuntza eta lan segurtasuna, eta bizitza familiarra eta lanekoaren arteko kontziliazioa.

Txostenera 2009 eta 2010eko datuak ekarri ditugu. 2009an Estatuan 7.981 inkesta egin ziren eta Hego Euskal Herrian 585 (360 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eta 225 Nafarroa Garaian). 2010ean 8.061 estatuan eta 648 Hego Euskal Herrian (381 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eta 267 Nafarroa Garaian). Hego Euskal Herriko datu orokorretarako 2010eko azpilagina erabili dugu. Datu zehatzagoetarako edo gurutzaketetarako, 2009 eta 2010eko datuak elkartu ditugu, lagin nahikoa izateko.

- **Encuesta de Coyuntura Laboral (ECL).** 1990etik hiru hilero egiten den inkesta da. Metodologia aldetik, ordutik hona hainbat aldaketa izan dituena. Guk publiko egindako azken inkestaren emaitzak erabili ditugu, 2012ko laugarren hiru hilabetekoa eta serieetarako 2000 eta 2006 urteetako hiru hil berdinako datuekin osatu dugu.
- **Centro Investigaciones Sociológicas (CIS):** Afiliazioaren atalean, elkarte mota ezberdinen arabera izen emateen artean alderaketa egiteko CISek egindako bi inkesten lanketa egin dugu. Batetik Nafarroa Garaian 2015eko ekainean egindako hauteskunde ondokoa (CIS-3.097) eta bestetik 2012ko urrian, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan egindako hauteskunde ondokoa (CIS-71.612)

TXOSTENAK

L. Fulton (2013) "Worker representation in Europe". Online publikazioa honako loturan:
<http://www.worker-participation.eu/National-Industrial-Relations>

Lan Harremanen Kontseiluak 2006an argitaratutako "Hauteskunde sindikalak EAEn. Prozesuak eta emaitzak".
<http://web.cri-lhk.org/verdocumento.asp?iddoc=4535>

Lan Harremanen Kontseiluak argitaratutako EAEko egoera ekonomikoa eta lan harremanak 2014an.

LAB-en DATU BASEA

LABek hauteskunde sindikalen inguruko informazioa biltzen du datu base batean. Datu base horren lanketak fase ezberdinak bizi izan ditu. Horrela Aztikerrek jasotako datu basetik ondoko aldagaiak landu dira:

- Herrialdea: Hego Euskal Herriko lau herrialdeak.
- Urtea: Hauteskundeak egindako urtea.
- Urte zikloa: 1990-1993, 1994-1997, 1998-2001, 2002-2005, 2006-2009, 2010-2013, 2014-2016 urteetan banatuta. Datu horiek txostenean adierazteko orduan, zikloaren azken data jarri diegu (2002-2005 beharrian, 2005, etab.)
- Zentsua: Hauteskundeak egiteko momentuan boto eskubidea zuen langile kopurua.
- Enpresa tamaina: Zentsuaren arabera sortua. Pertsona 1, 2-9 pertsona, 10-49 pertsona, 50-249 pertsona edo 250 pertsona baino gehiago.
- Ondoko sindikatuen delegatu kopurua: LAB, ELA, CCOO, UGT, CGT, USO, ESK, STEE-EILAS, SATSE, AFAPNA, N_S (sindikatu gabekoak), BESTE eta GUZTIRA. Datuen aurkezpenerako, gehienetan, LAB, ELA, CCOO, UGT eta Besteak bezala kodetu ditugu emaitzak.
- Delegatuen sexua: Emakumea edo gizona

LAB-en datu basearen alderaketa emaitza ofizialekin

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako, LABen datu basean 91.183 rendelegatuen inguruko informazioa dago, 1990tik hasi eta 2016ra arte. Informazio bilketa hori ez da berdina izan garai bakoitzean. Datu horiek datu ofizialekin erkatuta, 2002 eta 2013 urteen arteko datu bilketa da osoena. LABeko datu basean dagoen delegatu kopurua taulan ageri diren datu ofizialen gainetik dago. LABeko datu basea erabiltzean ziklo osoa kontuan hartu eta delegatu guztiak batu ditugu, beraz, datu metatuak dira. Iturri ofizialetatik jasotako datuetan, berriz, urte amaierako itxierako datuak dira, beraz ez datoz guztiz bat. LHKtik jasotako datuak 1995, 1999, 2003, 2007, 2011 eta 2014ko itxierei dagozkie.

DELEGATU KOPURUA DATU OFIZIALETAN ETA LAB DATU BASEAN. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa		
	EAE - LHK	EAE - LAB
1990 - 1993*	-	20
1994 - 1997*	15.943	6.816
1998 - 2001	16.921	8.048
2005	18.917	21.458
2009	20.434	22.043
2013	19.734	20.133
2016	16.967	12.665
Guztira	108.916	91.183

* LHK 1995, 1999, 2003, 2007, 2011 eta 2014

2002 eta 2013 urteen arteko datuetan zentratuta, horiek direlako osatuen daudenak, datu ofizialen arabera sindikatu bakoitzak epealdi bakoitzean jasotako babes LABen datu basean jasota dagoenarekin alderatzerakoan dagoen aldea ez da esanguratsua. Kasurik okerreanean, desbideraketa 1,6 puntukoa da "Beste" kategoriaren barruan dauden aukerentzat 2009an amaitzen den zikloan. Beraz, LABen datu basea, epealdi horietarako unibertsoaren ordezkagarritzat jotzen dugu.

Era berean, 2016an itxi dugun epealdirako ere horrela egingo dugu. LABen datu basea eta 2014ko datuen artean dagoen aldea, urte horretatik aurrera egondako bilakaerari lotzen baitiogu.

UNIBERTSOA ETA LAB DATU BASEAREN ARTEKO ALDERAKETA.						
EAE - LAB						
Kopuruak	LAB	ELA	CCOO	UGT	Beste	GUZTIRA
2002 - 2005	3.548	8.613	4.280	2.930	2.087	21.458
2006 - 2009	3.757	8.755	4.493	2.918	2.120	22.043
2010 - 2013	3.615	7.989	3.971	2.509	2.049	20.133
2014 - 2016	2.576	5.105	2.270	1.304	1.410	12.665
(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
2002 - 2005	16,5	40,1	19,9	13,7	9,7	100,0
2006 - 2009	17,0	39,7	20,4	13,2	9,6	100,0
2010 - 2013	18,0	39,7	19,7	12,5	10,2	100,0
EAE - LHK						
Kopuruak	LAB	ELA	CCOO	UGT	Beste	GUZTIRA
2003	3.121	7.756	3.651	2.636	1.753	18.917
2007	3.503	8.216	4.096	2.689	1.610	20.114
2011	3.405	7.855	3.936	2.455	2.083	19.734
2014	3.111	6.766	3.262	1.984	1.844	16.967
(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
2003	16,5	41,0	19,3	13,9	9,3	100,0
2007	17,4	40,8	20,4	13,4	8,0	100,0
2011	17,3	39,8	19,9	12,4	10,6	100,0
2014	18,3	39,9	19,2	11,7	10,9	100,0
ALDEA						
	LAB	ELA	CCOO	UGT	Beste	GUZTIRA
2002 - 2005	0,0	-0,9	0,6	-0,2	0,4	0,0
2006 - 2009	-0,4	-1,1	0,0	-0,2	1,6	0,0
2010 - 2013	0,7	-0,1	-0,2	0,1	-0,4	0,0
2014 - 2016	2,0	0,4	-1,3	-1,4	0,3	0,0

Nafarroa Garaia kasuan, aldeak txikiak dira baita ere. Kasu honetan, kontuan hartuko ditugun datu baseko datuak 2006tik aurrerakoak dira. Aurreko zikloetan datuak faltan daudelako (2005ean amaitzen den zikloan datuen erdia biltzera iritsi ziren).

DELEGATU KOPURUA DATU OFIZIALETAN ETA LAB DATU BASEAN. NAFARROA GARAIA			
	Nafar Gobernuaren datuak	NAF - LAB	Ehunekoak (%)
2001	5.663	741	13,1
2005	6.326	3.313	52,4
2009	6.724	7.050	104,8
2013	6.288	6.306	100,3
2016*	5.936	4.166	70,2
Guztira	30.937	21.576	69,7

Nafar Gobernuko datua 2015eko itxierakoa da

Hortik aurrerakoak ordea, bere osotasunean jaso direla esan daiteke (%104 2009an, %100,3 2013an eta bi urte pasatxoko epean metatutako datuak %70 gainditzen dute datu ofizialen lau urteko emaitzekin alderatuta). Horretaz gain, sindikatuen ehunekoei erreparatuta, alde handienak azken epealdian UGT 1,8 puntu azpitik eta LAB 1,5 gaintik ageri dela da, eta hori neurtzeko moduagatik eta ematen ari diren joeren ondorio dela baieztatu daiteke.

UNIBERTSO ETA LAB DATU BASEAREN ARTEKO ALDERAKETA						
LAB NAFARROA						
Kopuruak	LAB	ELA	CCOO	UGT	Beste	GUZTIRA
2001	731	3	6	1	0	741
2005	794	656	694	949	220	3313
2009	884	1536	1747	2183	700	7050
2013	829	1381	1636	1830	630	6306
2016	679	921	950	1015	601	4166
(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
2001	98,7	0,4	0,8	0,1	0,0	100,0
2005	24,0	19,8	20,9	28,6	6,6	100,0
2009	12,5	21,8	24,8	31,0	9,9	100,0
2013	13,1	21,9	25,9	29,0	10,0	100,0
2016	16,3	22,1	22,8	24,4	14,4	100,0
NAFARROAKO GOBERNUA						
Kopuruak	LAB	ELA	CCOO	UGT	Beste	GUZTIRA
2001	691	1.134	1.281	1.881	676	5.663
2005	734	1.324	1.518	2.054	696	6.326
2009	829	1.437	1.681	2.077	700	6.724
2013	822	1325	1605	1792	744	6288
2015	876	1299	1431	1555	775	5936
(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
2001	12,2	20,0	22,6	33,2	11,9	100,0
2005	11,6	20,9	24,0	32,5	11,0	100,0
2009	12,3	21,4	25,0	30,9	10,4	100,0
2013	13,1	21,1	25,5	28,5	11,8	100,0
2015	14,8	21,9	24,1	26,2	13,1	100,0
ALDEA						
	LAB	ELA	CCOO	UGT	Beste	GUZTIRA
2001	86,4	-19,6	-21,8	-33,1	-11,9	0,0
2005	12,4	-1,1	-3,0	-3,8	-4,4	0,0
2009	0,2	0,4	-0,2	0,1	-0,5	0,0
2013	0,1	0,8	0,4	0,5	-1,8	0,0
2016*	1,5	0,2	-1,3	-1,8	1,4	0,0

*Nafar Gobernuko datua 2015eko itxierakoa da

Horrenbestez, LABek osatutako datu basea baliagarria da, 2002-2005ean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara mugatuta eta hortik aurrera Hego Euskal Herri osoko datuetarako.

Ezkutuko ekonomia eta autonomo faltsuen kopuruaren estimazioa.

Autonomo faltsu eta ezkutuko ekonomian lan egiten duten pertsonen estimazio azkar bat egiteko 2010eko EPAren datua eta Segurantzaren Sozialarena erkatu ditugu 5.1. atalean. Horretarako bi iturri horien artean dagoen diferentzia bi sektore horien estimazio gisa hartu dugu. Izan ere, EPAk ofizialki autonomo gisa erregistratutakoak baina bere lanaren dedikazio osoa edo hiru laurden baino gehiago enpresa bakarrari eskaintzen dioten pertsonak, soldatapekoen barruan kuantifikatzen ditu. Beraz, EPA eta segurantzaren sozialaren artean izan ohi den aldean, horiek eta ezkutuko ekonomian aritzen direnen estimazio gisa hartu dugu txosten honetan.

2. LANGILEEN ORDEZKAPENERAKO EREDUAK. EUSKAL HERRIA ETA EUROPA.

2.1. LANGILEEN ORDEZKAPENERAKO EREDUAK.

Jarraian Europar Batasunean eta Norvegiar langileek lan harremanetan eta instituzioetan euren ordezkariak onartu izateko dauden ereduak gaineko zertzelada orokor batzuk emango ditugu. Egingo dugun deskribapena oso azalekoa izango da, zalantzarik gabe. Izan ere, lan honen helburua ez da ereduak arteko aldeak ikertzea edo haien deskribapen zehatza egitea. Aipatuko diren ereduak gehiago aztertuko, egituretan (sindikatuena, enpresena zein enpresa batzordeena) dauden berdintasunak eta ezberdintasunak aztertu beharko lirateke, baita ordezkari ezberdinek dituzten funtzio, gaitasun edota eskubide ezberdintasunak ere.

Beraz, atal honek ereduak arteko alderaketa zorrotza egitea baino, europar testuingurua kokatzea du helburu. Testuinguru hori ezagutzeak, gainetik bada ere, garrantzia handia du herri edo estatuak arteko alderaketak egiten direnean, datuetan dauden berdintasunak eta ezberdintasunak hobeto ulertu ahal izateko.

L. Fultonek ETUIrentzat (European Trade Union Institute) egindako azterlan¹ batean, Europako langileen ordezkariak sistemak lau multzotan sailkatzen ditu. Lau multzo horiek sortzeko bi aldagaien konbinaketa egiten du, sindikatu egitura batetik, enpresa batzordea (edo antzeko egiturak) bestetik.

Horrela, EB (28 estatu) eta Norvegia kontuan hartuta, badira lau estatu non langileen ordezkariak nagusia enpresa batzordeen bidez gertatzen baita. Horietan langile guztiak euren ordezkariak hautatzen dute enpresa mailan. Legeek, ordea, ez dute sindikatuen egiturarik aurreikusten lan eremuan. Horrela antolatzen diren estatuak Alemania, Austria, Herbehereak eta Luxenburgoko dira.

Beste zortzi estatutan (Txipre, Danimarka, Finlandia, Italia, Lituania, Malta, Errumania eta Suedia), kontrako egoera ematen da. Langileen ordezkariak lan eremuan sindikatuen bidez ematen da. Sindikatu bati lotuta ez dauden langileentzat ere bestelako arau batzuk egon badaude, baina horiek salbuespenak dira. Fultonek, adibide gisa, Finlandia aipatzen du, non langileek sindikatu gabeko ordezkariak hautatu baititzaizkete, baina soilik sindikatutako ordezkariak ez dauden lan eremuetan edo lehenengoak gehiago diren lan eremuetan.

Bi eredu hauen artean, beste tarteko bi eredu deskribatzen ditu Fultonek. 12 estatutan (Belgika, Kroazia, Txekiar Errepublikak, Frantzia –eta hortaz, Ipar Euskal Herria-, Grezia, Hungaria, Norvegia, Polonia, Portugal, Eslovakia, Eslovenia eta Espainia - eta hortaz, Hego Euskal Herria-) legeek edo oinarriko adostasunek, bi bideen arteko nahasketek marrazten dituzte langileen ordezkariak, sindikatuen bideak eta enpresa batzordeak, alegia.

Hala eta guztiz ere, estatu hauen arteko errealitatean ezberdintasun handiak daude. Grezian, Portugalen edo Txekiar Errepublikan, esaterako, langileen batzordeak ez dira batere ohikoak. Hungarian, Eslovakian eta Eslovenian, enpresa batzordeen funtzioak eta maila lokaleko sindikatuenak gainjartzen dira neurri handi batean. Kroazian, enpresa batzordea existitzen ez bada, bertako sindikatu batek bete ditzake langileen ordezkari lanak.

Hori gertatzea, gainera, nahiko ohikoa da. Espainian enpresa batzordeak hitzarmen kolektiboekiko konpromisoa hartzen dute eta enpresa batzorde horiek sindikatuei oso lotuta daude. Belgika eta Frantziar sindikatuak dira nahiko argi aktore hegemonikoak.

Dena dela, ereduak ez dira estatikoak. Batetik, EBeko 2002/14/CE zuzentaraua eragina izaten ari da, sindikatuen ordezkariak ereduak ahuldu eta enpresetako komiteak edo batzordeak indartzeko. Bestetik, estatu mailako botere harreman politikoen aldaketen ondorioz, gobernua dauden alderdi politikoen batzuetan enpresa batzordeak indartzera jotzen dute eta bestetan sindikatuen egiturak. Bi aukera horien artean, azken urteetan, gehienetan lehena jazo da, hau da, sindikatuak ahuldu eta enpresa batzordeak indartzea. Azken 8 urteetan Eslovakian, Txekiar Errepublikan, Polonian edota Hungarian ezagutu dituzte horrelako mugimenduak. Norvegiar, enpresa handietako enpresa batzordeak sindikatuekin batera existitzen badira ere, haien funtzioak lehiakortasunari lotuago doa, langileen ordezkariak baino.

¹ L. Fulton (2013) Worker representation in Europe. Labour Research Department and ETUI. Produced with the assistance of the SEEurope Network, online publication available at <http://www.worker-participation.eu/National-Industrial-Relations>

Enpresa batzordeek erabateko nagusitasuna	Sindikatuak erabateko nagusitasuna
Alemania Austria Herbehereak Luxenburgo	Danimarka, Finlandia, Suedia Italia Txipre, Malta Errumania, Lituania
Enpresa batzordeek nagusitasun gehiago	Sindikatuak nagusitasun gehiago
Belgika, Espainia, Grezia Norvegia Hungaria, Polonia Eslovenia, Kroazia	Frantzia, Portugal Erresuma Batua, Irlanda Eslovakia, Txekiar Errepublika, Bulgaria, Estonia, Letonia

Aurreko guztia esanda, Estatu guztiek konpartitzen duten elementu bat zera da: sindikatuen garrantzia edota pisua langileen ordezkartzan. Europa iparraldeko estatuetan zein Italian hori argi dago, sindikatuak langileen ordezkartzarako bide bakarra baitira. Enpresa batzordeak bide bakarra diren lekuetan ere, Alemania edo Herbehereetan kasu, sindikatuek garrantzia handia izaten dute. Horietan nagusiki sindikatuen hautagaiek ordezkartza zabalena eskuratzen dute enpresa batzordeetan. Bi egiturak aldi berean existitzen diren estatu gehienetan, sindikatuek oso paper garrantzitsua izaten dute. Frantzia eta Belgika dira horren adibide. Bi estatu horietan, askotan eragin gehien duten enpresa batzordeetako kideak, sindikatuetako ordezkariak ere badira. Grezian eta Portugalen, langile batzordeak ez dira batere ohikoak. Eta hain zuzen, enpresa batzordeek indar gehien duten lekuetan dituzte sindikatuek oinarri sendoenak. Hungarian, Eslovakian edo Eslovenian egoera nahasiagoa da.

Sindikatuak presentzia garrantzitsua da langileen benetako ordezkariak batentzat, sindikatuek legearen babes ahula duten estatuetan, Erresuma Batuan edo Europa erdialde zein mendebaldean, adibidez. Estatu horietan, datuek diotenez, sindikaturik gabe, langileak ordezkartzarik gabe edo oso txikiarekin egoten dira lantokietan. Lehen aipatu Europako zuzentarauak aldatu ez duen egoera bat.

2.2. HEGO EUSKAL HERRIKO LANGILEEN BABES MAILA ETA ORDEZKAPENA EUROPAKOEKIN ALDERATUTA.

Europar Batasunean (28 estatus osatua) 2013an 180 milioi ordainpeko langile bazeuden, batez besteko afiliazio tasa %23,4ko balioan kokatzen zen. Ordezkaritza sindikala %33raino igotzen da eta lan hitzarmen ezberdinengatik babestutako langileen proportzioa %62koa zen, 2013an egindako 3. Europako Enpresei Inkesta².

Hego Euskal Herrira etorrita, 2010eko ECVT inkestaren ustiaketa baliatuta, %23,8 lirateke afiliatuak, ordezkaritza sindikala langileen %54 inguruk lukete eta lan hitzarmenengatik babestuta daudela dakitenak %53 lirateke.

Herraldea	Afiliatuak	Ordezkaritza	Lan hitzarmenarekin	Herraldea	Afiliatuak	Ordezkaritza	Lan hitzarmenarekin
Eskandinabiari eredia				Eredu anglosaxoiarra			
Finlandia	74	70	91	Ingalaterra	26	16	29
Danimarka	67	80	80	Irlanda	31	28	44
Suedia	70	54	88	Malta	51	14	61
Germaniari eredia				Txipre	55	33	52
Alemania	18	22	59	Ekialdeko eredia			
Austria	28	25	95	Bulgaria	20	26	30
Belgika	50	54	96	Txekia	17	12	38
Herbehereak	20	55	81	Eslovakia	17	38	35
Luxenburgo	41	56	50	Estonia	10	37	33
Eslovenia	27	39	90	Hungaria	12	16	33
Hegoaldeko sistema				Letonia	13	9	34
Espainia	19	57	70	Lituania	10	57	15
Frantzia	8	55	98	Polonia	12	24	25
Grezia	25	14	65	Errumania	33	52	36
Italia	35	27	80	Kroazia	35	23	61
Portugal	19	8	92	EB GUZTIRA	23	33	62
Hego Euskal Herria	24	54 ³	53 ⁴				

Iturriak: Eurofound: European Company Survey 2013; ETUI: Worker representation in Europe 2013; HEHrako ECVT 2010

Hiru aldagai edo dimentsio horien arteko harremanek edo artikulazioek lan harremanen inguruko informazio baliotsua ematen digute. Horrela, eta aurrez aipatutako ereduak berriro ere gogora ekarriz, sindikatuek erabateko nagusitasuna duten herrialdeetan afiliazioa oso altua da (Danimarka, Finlandia, Suedia). Germaniari eredian, non enpresa batzordeek erabateko nagusitasuna baituten, afiliazioa ez da hain altua, ordezkaritza, ordea, nahiko altua da. Eta beste ereduetan nahasketak ematen dira.

Hego Euskal Herria bigarren ereditik hurbilago legoke (germaniari ereditik, alegia) datuei erreparatuta, nahiz eta Fulltonen sailkapenaren arabera eredu misto batean sartu (enpresa batzordeek nagusitasun gehiago, baina ez erabatekoa). Afiliazioa EBko batez bestekoaren inguruan du Hego Euskal Herriak, marko legal berbera duen Espainiak baino bost puntu gehiago. Langileek enpresan duten ordezkaritza Europarekin alderatuta ia bikoiztu egiten du (Espainiako kopurutik 7 puntura goitik) eta langileek orotara duten babes (edo ezagutzen dutenek, Hego Euskal Herriaren kasuan) inkesta datuaren arabera, EBkoaren azpitik badago ere, Espainiaren bi datuak ikusita (ECS %70 eta ECVT2010 %37) estimatu daiteke Hego Euskal Herriko datua EBkoaren gainera dagoela.

Ordezkaritza sindikalaren datu gurutzatuak eskuratzeko, ECVT 2009-2010 inkestara joko dugu berriro ere. Horrela, Europako datuentzat ECS 2013 eta Hego Euskal Herriarentzat ECVT 2009-10ko datuak erabiliz, sektorearen eta enpresa tamainaren arabera langileen ordezkapenari buruzko informazio gehigarri baliotsua emango digu. Europako herrialde gehienetan joera berberak antzematen dira, baita Hego Euskal Herrian ere. Zerbitzuetan baino, bigarren sektorean edo industrian ordezkaritza

² 3rd European Company Survey (ECS): Enpresetako zuzendariak edo giza baliabideetako arduradunek erantzuten dute. <http://www.eurofound.europa.eu/es/surveys/ecs>

³ Taulako beste datuak European Company Survey 2013koak diren bitartean, HEHkoa ECVT2010 inkesten datua da. ECVT inkestari langileek erantzuten diote. Espainiarako datu berdina %47,2koa da.

⁴ ECVT2010 inkesten datua. Espainiarako datu bera %37,0 da.

gehiago izateko joera da, zenbat eta enpresa handiagoak, orduan eta ordezkari zabalagoa. 10 eta 49 langile arteko enpresetan langileen ordezkari %60,9koa da, 50 eta 249 langile artekoetan %78,1koa eta 250 langiletik gorako enpresetan ordezkari %82,9ra iristen da.

ORDEZKARITZA SINDIKALA SEKTOREAREN ARABERA							
Herrialdea	Guztira	Industria	Zerbitzuak	Herrialdea	Guztira	Industria	Zerbitzuak
Eskandinabiar eredia				Eredu anglosaxoiarra			
Finlandia	70,3	80	65,1	Ingalaterra	16,2	21,4	15
Danimarka	79,7	85,7	77,8	Irlanda	28,4	39,6	25,1
Suedia	54,1	66,6	48,2	Malta	14,1	20,1	12
Germaniar eredia				Txipre	32,6	47,1	25,2
Alemania	21,9	26,1	19,7	Ekialdeko eredia			
Austria	25,5	27,2	24,7	Bulgaria	26,1	36,2	18,9
Belgika	53,8	61,8	49,7	Txekia	12,3	13,3	11,7
Herbehereak	55	53,7	55,5	Eslovakia	37,7	44,5	33,6
Luxenburgo	56,5	67,9	51,9	Estonia	37,2	43,2	33,1
Eslovenia	39	44,1	34,8	Hungaria	15,6	21	12
Hegoaldeko sistema				Letonia	9,3	12,8	7,6
Espainia	57,1	60,3	55,5	Lituania	57,5	77,7	47,1
Frantzia	55,1	54,8	55,3	Polonia	24,1	22,2	25,7
Grezia	13,7	14,8	13,2	Errumania	51,7	67,1	40,2
Italia	27,5	30,4	24	Kroazia	23,5	27	21
Portugal	8,4	9,7	7,2	EB GUZTIRA	32,1	35,4	30,2
Hego Euskal Herria	54,9	65,8	51,5				

Iturriak: Eurofound: European Company Survey 2013; ETUI: Worker representation in Europe 2013; HEHerako, ECVT2009

ORDEZKARITZA SINDIKALA ENPRESAKO LANGILE KOPURUAREN ARABERA							
Herrialdea	10 - 49	50 - 249	250	Herrialdea	10 - 49	50 - 249	250
Eskandinabiar eredia				Eredu anglosaxoiarra			
Finlandia	67,8	95,3	100	Ingalaterra	11,2	36	60,9
Danimarka	77,3	94,8	98,5	Irlanda	24,5	52,1	79,5
Suedia	48,3	81,3	92,7	Malta	10	23,5	66,1
Germaniar eredia				Txipre	31	50,2	61
Alemania	12,7	52,4	82,7	Ekialdeko eredia			
Austria	18,5	58,6	89,2	Bulgaria	18,2	58,3	76,8
Belgika	47,2	82,7	98,3	Txekia	7,1	30,9	65,4
Herbehereak	48,6	80,7	96,4	Eslovakia	35,2	56,6	72,5
Luxenburgo	50	90,2	87,5	Estonia	34,9	49,9	60,6
Eslovenia	30,1	76,2	91,4	Hungaria	11	45,4	80,7
Hegoaldeko sistema				Letonia	6,4	21,8	31,1
Espainia	52,8	81,5	93,3	Lituania	54	71,8	92,3
Frantzia	48,2	89,3	97,1	Polonia	17,7	60,7	81,7
Grezia	11,9	31,4	48,3	Errumania	43,8	89,7	92,5
Italia	24,4	62,9	85,7	Kroazia	14,3	54,7	86,1
Portugal	5,9	24,6	62,4	EB GUZTIRA	26,5	59,8	82
Hego Euskal Herria	60,9	78,1	82,9				

Iturriak: Eurofound: European Company Survey 2013; ETUI: Worker representation in Europe 2013; HEHerako, ECVT2009-2010

Europako datuekin alderaketa eginda, Hego Euskal Herriak oso estaldura zabala du enpresa txikienetan (10 eta 49 langile artekoak), Europako baliorik altuenen artean kokatuz. Soilik Finlandia eta Danimarkak gaintzen dute eremu horretan. Beste bi enpresa tamainetan ere balioak altuak dira Hegoa Euskal Herriko (altuenetariakoak), baina kasu honetan herrialde gehiagorekin konpartitzen ditu antzeko datuak.

3. LANAREN TESTUINGURUA.

Ereduak eta testuinguru zabala aztertuta, Hego Euskal Herriko errealitatea xeheago aztertuko dugu orain. Horretarako, lehenik, lan harremanen deskripzioa eta azken urteetako bilakaeraren azterketa azkar bat egingo dugu, hala nola, enpresa dinamikarena. Honekin zera lortu nahi dugu, ezinbestean zaharkituak geratu ahal izan diren datuek, zein bilakaera eduki ahal izan duten irudikatzen laguntzea.

3.1. LAN HARREMANEN ALDAKETA NAGUSIAK 2002-2015.

INEk egiten duen EPA inkestaren eta errolda datuen arabera, 2015 hasieran 1.813.662 biztanle zeuden Hego Euskal Herrian 16 eta 64 urte bitarte zituztenak, 1.268.400 pertsona ziren aktibo⁵ eta horien artean 943.400 ordainpekoak ziren. Hau da, okupatuak biztanleria osoaren %69,9 ziren, eta ordainpekoak biztanleria osoarekiko %52,0 eta okupatuekiko %74,4.

Azken 15 urteak aztertzen baditugu hiru ziklo antzematen dira. Batetik, okupatutako biztanleriak goranzko joera agertzen du 2002 eta 2006 artean. Epealdi horretan 100.000 okupatu gehitu zitzaizkion lan munduari. 16 eta 64 urte arteko Hego Euskal Herriko biztanleria osoa kontuan hartzen badugu, berriz, haziera 20.651 pertsonakoa da. Ordainpekoak aztertuta, haziera 107.000 baino gehiagokoa da. Hau da, 2002-2006 epealdian biztanleriak %1,1eko igoera du, okupatuek %6,0koa eta ordainpekoek %11,9. Gainera, lehen epealdi horren ondoren, ordainpekoek igotzen jarraitzen dute, biztanleria eta pertsona okupatuak mantentzen diren bitartean, beraz, ordainpekoen pisu erlatiboa handitzen da.


2006 eta 2011 bitartean, biztanleria kopurua eta biztanleria aktibo kopurua gorabehera txikiekin, antzeko balioetan mantentzen dira (1.870.000 inguruan biztanleria eta 1.390.000 biztanleria aktiboa) eta esan bezala, ordainpekoak igotzen jarraitzen du hasiera batean (2006 eta 2008 artean 45.000 langile baino gehiago), ondoren mantendu edo zertxobait galtzeko (2008 eta 2011 artan 7.100 gutxiago).

Hirugarren zikloa, 2011 eta 2015 artekoa, jaitsierazkoa da hiru adierazleetan. Horrela, Hego Euskal Herriko 16 eta 64 urte arteko biztanleriak 57.106 pertsona gutxiago ditu, biztanleria aktiboak 112.900 gutxiago eta ordainpekoak 103.000 gutxiago. Ehunekoetara ekarrita, 2011-2015 epealdian, biztanleriak %3,1 galtzen du, biztanleria okupatuak %8,2 eta ordainpekoak %9,8.

URTEA	16-64URTEKOBIZTANLERIA	AKTIBOAK	ORDAINPEKOAK
2002	1.845.542	1.333.100	900.800
2003	1.850.191	1.359.300	919.000
2004	1.852.783	1.355.600	963.700
2005	1.863.579	1.386.400	997.900
2006	1.866.193	1.413.100	1.008.100
2007	1.865.977	1.398.600	1.030.800
2008	1.880.003	1.388.700	1.053.500
2009	1.885.587	1.401.400	1.038.400
2010	1.879.453	1.383.500	1.029.800
2011	1.870.768	1.381.300	1.046.400
2012	1.863.846	1.362.000	978.000
2013	1.848.082	1.324.700	932.500
2014	1.827.194	1.302.000	923.300
2015	1.813.662	1.268.400	943.400

⁵ Herrialde bateko **biztanleri aktiboa** (edo beste entitate geografikoa) lan adina duten bere biztanleek osatzen dute, bai ordainpeko lanean aritzen direlako (**biztanleri okupatua**) edo lanaren bilaketa aktiboan ari delako. Beraz, biztanleri aktiboa bi multzotan banatzen da: enplegua dutenak gabezia daudenak.

16 - 64 urte bitarteko biztanleria, biztanleria aktiboa eta ordainpekoa Hego Euskal Herrian, 2002 - 2015 (T1-T1)




Iturriak: INE. Erroldak eta EPA2002T1-2015T1

Biztanleria aktiboa biztanleria osoarekiko aztertzen badugu, aipatutako lehen zikloan (2006-11) hiru puntu eta erdi irabazten dituela ikusten da. Hortik aurrera, jaitsiera jarraia da, ordainpekoen joerekin alderatuta, gorabeherak ez dira hain "bortitzak", baina badirudi horien joerak aldatzea gehiago kostatzen dela. Ondorioz, 2006an lortu zen biztanleria osoarekiko aktibo zirenen portzentaje altuena, hau da, lan harremanetan modu batera edo bestera zeudenen portzentajerik altuena (%75,6). Horren ondoren, portzentaje hori jaisten joan da, 2015eko %69,9ra iritsi arte. Hori gertatzeko bi aukera daude, behintzat. Bata, jende bat lan mundutik kanporatua izatea, hots, aktibo ziren batzuk orain ez aktibo gisa egotea. Bestea, lan esparruan sartzeko eragozpenak handiagoak edo aukerak txikiagoak izatea (ikasle edo prestakuntza garaia luzatuz, lan munduan sartzeko borondateak edo nahiak hoztuz, eta abar).

16

Aktiboan barruan ordainpekoen gorabeherak, esan bezala, aldakorrak izan dira. Hala ere, 2002tik 2008rako joera hauen portzentajea handitzea izan zen. Horrela %67,6tik %75,9ra pasa zen. Hau da, aurretik aipatu dugun aktiboan hazkundea, bereziki ordainpekoen hazkundeari zor zaiola esan daiteke. Ondoren, 2011ra arte jaitsiera orokorra egon bazen ere, ordainpekoen proportzioa mantendu zen hiru laurdenetan. Eta azken lau urteetan gorabeherak handiagoak izan dira. 5 puntu pasatxoko jaitsiera dago 2011 eta 2013 artean, ondorengo bi urteetan berriro hazi egiten delarik.

Biztanleria aktiboa eta ordainpekoa Hego Euskal Herrian, 2002 - 2015



Iturriak: INE. Erroldak eta EPA2012T1-2015T1


Orain azken zikloa sakonago aztertuko dugu, bi arrazoiengatik. Bata, aurretik aipatu bezala, aldaketa kualitatibo nabarmenak eman direlako azken ziklo horretan eta bestea, ondoren aztertuko ditugun hainbat datu 2010ekoak direlako eta ordutik hona gertatutako aldaketak kontuan hartu beharko direlako datu horiek interpretatzeko.

Milakoak Hego Euskal Herria	Guztira		Aktiboak		Okupatuak		Langabeak		Lehen lana bilatzen duten langabeak		Ez aktiboak	
	2015T4	2010T4	2015T4	2010T4	2015T4	2010T4	2015T4	2010T4	2015T4	2010T4	2015T4	2010T4
Gizonak - Emakumeak												
Guztira	2.331,2	2.375,0	1.333,1	1.398,6	1.159,3	1.242,5	173,9	156,1	20,9	10,3	998,1	976,4
16 - 19 urte	96,2	92,5	5,4	10,3	2,2	6,7	3,1	3,5	1,9	1,0	90,8	82,2
20 - 24 urte	116,6	133,0	57,4	80,6	33,9	56,9	23,4	23,6	9,2	4,6	59,3	52,5
25 - 54 urte	1.182,8	1.290,4	1.045,4	1.137,7	918,4	1.019,2	127,0	118,5	9,4	4,7	137,4	152,6
55 urte eta +	935,6	859,2	224,9	170,1	204,7	159,7	20,2	10,4	0,4	-	710,7	689,1
Gizonak												
Guztira	1.126,6	1.160,4	703,7	762,9	617,4	680,0	86,3	82,9	10,3	4,9	422,8	397,5
16-19 urte	49,4	48,0	2,2	5,9	0,5	3,9	1,6	2,0	1,1	0,5	47,1	42,1
20-24 urte	59,1	67,7	31,3	39,2	18,9	26,5	12,2	12,7	5,2	2,2	27,9	28,4
25-54 urte	593,1	656,3	547,4	614,2	485,7	551,5	61,7	62,8	3,9	2,3	45,8	42,1
55 urte eta +	424,9	388,3	122,9	103,4	112,3	98,0	10,7	5,4	-	-	302,0	284,8
Emakumeak												
Guztira	1.204,6	1.214,7	629,3	635,7	541,8	562,6	87,6	73,2	10,7	5,3	575,3	578,9
16-19 urte	46,8	44,5	3,2	4,4	1,6	2,9	1,5	1,5	0,8	-	43,7	40,1
20-24 urte	57,5	65,4	26,2	41,3	15,0	30,3	11,1	10,9	4,0	2,5	31,4	24,1
25-54 urte	589,7	634,0	498,0	523,5	432,6	467,7	65,4	55,8	5,5	2,5	91,6	110,6
55 urte eta +	510,5	470,9	102,0	66,6	92,5	61,7	9,5	5,0	0,4	-	408,7	404,2

EParen arabera, 2015eko azken hiru hilekoan, Hego Euskal Herria 2.331.200 biztanletik 1.333.100 ziren aktiboak, %57,2 (lanarekin edo lan bila zebiltzanak). 2010ean 2.375.000 zen 16 urtetik gorako biztanleria eta aktiboak 1.398.600, %58,9, beraz. Hortaz, guztira 43.800 biztanle gutxiago ditu Hego Euskal Herriak orotara adin tarte horretan, %1,8ko jaitsiera. Biztanleria aktiboan jaitsiera nabarmenagoa izan da. 65.500 biztanle aktibo gutxiago daude 2015eko bukaeran 2010ean baino, %4,7ko jaitsiera, alegia. Aktiboen artean, lana zutenen eta ez zutenen artean ere aldaketak nabariak izan dira. Horrela 2015ean 83.300 landun gutxiago zeuden 2010ean baino, %6,7 gutxiago eta langabetuak, berriz, 17.800 gehiago, %11,4ko igoera.

17


Hego Euskal Herriko 16 urtetik gorako biztanleriaren lan egoera, 2010 eta 2015 . Kopuru absolutuak (Milakoak)



Iturriak: INE. EPA2010T4-2015T4

Garai bakoitzean multzo bakoitzak biztanleria osoarekiko osatzen zuten portzentajeak kontuan hartzen baditugu, aktiboen pisuak biztanleria osoarekiko 1,7 puntuko jaitsiera izan du, horrenbeste igoz ez aktiboen artean. Aktiboak gutxiago badira ere, langabeen pisua igo egin da ia puntu bat (0,9).

Biztanleria osoarekiko portzentajeak, Hego Euskal Herria, 2010-2015



Iturriak: INE. EPA2010T4-2015T4


3.1.1 SEXUAREN ARABERA.

Aldaketa orokorrak horiek izanik, xeheago aztertuta, aldaketa nagusietako bat gizon ez aktiboen arteko igoera izan da. 2010ean bezala, emakumeen artean, emakume ez aktiboen portzentajea altuagoa da gizonen artean baino (%47,8 emakumeak, %37,5 gizonak), baina 2010etik 2015era emakumeena hamarreko bat igo den bitartean, gizonenak ia hiru puntu egin du gora (2,8).

Aktiboen artean, okupatu eta langabeekin bezalatsu gertatu da. Emakumeen artean okupatu kopurua gizonen artekoena baino baxuagoa da, baina 2010tik pairatu duten jaitsiera 1,3 puntukoa izan den bitartean (%45,0ko balioan kokatuz), gizonen artean jaitsiera 3,8 puntukoa izan da (%54,8n kokatuz). Ondorioz, gizon eta emakumeen artean aldea egoten jarraitzen badu ere, apaldu egin da.

Ezin gauza bera esan langabetuen artean. Gizonen artean langabeen igoera 0,6 puntukoa izan den bitartean, emakumeen artean 1,3 puntukoa izan da.


2010 - 2015 egoeraren portzentajeak sexuaren arabera, Hego Euskal Herria.



Iturriak: INE. EPA2010T4-2015T4

Egoeraren arabera aztertzen baditugu aldaketak, biztanleria osoa kontuan hartuta, gizonen pisua pixka bat jaitsi egin da (%48,9tik %48,3ra), aktiboen artean, aldiz, 1,7 puntu jaitsi da emakumeen pisua igo den bitartean (%45,5etik %47,2ra). Baina aurretik aipatu bezala, emakume aktiboen presentzia hori, neurri handi batean langabeziara pasa direlako agertu da. Ondorio horrek 2010etik beste aldaketa bat eragin du; 2010ean emakumeak soilik ez aktiboen artean ziren nagusi. 2015ean, horretaz gain, langabetuen artean ere gizonak baino gehiago dira. Gainera, kontuan izanik lehen lana bilatzen dutenen artean emakumeen presentzia jaitsi egin dela, ondorioztatzen dugu langabetuen artean egondako emakumeen presentzia handitzea aurretik lanean zeuden emakumeen artetik eman dela.

2010 - 2015 sexu portzentajeak egoeraren arabera, Hego Euskal Herria



Iturriak: INE. EPA2010T4-2015T4

Ondorioz, krisi finantzario edota ekonomikoaren ondorio nagusiak hirutan zehaztuko genituzke:

1. 16 urtetik gorako biztanleriak 43.800 pertsonako jaitsiera izan du, baina bereziki 20 eta 54 urte artean (guztira 124.000 pertsona gutxiago). Horrek, aldaketa demografikoaren balizko eraginetik harago, emigrazio fluxuak iradokitzen ditu.
2. Gizonen artean, badirudi ondorio nagusia lan esparrutik kanporatzea izan dela.
3. Emakumeen artean, emakume aktibo eta ez aktiboen proportzioak mantendu badira ere, aktiboen artean mantentzen direnak langabezia daude neurri handi batean.

3.1.2 ADINAREN ARABERA


Adinaren arabera aztertuta, biztanleria osoaren kopurua zertxobait jaitsi da, baina jaitsiera hori ez da adin tarte guztietan antzeman; muturretan dauden adin tarteak handitu dira eta tartean daudenak gutxitu. 16-19 urte arteko 3.700 gazte gehiago daude 2015ean, 20-24 urte arteko 16.400 gutxiago. Ondorioz, gazteenen tarteak, hau da, 25etik beherakoena, 12.700 pertsonako jaitsiera izan du guztira. 25-54 urte arteko 107.600 pertsona gutxiago eta 55 urte edo gehiagoko 76.400 gehiago. Ondorioz, orotara, biztanleria gutxitu eta zahartu egin da bost urte hauetan.

Ehunekoetara ekarrita, 16 urtetik gorako biztanleria orokorrean aztertuta, 20 eta 55 urteko pertsonen galera egon dela ikus daiteke. Guztira, 2010ean %59,9 izatetik, 2015ean %55,7 izatera pasa dira, 4,2 puntuko jaitsiera. Antzeko joera antzematen da ia talde guztietan. Horrela, aktiboen artean 2,9 puntu beherago dago orain adin tarte hori, okupatuaren artean 2,8 beherago eta langabetuen artean 2,9 eta ez aktiboen artean jaitsiera txikiena izan dute, 1,8koa. Lehen lana bilatzen dutenen artean, adin tarte honetan ia ez dago aldaketarik.

Adin tarte nagusia, 55 urte edo gehiagokoena, hazi egin da 2010etik, 3,9 puntu gehiago, %40,1eko balioan kokatuz. Aktiboen (4,7), okupatuaren (4,8), langabeen (3,9) eta ez aktiboen (0,6) artean ere hauen proportzioa igo egin da. Aldaketak ikusita, nabarmentzen da adin tarte honek okupatuaren artean eduki duen igoera.

Adin tarte gazteenei dagokienez (16-19 eta 20-24), azpimarratzekoa da 20 eta 24 urte dituztenen pisua lehen lana bilatzen dutenen artean. 5 urteko adin tarte izanik, 25-54 urte dituztenek beste suposatzen dute talde honetan. 2010etik 2015era ia ez da egon aldaketarik. Aldi berean, bi adin tarte gazteenak, haien presentzia handitu dute biztanleria ez aktiboaren artean.

2010 - 2015 aldaketak adinaren arabera, Hego Euskal Herria



Iturriak: INE. EPA2010T4-2015T4


Adin tarte bakoitzaren barruko ezaugarriak aztertuta, 16 eta 19 urte arteko gazteen artean ez aktiboak dira nagusi eta gainera, haien portzentajea handitu dute 2010etik (5,5 puntu).

20 eta 24 urte artekoetan gauza bera esan behar dugu, are gehiago, aldea 11,4 puntukoa da, egun %50,9ko balioan kokatu delarik. Hau da, adin tarte honetan, erdia baino gehiago ez aktibo egoeran daude. Gainera, aktiboen artean, langabeak eta horien artean lehen lana bilatzen ari direnak dira igo egin dutenak haien portzentajea. Ondorioz, okupatuak guztira 22,7 puntu egin dute behera.

25 eta 54 urte artekoen artean nabarmentzekoa dena da ia ez dagoela aldaketarik inongo multzotan. Aldaketa nabarmenena okupatuaren barruan mugimendua egon dela okupatuetatik (1,4 puntu gutxiago) langabetuetara (1,5 gehiago).

Azkenik, adin tarte nagusienean, okupatu gisa mantendu direnen portzentajea nabarmentzen da. Ez aktiboen portzentajea 4,2 puntu jaitsi da (%76,0raino) eta hori aktiboen artean suposatzen duen igoeran, okupatuaren 3,3 puntuko igoeran eta langabetuen puntu bateko igoeran itzuli da.


2010 - 2015 aldaketak adin bakoitzaren barruan, Hego Euskal Herria



Iturriak: INE. EPA2010T4-2015T4

3.1.3 ORDAINPEKOAK.

Aurretik esan dugu, biztanleria okupatuarekiko 2015ean %74,4 ziren ordainpekoak, biztanleria osoarekiko %52,0, alegia. Horien artean, hau da, ordainpekoen artean gehiago dira gizonak emakumeak baino (gizonak %51,2 eta emakumeak %48,8). Hala ere, aldea nabarmen murriztu da 2010etik. 5,4 puntuko aldea egotetik 2,4 puntuko aldea egotera pasa da.



Iturriak: INE. EPA2010T4-2015T4

Adinaren arabera, ordainpekoen artean zahartze nabari bat eman da. 35 urtetik gorako adin tarte guztiek irabazi dute pisua, adin horretatik behera daudenen kontra. Guztira, %8,2 gutxiago dira 35 urtetik beherakoak.


Multzo nagusia 35-44 urte artekoena da (%32,7) eta 2010etik hona igo egin da gainera (2 puntu). Jarraian 45-54 urte artekoak datoz (%27,7) puntu eta erdiko igoera eduki dutenak hauek ere. Hirugarren multzo nagusia 25-34 urte artekoena da eta hemen gertatu da aldaketarik handiena. 2010ean 45-54 urtekoekin batera ia proportzio bera zuten, orain, ordea, ia sei puntu jaitsita hirugarren lekuan daude, 7 puntu baino gehiagoko tartearekin.

Laugarren multzoa, 55 urte eta gehiagokoak dira. Hauek ere hazi egin dira proportzionalki. Egun %15,6 osatzen dute, 2010ean baino 4,7 puntu gehiago.

Azkenik, adin tarte gazteenetan jaitsierak egon dira. 16 eta 19 urte artekoek ia ez zuten presentziarik ordainpekoen artean 2010ean (%0,6) eta egun are gutxiago (%0,2). 20 eta 24 urte artekoak ere, %5,2tik %3,3ra pasa dira.

ORDAINPEKOAK ADINAREN ARABERA, 2010 - 2015. Hego Euskal Herria.		
	2010	2015
16 - 19	0,6	0,2
20 - 24	5,2	3,3
25 - 34	26,4	20,5
35 - 44	30,7	32,7
45 - 54	26,2	27,7
55 edo gehiago	10,9	15,6
Guztira	100,0	100,0

Iturriak: INE. EPA2010T4-2015T4



Iturriak: INE. EPA2010T4-2015T4

3.2. ENPRESA DEMOGRAFIA DINAMIKA 1999 - 2015.

3.2.1 ENPRESA EGITURA ETA DINAMIKA.

Egun INEren arabera 191.706 enpresa daude Hego Euskal Herrian. 1999tik 2008ra enpresa kopuruak gora egin zuen eten gabe, ordutik hona ordea, azken urtera arte, jaitsiera izan da joera bakarra. Azken urtean, 2015ean alegia, igoera txiki bat izan da berriro ere. Dena dela, kontuan hartzen badugu enpresa guzti horien artean pertsona fisiko bezala erregistratuta daudenak baina soldatapekorik gabekoak izan direla igoera izan dutenak azken urtean, jaitsiera gainontzeko enpresen artean mantentzen da.


ENPRESA KOPURUA SOLDATAPEKOEN KOPURUAREN ARABERA, BILAKAERA 1999 - 2015

	Hego Euskal Herria	Soldatapekorik gabe	6 baino gutxiago	6-9	10 - 49	50 - 99	100 - 199	200 - 499	500 - 999	1000 - 4999	5000 +
2015	191.706	98.935	74.841	7.475	8.598	945	513	276	71	48	4
2014	190.827	96.660	76.259	7.466	8.581	976	485	274	75	48	3
2013	194.569	98.137	76.813	8.495	9.150	1.027	527	302	69	45	4
2012	200.310	105.107	74.171	9.108	9.853	1.087	583	276	73	49	3
2011	207.037	110.838	74.874	9.163	10.065	1.135	558	281	72	48	3
2010	212.129	112.376	77.844	9.379	10.399	1.147	570	289	76	45	4
2009	215.434	112.165	79.978	9.456	11.583	1.218	589	315	80	49	1
2008	219.150	113.939	81.463	9.563	11.830	1.279	589	345	84	55	3
2007	207.573	105.418	79.067	9.319	11.491	1.234	581	331	81	47	4
2006	202.459	102.222	77.707	9.172	11.117	1.226	570	322	79	41	3
2005	198.269	99.470	76.727	8.979	10.919	1.157	566	331	69	48	3
2004	195.345	99.490	74.044	9.171	10.536	1.112	547	319	77	47	2
2003	193.639	101.732	70.695	8.801	10.331	1.085	542	325	79	47	2
2002	189.544	101.849	67.446	8.529	9.728	1.004	530	337	75	43	3
2001	189.328	98.546	71.251	8.243	9.351	1.028	486	308	74	36	5
2000	182.981	97.249	67.187	7.151	9.497	1.049	470	273	67	34	4
1999	185.222	102.289	65.369	6.773	9.012	979	427	281	61	27	4

Iturria: INE. DIRCE

Aipatu bezala, enpresa guztien artean erdia baino gehiago pertsona fisiko bezala erregistratuta daudenak baina soldatapekorik gabekoak dira. Horien hazkundera nabarmena izan da azken bost urteetan, hau da, 2010etik 2015erako tartean (4,3 puntuko igoera izan du, 2.275 enpresa gehiago) eta epealdi osoko portzentajerik altuenean dago.

Soldatapekoen kopuruaren araberako enpresa portzentajea 2015, Hego Euskal Herria




Iturria: INE. DIRCE

6 langiletatik beherako enpresek beste %35,3 osatzen zuten 2015ean, 74.841 guztira. Horien joera 2008ra arte nahiko antzekoa izan zen soldatapekorik gabeko enpresekin alderatuta, baina hortik aurrera aldeak daude. Hasiera batean jaitsiera nabariagoa izan zen (2008-2011 artean), gero apaldu eta igoera txiki bat ere izan zuten (2012-2013) eta azkenean jaitsiera egon da berriro ere.

Enpresa guzti hauetan, legez, ez dago hauteskunde sindikalik, ondorioz, guztiak kontuan hartzen baditugu enpresen %90,8n ez dago hauteskunde sindikalik. Soldatapekoak dituzten enpresak kontuan hartzen baditugu bakarrik, ehuneko hori 80,7koa da.

Soldatapekorik gabeko eta 0 - 5 soldatapeko enpresen kopuruaren 1999 - 2015 bilakaera, Hego Euskal Herria




Iturria: INE. DIRCE

Hauteskunde sindikalak edukitzeko eskubidea duten enpresen arteko bilakaera, delegatuak edo enpresa batzordea aukeratzen duten kontuan hartuta, oso antzekoa izan da, grafikoan ikus daitekeen bezala. Dena dela, kontuan hartu behar da multzo honetan hamar enpresatik bederatzia 6 eta 49 soldatapekoen arteko enpresak direla 2015ean (%89,6).

23


Horien bilakaera goranzkoa izan zen 1999 eta 2008 artean ondoren jaitsiera izateko 2014ra arte. Jaitsiera hori ia 1999ko balioetara ekarri ditu 6 eta 49 soldatapeko artean dituzten enpresak eta 50 soldatapekotik gorako enpresak oraindik pixka bat gorago badaude ere, nahiko hurbil daude.

6 soldatapekotik gorako enpresen kopuruaren 1999-2015 bilakaera, Hego Euskal Herria



Iturria: INE. DIRCE

Dena dela, eta hurrengo grafiko sortan ikus daitekeen modura, enpresa batzordea erabakitzen diren ("eratzten duten enpresen bilakaera arras ezberdinak izan dira euren artean. Enpresa tamainak gora egin ahala, enpresa kopuruak behera egiten du eta horrek gorabehera gehiago izateko aukera ematen du, 5.000 soldatapekotik gora dituzten enpresekin ikus daitekeen bezala. Hala ere, 1.000 eta 5.000 soldatapeko enpresen kasuan joera bat ikusten da eta orain arte aipatutako joeren ezberdina da. Hau da, ia beste enpresa mota guztietan joerek bi ziklo izan badituzte (2008ra arte hazkundera, hortik aurrera jaitsiera), 1.000 eta 5.000 soldatapeko enpresen kasuan, 2006 eta 2008ko datuak alboratuz gero, goranzko joera izan da lehen fasean eta mantentzekoa ondoren.




Iturria: INE. DIRCE

24


Beraz, guztira eta 1999, 2008 eta 2015 urteak erreferentzia hartuta, lehen fasean enpresen hazkundea %26,9koa izan zen. Bereziki 1.000 - 4.999 soldatapeko arteko enpresena (bikoiztu baino gehiago egin ziren) eta 6 eta 9 soldatapeko arteko enpresen kasuan (%41,2ko hazkundea). Hazkunde hori, txikitze bihurtu zen bigarren zikloan (%11,8ko jaitsiera). Kasu honetan jaitsiera nabarmenagoa izan da 10 eta 100 soldatapeko arteko enpresen artean (%27,3 eta %26,1eko galera 10 - 49 eta 50 - 99 soldatapeko arteko enpresetan, hurrenez hurren), ondorioz haien balantze orokorra negatiboa izan da, 200 eta 499 soldatapeko arteko enpresen kasuan bezala. Orotara, epealdi osoan hobeto garatu diren enpresa tamainak ertain-handiak izan dira (bereziki 1.000-4.999 arteko enpresak, baina baita 100 - 199 eta 500 - 999 artekoak ere).

	Guztira	6 baino gutxiago	6 - 9	10 - 49	50 - 99	100 - 199	200 - 499	500 - 999	1.000 - 4.999	5000 +
1999 - 2008	26,9	24,6	41,2	31,3	30,6	37,9	22,8	37,7	103,7	-25,0
2008 - 2015	-11,8	-8,1	-21,8	-27,3	-26,1	-12,9	-20,0	-15,5	-12,7	33,3
Guztira 1999 - 2015	11,9	14,5	10,4	-4,6	-3,5	20,1	-1,8	16,4	77,8	0,0


1999 - 2008 bilakaera



2008 - 2015 bilakaera



1999 - 2015 bilakaera



Iturria: INE. DIRCE. Aztikerrek landua


3.2.2 ENPRESEN BILAKAERA SEKTOREAREN ARABERA.

Jarraian enpresen egungo egoera eta bilakaera aztertuko dugu lan egiten duten eremuaren arabera.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Industria	18.597	18.657	18.409	18.013	17.577	16.904	16.258	15.843
Eraikuntza	39.801	37.351	36.249	34.638	32.019	30.211	28.314	27.285
Komertzioa	50.318	49.466	48.617	47.345	45.389	44.651	43.922	44.104
Beste zerbitzuak	110.433	109.959	108.853	107.040	105.324	102.803	102.332	104.472
Hego Euskal Herria	219.149	215.433	212.128	207.036	200.309	194.569	190.826	191.704

2015ean, 191.704 enpresak lau sektore edo eremuetan banatuta, bakoitzaren dimentsioak nabarmen ezberdinak dira. Lauetatik "Beste zerbitzuen" multzoan sartutakoak dira nagusi, %54,5, hain zuzen. Ondoren, Komertzioak datoz, 44.104 enpresarekin %23,0 osatuz. Azkenik, eraikuntza enpresak %14,2arekin eta industria %8,3arekin daude.

Enpresen banaketa sektoreka, 2015. Hego Euskal Herria




Iturria: INE. DIRCE. Aztikerrek landua

Sektore ezberdinetan nola banatzen diren aztertzeaz gain, bakoitzaren tamaina zein den kontuan hartuta, argi ikusten da industria arloa dela enpresak modu orekatuenean banatzen diren eremua. Beste sektoreetan bezala, soldatapekorik gabeko enpresak nagusi badira ere, eraikuntzan dagoenaren erdia baino gutxiago, edo komertzioen bi herenera ez dira iristen horiek. Horrela, Industrian %30,5 dira eta nahiko gertutik jarraitzen diote 1 edo 2 soldatapeko dituzten enpresek (%25,9). Hirugarren lekuan, 3 eta 5 soldatapeko arteko enpresek ere portzentaje esanguratsua dute, %12,9, hain zuzen.

Kontrako aldean legoke eraikuntza sektorea. Bertan inon baino pisu gehiago dute soldatapekorik gabeko enpresek (%63,5). Eta horiek eta soldatapeko bat edo bi dituztenen artean %90era hurbiltzen dira (%87,6).

Komertzioak eta bestelako zerbitzuetan aritzen diren enpresak aipatu bi eremuen artean leudeke.

Enpresen banaketa sektoreka eta enpresa tamainaren arabera, 2015. Hego Euskal Herria




Azken zazpi urteetako bilakaera aztertuta, "Beste zerbitzuak" eremuan aritzen diren enpresak nagusi izateaz gain, horiek goranzko joera dutela ikus dezakegu. 2008an %50,4 osatzen zuten eta egun 4,1 puntu gehiago dira.

Komertzioak, berriz, orain zazpi urte bezala, portzentaje berdinean mantentzen dira (%23,0) eta epealdi honetan ez dute gora behera esanguratsurik eduki. Industrian ere antzera gertatu da. 2008an %8,5 osatzen zuten eta egun %8,3, bidean gorabehera askorik gabe.

Beraz, "Beste zerbitzuetan" gorakada izan denez eta beste eremuetan mantendu direnez, eraikuntzan jazo da jaitsiera. 2008an %18,2 osatzen zuten eta egun %14,2, beraz, epealdi honetan 4 puntuko jaitsiera.

Enpresen bilakaera sektoreka, 2008 - 2015. Hego Euskal Herria




3.3 LANGILEAK ENPRESA TAMAINAREN ARABERA.

Enpresen tamainaren araberako langileen banaketa beste proportzio batzuek marrazten dute. Horrela, 2012ko azken hiru hilekoan, langile gehien biltzen zituzten enpresak, gutxiagatik bazen ere, 250 langiletik gorakoak ziren. Horiek ordainpeko guztien %26,9 biltzen zituzten. Distantzia txikira 11 eta 50 langile arteko enpresak zeuden %25,4rekin eta 51 eta 250 langile artekoak, %24,8. Azkenik, enpresa txikiak zeuden. Horiek enplegatuen %22,9 biltzen zuten.

LANGILEEN BANAKETA ENPRESA TAMAINAREN ARABERA. 2012. HEGO Euskal Herria		
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
1-10 langile	184,7	22,9
11-50 langile	205,2	25,4
51-250 langile	200,5	24,8
250 baino gehiago	217,6	26,9
Guztira	808	100,0

Langileen banaketa enpresa tamainaren arabera, 2012. Hego Euskal Herria (Ehunekoak)



27

Iturria: Lan eta gizarte segurantzako ministerioa. Encuesta de Coyuntura Laboral. 2012 4. hiru hilekoa

2000. urtetik emandako bilakaeran aldaketa esanguratsua ikusten dira, bereziki 2006tik 2012ra. Lehen sei urtekoan (hazkunde ekonomikoaren testuinguruan) enpresa txikiak proportzionalki jende gutxiago enplegatu zuten eta 51 eta 250 enplegatu artekoak hazi egin ziren.


Azken sei urtekoan, aldiz, aldaketak beste bi enpresa tamainaren artean eman dira nagusiki. 250 langiletik gorako enpresak izan dira enplegatuen artean pisua irabazi dutenak. Gainera pisu hazkunde hori, kopuruan eta ehunekoetan antzeman da. Hau da, ehunekoetan 2,8 puntu gora egin zuten enpresa horiek eta kopuruan, 3.100 langile gehiago (beste enpresa tamaina guztietan langileak galdu dituztenean).

Proportzionalki, enpresa txikiak ere pisua irabazi dute (puntu bat), nahiz eta langile kopura galdu (10.700).

11 eta 50 langile arteko enpresek galdu dute pisu gehien 2006tik, 3,3 puntu gutxiago, hain zuzen, 50.900 langile gutxiago, beraz. Eta 51 eta 250 langile artekoak 25.000 langile galdu badituzte ere, praktikan proportzionalki mantendu egin dira (hamarreko bat gutxiago 2012an).

LANGILEEN BANAKETA ENPRESA TAMAINAREN ARABERA, 2000 - 2012 . HEGO Euskal Herria						
	2000		2006		2012	
1 - 10 langile	172,6	23,1	195,4	21,9	184,7	22,9
11 - 50 langile	213,2	28,5	256,1	28,7	205,2	25,4
51 - 250 langile	180,9	24,2	225,5	25,3	200,5	24,8
250 baino gehiago	182,1	24,3	214,5	24,1	217,6	26,9
Guztira	748,6	100,0	891,6	100,0	808	100,0

Langileen banaketa enpresa tamainaren arabera, 2000 - 2012. Hego Euskal Herria. (Ehunekoak)



Iturria: Lan eta gizarte segurantzako ministerioa. Encuesta de Coyuntura Laboral. 2012 4. hiru hilekoa

4. LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK.

Urtez urte sinatzen joan diren lan hitzarmenen kopuruak eta horiek babesten zituzten soldatapekoen kopuruak nahiko bilakaera antzekoa eraman dute, 2013ra arte. Epealdi honetako lehen urteetan, 2002tik 2005era, gero eta lan hitzarmen gehiago sinatu ziren, baina babestutako langileen kopurua jaisten zihoan. 2005 eta 2008 artean, berriz, sinatutako lan hitzarmen kopuruak igotzen jarraitu zuen, eta epealdi horretan baita babestutako langileena ere. Horrela, 2008an Hego Euskal Herrian sinatu ziren 623 lan hitzarmenek 403.278 langile babestu zituzten.

Hortik aurrera, ordea, aldaketa nabarmena gertatzen da. 2009an jaitsiera nabarmena dago eta hori 2010ean sakontzen da. Ondorioa, 2010ean 451 lan hitzarmen sinatu ziren eta 255.019 langilek lortu zuten babes legala.


Hortik aurrera, urtez urte babestutako langile kopuruak ez du gorakada nabarmenik izan. Eta hori horrela da, nahiz eta 2013an sinatutako lan hitzarmenen kopuruak gorakada esanguratsua duen. Sinatutako lan hitzarmen horiek, baina, ez dute lortzen babestutako langile kopurua proportzio berean igotzerik. Are gehiago, 2012an lan hitzarmen gutxiago sinatuta (154 gutxiago), langile gehiago (634) babestea lortzen da.

Sinatutako lan hitzarmenak eta babestutako langile kopurua, 2002 - 2014*. Hego Euskal Herria							
Hego Euskal Herria	Nafarroa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Autonomikoa (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa)	Guztira (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa)	
Sinatutako lan hitzarmen kopurua							
2014(*)	380	87	72	140	74	7	293
2013	635	150	102	219	150	14	485
2012	481	125	97	169	80	10	356
2011	431	99	97	155	66	14	332
2010	451	113	90	169	68	11	338
2009	533	136	102	196	83	16	397
2008	623	155	124	232	90	22	468
2007	647	156	133	247	89	22	491
2006	623	154	124	237	92	16	469
2005	583	143	121	227	76	16	440
2004	585	139	127	226	78	15	446
2003	558	134	124	205	80	15	424
2002	565	133	126	202	89	15	432
Babestutako langile kopurua							
2014(*)	180.959	38.710	20.414	89.861	25.242	6.732	142.249
2013	274.988	72.793	33.409	125.264	34.837	8.685	202.195
2012	275.622	97.165	32.679	117.924	24.100	3.754	178.457
2011	250.895	102.460	29.874	93.201	18.193	7.167	148.435
2010	255.019	110.343	31.409	85.814	24.320	3.133	144.676
2009	359.721	119.662	32.825	79.600	104.911	22.723	240.059
2008	403.278	95.208	35.733	132.935	114.311	25.091	308.070
2007	396.243	95.147	35.612	126.815	113.365	25.304	301.096
2006	389.903	102.285	33.329	123.393	116.020	14.876	287.618
2005	349.440	91.716	32.693	106.313	98.273	20.445	257.724
2004	358.788	103.198	32.848	115.021	85.356	22.365	255.590
2003	376.097	99.330	33.031	176.507	43.585	23.644	276.767
2002	424.694	102.736	35.649	166.504	98.621	21.184	321.958

Iturria: Lan eta gizarte segurtantza ministerioa.

* 2014ko datuak ez daude osorik

Sinatutako lan hitzarmenak eta babestutako langile kopurua, 2002-2014*. Hego Euskal Herria




Iturria: Lan eta gizarte segurantzako ministerioa.

* 2014ko datuak ez daude osorik

2013an sinatutako 635 lan hitzarmenetatik 555 enpresa mailakoak izan ziren, %87,4, hain zuzen. Hitzarmen horiek urte horretan babestutako langileen %28,9 babestu zituzten. Bestelako hitzarmenek babesten dituzten langile portzentajetik oso urrun oraindik, baina kopuru hori aztertutako epealdian (2002-2013) etengabe gorantz doan kopurua da. 2002an 565 hitzarmenen %78,4 izan ziren enpresa mailakoak eta horiek urte horretan babestutako langileen %16,1 babestu zituzten.

	Lan hitzarmen kopurua			Babestutako langile kopurua		
	Guztira	Enpresakoak	Enpresa gaineakoak	Guztira	Enpresakoak	Enpresa gaineakoak
2014(*)	380	318	62	180.959	49.779	131.180
2013	635	555	80	274.988	79.492	195.496
2012	481	413	68	275.622	67.225	208.397
2011	431	358	73	250.895	63.004	187.891
2010	451	378	73	255.019	64.847	190.172
2009	533	437	96	359.721	71.827	287.894
2008	623	504	119	403.278	77.725	325.553
2007	647	516	131	396.243	74.655	321.588
2006	623	488	135	389.903	70.956	318.947
2005	583	468	115	349.440	70.073	279.367
2004	585	472	113	358.788	68.151	290.637
2003	558	440	118	376.097	67.387	308.710
2002	565	443	122	424.694	68.556	356.138




Iturria: Lan eta gizarte segurantzako ministerioa.

LAN HITZARMENAK HERRIALDEKA.

Herrialdeen arabera, sinatutako lan hitzarmen kopuruen bilakaera ez dago alde handirik. Bai, ordea, kopuru zehatzetan, eta denak ez dira pisu demografikoengatik soilik azaltzen. Horrela, Araban sinatutako lan hitzarmen kopurua, beste herrialdeekin alderatuta, bere pisu demografikoaren oso gainetik dago. Urte batzuetan Nafarroaren parean egon izan da eta 2013an izan ezik, Gipuzkoaren gainetik beti. Zalantzarik gabe, herrialde bakoitzean sinatutako lan hitzarmen tipologiaren ondorioa da. Historikoki Araban enpresako lan hitzarmenek pisu gehiago izan dute beste herrialdeetan baino, eta hori hemen nabaritzen da.

Sinatutako lan hitzarmenen bilakaera, herrialdeko/erkidegokoa, herrialdearen arabera.
2002 - 2014. Hego Euskal Herria



Iturria: Lan eta gizarte segurantza ministerioa.


* 2014ko datuak ez daude osorik

Sinatutako lan hitzarmen horiek zenbat langile babestu dituzten kontuan hartzen badugu, ordea, badira aldeak. Guztira Hego Euskal Herrian babestutako langile kopuruan etengabeko jaitsiera egon da 2002tik hona. Jaitsiera horretan, zalantzarik gabe, okupatuaren eta soldatapekoen artean egondako jaitsierak eragiten du. Baina EPA eta segurantza sozialen arteko datuen erkaketan ikus daitekeen modura, horrek ez du azaltzen horrelako jaitsierarik. 2002an soldatapekoen %45,9 babestea lortu baldin bazen, 2013an heren batera ez zen iritsi (%29,4) eta 2008-10 artean jaitsiera nabarmena izan zen (%24,4raino iritsi zen urtean babestutako langileen proportzioa).

	SOLDATAPEKOAK	LAN HITZARMENAK BABESTUTAKOAK	%
2015	975.000	-	
2014(*)	947.400	180.959	19,1
2013	934.500	274.988	29,4
2012	957.100	275.622	28,8
2011	1.017.300	250.895	24,7
2010	1.046.300	255.019	24,4
2009	1.018.400	359.721	35,3
2008	1.030.700	403.278	39,1
2007	1.050.900	396.243	37,7
2006	1.032.200	389.903	37,8
2005	1.031.100	349.440	33,9
2004	1.011.500	358.788	35,5
2003	968.700	376.097	38,8
2002	925.100	424.694	45,9

Iturria: INE. Urte bakoitzeko azken lau hilabeteko EPA. Lan eta gizarte segurantza ministerioa.

* 2014ko lan hitzarmenen inguruko datuak ez daude osorik



Iturria: INE. Urte bakoitzeko azken lau hilabeteetako EPA. Lan eta gizarte segurantza ministerioa.

* 2014ko lan hitzarmenen inguruko datuak ez daude osorik

Sinatutako lan hitzarmen kopuruetan alde handirik ikusten ez bazen herrialde batetik bestera, Araba kenduta, lan hitzarmen horiek eragiten dioten langile kopuruari begiratuta, ordea, alde handiak daude.


Horrela, Bizkaian 2002-2003an sinatutako lan hitzarmenek serie guztiko langile kopuru altuenari eman zien babes, 166.504 eta 176.507 langileri, hurrenez hurren. Hori ez da berriro errepikatu. Horren ondotik 2004 eta 2005ean jaitsiera nabarmena izan zen 100.000ra jaitsi arte ia, eta 2008ra arte gero eta jende gehiago babestea lortzen bazen ere, krisi finantzarioaren ondotik, 2009an 80.000 langile babestera ez zen iritsi. Hortik aurrera badirudi hitzarmen gehiago sinatzeaz gain, langile gehiago ere babestera iritsi dela, 2013an 125.000 langile babestera iritsi arte.

Gipuzkoako herrialdeko hitzarmenek babestutako langile kopuruaren grafikoak beste logika bat marraztu du. 2002 eta 2005 arteko urteak, Bizkaiaren kontrako grafikoak da. Bizkaian langile babestu kopurua igotzen denean, Gipuzkoan jaitsi egiten da eta alderantziz. 2005etik 2008/09 arte antzeko bilakaera jarraitzen dute eta Gipuzkoan badirudi lan hitzarmenek babestutako langile kopuruaren jaitsiera urte bete beranduago iristen dela. 2010. urtean azaltzen da jaitsiera handia, 100.000 langile baino gehiago babestetik, 25.000 langile besterik ez babestera. Horren ondotik gainera, kopuruak ez dira erreperatu eta gehienez ere 2013ko 24.837ra iritsi da.

Arabaren beste proportzio batean bada ere, Gipuzkoan bezala 2010ean nabaritu zen jaitsiera handia. 2009ko 22.723 langile babestetik 2010eko 3.133 babestera pasa zen. Hortik aurrera urtero babestutako langile kopurua ez da iritsi lan erreformaren aurretik zeuden kopuruetara. 2013an 8.625ean geratu zen.

Nafarroan bilakaera konstanteagoa izan da 2009ra arte. Gorabehera handirik gabe, hain zuzen, 2009an iguera esanguratsua egon zen, ia 120.000 langile babestera, baina hurrengo urtean etengabeko jaitsiera bati ekin zitzaion. Horrela, 2013an 38.710 izan ziren babestutako langileak.

Sinatutako lan hitzarmenek eragiten dien langileen bilakaera, motaren eta herrialdearen arabera.
2002 - 2014. Hego Euskal Herria



Iturria: Lan eta gizarte segurantzaren ministerioa.

5. HAUTESKUNDE ETA ORDEZKARITZA SINDIKALA.

5.1 HAUTESKUNDE SINDIKALEN HEDAPENA.

5.1.1 HAUTESKUNDE SINDIKALEN HEDADURA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2009 - 2010.

Emaitza sindikalak aztertu aurretik, lehenik hauek non ematen diren, eta ondorioz, non ez, aztertu nahi dugu. Hori eginez, hauteskunde sindikalen emaitzek langile guztiekiko zer ordezkapen maila izan dezaketen arakatu nahi da. Hau da, hauteskunde sindikalak egiten diren lekuak eta egiten ez diren lekuak berdinak balira, emaitza sindikala guztiaren ordezkari gisa hartu liteke. Hauteskunde sindikalak egiten ez diren lekuak egiten direnen oso ezberdinak balira, aldiz, pentsa daiteke hauteskunde sindikalen hedadura zabalduz gero, horien emaitzak ere ezberdinak izan litzatekeela eta langileria osoarekiko ordezkagarritasuna fidelagoa izango litzatekeela.

Hori aztertzeko bi modutan egingo dugu. Batetik, ECVT inkesta baliatuta, 2009-10 urte artean Hego Euskal Herriko errealitatea zein den aztertuko dugu. Ondoren, perspektiba osatzeko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara mugatuko gara eta 2006ra arte joango gara.

Lehenik eta behin, hauteskundeetan parte hartzeko aukerarik ere ez dutenak daude. Batzuk legeen ondorioz (6 langiletik beherako enpresetan lan egiten dutenak eta autonomo faltsuak), besteak ezkutuko ekonomian lan egiten dutelako⁶.


Horiek bazter utzita eta ECVTko datuetara joz, inkestan galdetzen zena hurrengoa zen: lan egiten den lekuan negoziazio kolektiboa bideratu edo errazten duen ordezkari sindikal edo egiturarik zegoen. Inkestaren arabera, soldatapeko guztien %54,9k bazuen bere lantokian nolabaiteko ordezkapen sindikala edo negoziaziorako egiturarik. Beste %38,9k ez zuen eta %6,2k ez zekien zegoen edo ez.

ORDEZKARITZA SINDIKALAREN BANAKETA ENPRESAN, 2009 - 2010. Hego Euskal Herria

	Bai	Ez	Ez daki
GUZTIRA	54,9	38,9	6,2
LANTOKIAN LANGILE KOPURUA			
Pertsona 1	23,6	65,5	10,9
2 - 9 pertsona	31,7	60,2	8,1
10 - 49 pertsona	60,9	32,6	6,5
50 - 249 pertsona	78,1	18,6	3,3
250 pertsona edo gehiago	82,9	14,5	2,6
AKTIBITATE SEKTOREA			
Lehen sektorea	37,5	37,5	25,0
Bigarren sektorea	65,8	30,0	4,2
Hirugarren sektorea	51,5	42,0	6,6
PUBLIKO / PRIVATU			
Ordainpekoa, sektore publikoa	70,5	25,1	4,3
Ordainpekoa, sektore pribatua	51,0	42,5	6,6

Iturria: ECVT 2009-10. Aztikerrekin egina


Ordezkaritza sindikalaren banaketa enpresan, 2009 - 2010. Hego Euskal Herria



Iturria: ECVT 2009 - 2010. Aztikerrek egina

Enpresako lan postu kopuruaren arabera, aldeak nabarmenak dira. Zenbat eta langile gehiago enpresan, orduan eta ordezkaritza hedadura zabalagoa. Horrela, 250 langiletik gorako enpresetan ordezkaritzak zeuden lekuak langile guztien %82,9ra iristen ziren. 50-249 langile arteko enpresetan proportzio hori 4,8 puntu jaitsi eta %78,1era iristen zen. Ondorengo enpresa tamainan saltoa handiagoa zen. 17,2 puntu behera egiten dute ordezkaritza duten enpresek 10 eta 49 langile artekoetan, %60,9ra jaitsiz. 2 eta 9 langile arteko enpresetan, jauzia are handiagoa zen. 19,2 puntuko aldea beherantz (%31,7). Azkenik, langile bakarreko enpresetan, %23,6k esaten zuen bazegoela nolabaiteko ordezkaritzarik bere enpresan.

Ordezkaritza sindikalaren hedadura enpresa tamainaren arabera, 2009-10. Hego Euskal Herria.




Iturria: ECVT 2009 - 2010. Aztikerrek egina

Langile horiek lan egiten zuten sektorearen arabera, bigarren sektorean lortzen zen hedadurarik zabalena. Horrela, bigarren sektoreko langileen %65,8k bazuen bere lantokian ordezkapen motaren bat.

Bestalde, hirugarren sektoreko langileen artean lehen sektoreko langileen artean baino hedadura gehiago zegoen. Hirugarren sektorean hedadura %51,5era iristen zen, lehen sektorean aldiz, hamarretik lauk baino gutxiagok (%37,5) zuten ordezkaririk edo egiturarik.

Ordezkaritza sindikalaren hedadura sektorearen arabera, 2009 - 2010. Hego Euskal Herria.



Eremuaren arabera ere aldeak handiak dira. Ia 20 puntuko aldea dago eremu edo sektore publiko eta pribatuaren artean. Eremu publikoan ordezkaritzaren hedadura %70,5ekoa da eta pribatuan %51,0.

Ordezkaritza sindikalaren hedadura eremuaren arabera, 2009 - 2010. Hego Euskal Herria.



Iturria: ECVT 2009-2010. Aztikerrek eginak

5.1.2 HAUTESKUNDE SINDIKALEN HEDADURA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAN, 2006.

Lurralde eremua Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara murriztuz eta atzera eginez, LHKren arabera, 2006an guztira langileen %62,1k zuten nolabaiteko ordezkaritza haien enpresan. Hau da, langile guztien %37,9k ez zuten beraien eskubideak borrokatzeko edo eskaerak bideratzeko bitarteko ofizialik. Langile kopuruan arreta jarri ordez, enpresa kopuruan jartzen badugu, portzentajea desorekatuagoa zen. Enpresen %11,9n zegoen langileen ordezkaritzaren bat, hau da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hauteskunde sindikalak enpresa eta entitateen %11,9n egin zirela, alegia, enpresa eta entitate horiek euren baitan soldatapeko lan osoaren %62 biltzen zuten. Beste modura esanda, enpresen %88,1etan eta langileen %37,9k ez du ordezkarizarik.

HAUTESKUNDE SINDIKALAK EGITEN DIRENEN ENPRESA EHUNDURAREN ALDEAN, 2006. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa.		
	Enpresak	Langileak
0 - 5	47.535	95.462
bai	2	5
ez	47.533	95.457
%	0,0	0,0
Ordezkariek (6 - 49 langile)	17.512	265.467
bai	6.286	124.263
ez	11.226	141.204
%	35,9	46,8
Enpresa batzordeak (50 langiletik gora)	2.143	374.838
bai	1.723	332.302
ez	420	42.536
%	80,4	88,7
Guztira	67.190	735.767
bai	8.011	456.570
ez	59.179	279.197
%	11,9	62,1

Iturria: LHK. EAeko hauteskunde sindikalak Prozesuak eta emaitzak 2006



(*) Hauteskunde sindikalak egiten dituzten enpresak bai batez adierazi ditugu, egiten ez dituztenei ez jarri diegu eta % zeinuk, tarte bakoitzeko enpresa guztiekiko hauteskundeak egiten dituztenek duten portzentajea adierazten du. Enpresa eta lantokia terminoak baliokidetzat erabili dira

Xeheago aztertuta, lehenik 6 langiletik beherako enpresak agertzen zaizkigu, hauteskunde sindikalen prozesuei buruzko araudia dela eta, sei langile baino gutxiago dauzkaten enpresetan ezin daiteke hauteskunderik egin eta horregatik, 95.462 langilek, hau da, soldatapeko langile guztien %13k lan egiten duten 47.500 enpresa inguru hauteskunde prozesu hauetatik kanpo geratzen dira.

Ordezkariek hautatzen diren enpresetan (6-49 lanpostu artekoetan), %35,9n egin ziren hauteskundeak. Guztira 6.286 enpresa ziren horiek eta 124.263 langileri eragin zien.

Batzordeak hautatzeko enpresen artean (50 lanpostu edo gehiago) %80,4n egin ziren hauteskundeak eta 332.302 langileri eragin zien, enpresa tamaina horretan lan egiten zuten langileen %88,7ri, alegia.

Hauteskunde sindikalak egiten dituzten kontuan harturik. 2006 Araba, Bizkaia, Gipuzkoa



37

Iturria: LHK. EAEko hauteskunde sindikalak Prozesuak eta emaitzak 2006

Askoz hauteskunde gehiago egin ziren sektore publikoan (lantokien %61 eta lanaren %97,5) sektore pribatuan baino (enpresen %11 eta lanaren %54,8). Hala ere, hemen ere tamainak eragiten du. Izan ere, 6-49 langile arteko enpresa publikoetan 50 langiletik gorako enpresa pribatuen azpitik zeuden hauteskundeak egin ziren enpresa zein langileen portzentajea.

	PUBLIKOA		PRIBATUA	
	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak
0 - 5				
Bai	0	0	2	5
Ez	289	716	47.244	94.741
%	0	0	0	0
Ordezkariek (6 -49 langile)				
Bai	428	8.341	5.858	115.922
Ez	134	1.813	11.092	139.391
%	76,16	82,14	34,56	45,4
Enpresa batzordeak (50 langiletik gora)				
Bai	252	113.607	1.471	218.695
Ez	8	613	412	41.923
%	96,92	99,46	78,12	83,91
GUZTIRA				
Bai	680	121.948	7.331	334.622
Ez	431	3.142	58.748	276.055
%	61,21	97,49	11,09	54,79

Iturria: LHK. EAEko hauteskunde sindikalak Prozesuak eta emaitzak 2006

Jarraian informazio hau berau aztertuko dugu, sektore pribatuari dagokionez, sektore ekonomikoen arabera xehatuta.


Hurrengo koadroan ikus daitekeenez, hauteskunde sindikalak egiten dituzten enpresen portzentajerik handiena, tradizio sindikalik handiena duen industriaren sektorean gertatzen da (%56,38). Horregatik, enpresa pribatuetan hautatutako ordezkarien ia %50 sektore honetakoak dira. Zerbitzuen sektorean, berriz, enpresek duten parte hartze maila %28,9raino jaisten da. Eraikuntzan, halaber, hauteskundeak egiten dituzten enpresen portzentajea txiki samarra da (%32,52), baita enpresa hauek duten lanarena ere (%46,95).

SEKTORE PRIVATUA. HAUTESKUNDE SINDIKALAK EGITEN DIREN ENPRESAK, HAUTESKUNDEAK EGIN LITEZKEEN ENPRESA ETA ENTITATEEN ALDEAN. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa. 2006										
	NEKAZARITZA/ARRANTZA		INDUSTRIA		ERAIKUNTZA		ZERBITZUAK		GUZTIRA	
	Enpresa	Langileak	Enpresa	Langileak	Enpresa	Langileak	Enpresa	Langileak	Enpresa	Langileak
Delegatuak										
Bai	110	1.787	2.918	58.900	524	11.576	2.306	43.659	5.858	115.922
Ez	104	1.293	2.718	36.029	1.206	18.155	7.064	83.915	11.092	139.391
%	51,4	58,0	51,8	62,1	30,3	38,9	24,6	34,2	34,6	45,4
Enpresa Batzordeak										
Bai	5	381	718	109.710	79	8.552	669	100.051	1.471	218.695
Ez	5	542	95	10.454	45	4.588	267	26.338	412	41.923
%	50,0	41,3	88,3	91,3	63,7	65,1	71,5	79,2	78,1	83,9
GUZTIRA										
Bai	115	2.168	3.636	168.610	603	20.128	2.975	143.710	7.329	334.617
Ez	109	1.835	2.813	46.483	1.251	22.743	7.331	110.253	11.504	181.314
%	51,3	54,2	56,4	78,4	32,5	47,0	28,9	56,6	88,9	64,9

Iturria: LHK. EAEko hauteskunde sindikalak Prozesuak eta emaitzak 2006

Aurretik esandakoarengatik, eraikuntzan ateratzen diren ordezkarien kopurua, gainerako sektoreetako baino txikiagoa da proportzionalki (%42,5). Ondoren zerbitzu sektorekoak datoz, ordezkari posible guztien %46,5 hautatu zirelarik. Nekazaritza eta arrantzan, lau puntutik gorako distantziara daude, %51,2n. Eta esan bezala, tradizioagatik eta egituragatik, ordezkari tasa altuena industrian lortzen da, ordezkari posible guztien %72 hautatu zirelarik 2006an.

Sektore pribatuan hautatutako ordezkariak Araba, Bizkaian eta Gipuzkoan eremu horretan izan litezkeen aldean, sektore ekonomikoen arabera. 2006



Iturria: LHK. EAEko hauteskunde sindikalak Prozesuak eta emaitzak 2006

5.2. HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK.


5.2.1 HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK ARABAN, BIZKAIA ETA GIPUZKOAN, DENBORA ALDI JAKINEKO SISTEMAN 1978 - 1990.

1978tik 1990era hauteskunde sindikalen prozesua batez ere denbora aldi jakinaren barruan burutzen zen (zenbaketa itxia) eta emaitzak ofizialki iragartzen ziren ondoren. Hauteskunde sindikalak egin eta haien emaitzak homologatzeko prozeduretan zenbait aldaketa izan ziren 1978az geroztik. Izan ere, 1994. urtera arte indarrean izan zen sistemak, hauteskundeak denbora tarte jakinean egiten ziren eta hauteskunde haietatik ateratzen zen sindikatuen ordezkariak orokorra, denbora tarte jakin hura igarota, ofizialki emaitzen berri ematen baitzen. Sistema, beraz, zenbaketa itxiko sistema zela esaten zen. Langileen Estatutua 1980an promulgatu zenean, agintaldiak bi urteko iraupena zuen eta 1984an lau urtetaraino zabaldu zen. Hau guztia dela eta, emaitza haiek 1978, 1980, 1982, 1986 eta 1990ean aldarrikatu ziren.

1990eko hauteskundeetara arte, berriz, pertsonalaren ordezkariari eta hautatzeko prozedurei buruzko araudiak, lan araudipeko kontratua zuten langileak soilik hartzen zituen aintzat, Herri Administrazioak bazter uzten zituela. Hala eta guztiz ere, Toki Administrazioan eta EAEko osasun arloko zentro publikoetan hauteskundeak sustatu ziren, Andoni Kaiero Uriak 1985ean argitaratu zuen Euskadiko hauteskunde sindikalei buruzko azterlanean⁷ adierazten denez.

Ekainaren 12ko 9/1987 Legeak administrazio edo estatutuzko lotura duen pertsonalaren ordezkariak aukeratzeko hauteskunde prozesuak arautu zituen eta hortik aurrera haien ordezkariak organoak (pertsonal ordezkariak eta batzordeak) modu orokorrean 1990ean hartu ziren kontuan lehen aldiz emaitzak zenbatzerakoan.

Horrela, garai horretan kokatuz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ordezkariak sindikalen mapan garai honetantxe gertatzen ari ziren aldaketarik ugariak eta hurrengo urteetan erkidegoko ordezkariak sindikalen mapa eratuko zuten joerak garai honetan bertan ikusten hasten dira.



Iturria: LHK. EAEko hauteskunde sindikalak Prozesuak eta emaitzak 2006

Lehen hauteskunde sindikalak 1978an egin ziren eta orduko emaitzetan gaur egun ordezkariarik handiena duten lau sindikatuek ez zuten lortu ordezkariaren %50 (esan behar da orduan emaitza hauen fidagarritasunaz zalantza izan zirela). 1980tik aurrera, ordea, hauteskundearen jarraipen eta kontrolerako batzorde batek jardun du hiru herrialdeetan. Batzorde hau hasieran ELA, CCOO, UGT eta Administrazioaren ordezkariak osatzen zuten, beranduago LAB ere sartu zelarik.

⁷ Andoni Kaiero Uriak, Las elecciones sindicales en Euskadi, representación de los trabajadores en la empresa e implantación de los sindicatos. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu zentrala 1985.

⁸ Andoni Kaiero Uriak, Las elecciones sindicales en Euskadi, representación de los trabajadores en la empresa e implantación de los sindicatos, Vitoria-Gasteiz, Gabinete de prospección sociológica del Gobierno Vasco, 1985, 14. or.


1978-1990 aldian nabarmendu behar diren datu nagusiak, batetik, ELA eta LAB sindikatuen ordezkari mailaren igoera handia, eta bestetik «Ez sindikatuak» eta «Beste sindikatu batzuek» izan zuten jaitsiera ditugu.

ELA 1980tik aurrera Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ordezkari mailarik handiena duen sindikatuak izan da, 1990ean ia %38ra heldu zelarik. Honen ondoren aldi honetan UGT dator: gorabehera batzuekin, baina goranzko joera erakusten du eta %20ren inguruko ordezkari maila. Ordezkari mailaren arabera hirugarren lekua CCOO betetzen du. Haren emaitzak aldi honetan zerbait hobertantz egiten dute eta %17ko ordezkari mailara iritsi zen. Eta laugarrenik LAB aurki daiteke. LABen igoera nabarmena izan zen, 1978an %2,79 zuela, hiru herrialdeetako ordezkari maila izatera (hau da, eremu horretan %10 baino gehiago duen sindikatuak) heldu baitzen, 1986an %10,75 eta 1990ean %13,16 lortuz.

Beste alde batetik, «Beste sindikatu batzuk» direlako ordezkari mailako jaitsiera nabarmena izan zuten, guztiak batera 1978an %36,55eko ordezkari edukita, 1980an %13,61era igaro baitziren, eta 1990ean ordezkariaren %8,65 baitzuten. Hala ere, garai honetan sektoreko zenbait sindikatu agertu ziren, irakaskuntzan, osasunean edo zenbait eremutan presentzia handia izan zutenak. Hau guztia gora behera, «Ez sindikatuak» oso nabarmenki jaitsi ziren 1978an ordezkariaren %15,83 zutela, 1990ean %3,28ra heldu baitziren.

Emaitza orokor hauek aztertzean, interesgarri iritzi zaio 1990eko datuak lurraldeka emateari, ikusitako joerak finkatzeaz gainera, garai honetako berariazko ezaugarriak ere erakusten baitituzte.

Hala, hiru lurraldeetan gehiengoa lortu zuen sindikatuak ELA izan bazen ere, portzentajeak desberdinak izan ziren: Araban %27,28, Bizkaian %36,79 eta Gipuzkoan %44,49. UGT ordezkari mailarik handieneko bigarren sindikatuak izan zen, antzeko portzentajeak edukita Araban (%22,56) eta Bizkaian (%22,68). Gipuzkoakoa (%13,45) nabarmen txikiagoa izan zen. Beste alde batetik, CCOO ordezkari mailaren hirugarren lekua lortu zuen, hiru lurraldeetan %17 edo 18ren inguruko antzeko portzentajeak izanik. LAB sindikatu erakundeak antzeko ordezkari maila lortu zituen Araban (%9,91) eta Bizkaian (%10,43) eta askoz handiagoa Gipuzkoan (%18,77), azken lurralde honetan bigarren indar sindikala izan zelarik. Horrez gain, aipatu behar da Araban «Beste sindikatu batzuk» guztiak batera harturik, %19,15era heldu zirela, batez ere, UST lurralde honetan bakarrik zegoelako (%6,15) eta bai ESKk (%3,52), bai CGTk (%2,91) ordezkari maila handiagoak lortu zituztelako. Hau dela eta, azpimarratzekoa da «Beste sindikatu batzuek» Gipuzkoan izan zuten jaitsiera (%3,35), beste lurraldeetan izan zuten mailaren aldean jarriz gero.



Iturria: LHK. EAEko hauteskunde sindikalak Prozesuak eta emaitzak 2006

5.2.2 HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK HEGO EUSKAL HERRIAN, DENBORA ALDI IREKIKO SISTEMA, 1995 - 2016.

Hauteskunde sindikalen sistema berriaren ezaugarri nagusia zenbaketarako eta, beraz, emaitzak aldarrikatzeko tarte itxirik eza da, sindikatuen ordezkaritza mailaren egiaztapena, horretarako eskumena duen bulegoak ematen duelarik, eskatzen zaionean eman ere. Egiaztapen honek, eskatzen den hilaren aurrekora arte finkaturiko emaitzak hartzen ditu kontuan.

Hala ere, pertsonalaren ordezkarien eta enpresa batzorde zein pertsonal batzordeetako kideen agintaldia lau urtekoa izango dela legez ezarrita dagoenez gero, hainbat eta hainbat lantokitan hauteskunde sindikalak urteko azken hilabeteetan egiten dira, lau urteko agintaldia amaitzen denean.

Dena dela, hauteskundeak tarte kontzentratuetan egiten dira oraindik ere, neurri handi batean, horrela egiten dituzten enpresen portzentajeak beherantz egin badu ere. Aurrerago datuetan ikusiko dugun bezala, 2002, 2006, 2010 eta 2014 urteetan jazotzen dira tarte kontzentratu horiek eta nolabait hasiera ematen diete hauteskunde ziklo berriei.

HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAN, 1995 – 2014.


1995etik 2014ra, sistema sindikala, emaitza elektoralei erreparatuta, nahiko egonkor mantendu da. Delegatu kopuruak gora egin du etenik gabe 2008ra arte, eta krisi ekonomikoaren ondorioz, enplegatu kopurua jaistearekin batera delegatu kopurua ere jaisten hasi zen orduan. Azken lau urteetan jaitsiera nabarmena izan du; 20.000 delegatuen bueltan egotetik, 17.000tik behera egotera pasa da.

Hala eta guztiz ere, 1995etik delegatu kopuruan igoera egon da. Delegatu igoera horretan (%6,4 delegatu gehiago 1995etik), ELA izan da onuradun nagusia. Guztira delegatu berrien %43,6 bereganatu du epealdi horretan. Dena dela, delegatu "itxasoan" epealdi osoan izan duen "kuota" ia bera bereganatu du delegatu berrien kopurutik. CCOOek eta LABek lortu dute delegatu berrietatik kopuru handiena, proportzionalki eta datu absolutuetan. CCOOek %60,4 lortu du, 2014an delegatu guztien %19,2 izanik, kopuru esanguratsua. LABen kasuan, oraindik kuota handiagoa eskuratzea lortu du, %65,6 hain zuzen, 2014an %18,3ko balioan kokatuz. Bi igoera horien batuketa, delegatu berriak eskuratzeaz gain, beste batzuen galerekin ere azaldu behar da. Horrela epealdi osoan, UGTk botoaren %24 eta delegatuen %28 galdu du eta bestelako sindikatu edo delegatuek botoaren %5 eta delegatuen %10.

ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO DELEGATU BANAKETA, 1995 - 2014

	Delegatuak guztira	ELA-STV		CC.OO.		LAB		U.G.T.		Besteak	
		Kop.	%	Kop..	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
1995	15.943	6.320	39,6	2.644	16,6	2.439	15,3	2.602	16,3	1.938	12,2
1996	15.817	6.267	39,6	2.617	16,5	2.416	15,3	2.559	16,2	1.958	12,4
1997	15.788	6.217	39,4	2.657	16,8	2.401	15,2	2.556	16,2	1.957	12,4
1998	15.469	6.243	40,4	2.695	17,4	2.393	15,5	2.462	15,9	1.676	10,8
1999	16.921	6.781	40,1	3.031	17,9	2.709	16,0	2.633	15,6	1.767	10,4
2000	17.500	7.104	40,6	3.152	18,0	2.785	15,9	2.654	15,2	1.805	10,3
2001	18.210	7.435	40,8	3.280	18,0	2.871	15,8	2.784	15,3	1.840	10,1
2002	17.768	7.347	41,3	3.387	19,1	2.893	16,3	2.518	14,2	1.623	9,1
2003	18.917	7.756	41,0	3.651	19,3	3.121	16,5	2.636	13,9	1.753	9,3
2004	19.386	7.912	40,8	3.824	19,7	3.152	16,3	2.685	13,9	1.813	9,4
2005	20.036	8.149	40,7	3.979	19,9	3.247	16,2	2.727	13,6	1.934	9,7
2006	19.299	7.854	40,7	3.839	19,9	3.232	16,7	2.510	13,0	1.864	9,7
2007	20.434	8.216	40,2	4.096	20,0	3.503	17,1	2.689	13,2	1.610	7,9
2008	20.845	8.407	40,3	4.189	20,1	3.555	17,1	2.736	13,1	1.670	8,0
2009	20.798	8.360	40,2	4.197	20,2	3.477	16,7	2.732	13,1	2.032	9,8
2010	19.549	7.885	40,3	3.913	20,0	3.176	16,2	2.546	13,0	2.029	10,4
2011	19.734	7.855	39,8	3.936	19,9	3.405	17,3	2.455	12,4	2.083	10,6
2012	19.392	7.686	39,6	3.825	19,7	3.395	17,5	2.398	12,4	2.088	10,8
2013	18.888	7.494	39,7	3.710	19,6	3.389	17,9	2.312	12,2	1.983	10,5
2014	16.967	6.766	39,9	3.262	19,2	3.111	18,3	1.984	11,7	1.844	10,9
1995 - 2014	1.024	446	43,6	618	60,4	672	65,6	-618	-60,4	-94	-9,2
Aldaketa 1995 oinarri	6,4	7,1	0,6	23,4	15,9	27,6	19,9	-23,8	-28,4	-4,9	-10,6


Sindikatu bakoitzeko delegatu kopurua 1995 - 2014. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa



Iturria: LHK 1995-2014

Delegatuen portzentajearen banaketari erreparatuta, ELA 1995etik oso konstante mantendu dela ikus daiteke. %40ren bueltan ibili da beti. Ehuneko horrekin nagusitasun handia lortu du epealdi guztian zehar. Puntu gorena 2002an lortu zuen %41,3rekin eta puntu baxuena seriearen hasieran eta 2012an %39,6.

Sindikatu bakoitzeko delegatu ehunekoa 1995 - 2014. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa



Iturria: LHK 1995 - 2014

Beste sindikatuen arteko aldeak argiago ikusteko, ondorengo grafikoa sortu dugu, aurrekoaren berdina baina ELArik gabe.


Ikus daitekeenez, Araba, Bizkaian eta Gipuzkoan, CCOOen igoera eman da 1995etik 2009ra arte, igoera nahiko konstantea. Igoera horrek delegatuen %16,6 izatetik %20,2 izatera eraman zuen. Urte horretatik aurrera, ordea, jaitsiera izan du, eta 2014ko datu ofizialen arabera, %19,2n zegoen.

Oso gertu dauka LAB egun. LABen igoera epealdi guztian zehar pilotzen joan da, 2007 - 2010 artean 0,9 puntuko jaitsiera izan bazuen ere. Seriearen hasieran %15,3 izatetik, 2014ko %18,3 izatera pasa da. Azken urteetako igoera nabarmena da, bestalde. 2010eko %16,2tik 2,1 puntu irabazita.

UGTren bilakaera guztiz kontrakoa izan da. CCOOekin batera %16,3rekin bigarren sindikatua izatetik, egun laugarren sindikatua izatera pasa da (%11,7). Epealdi honetan jaitsiera konstantea izan da.

Bestelako sindikatuen bilakaerak, fase ezberdinak bizi izan ditu. 1995etik lehen bi urteetan igoera txikia izan eta gero, esan daiteke jaitsierako joera izan dutela 2008ra arte. Horrela, 2008an delegatuen %8,0 zuten. Horren ondotik igoera nabarmena izan dute beraien zenbakietan, sei urtetan 2,9 puntuko igoera izanik.

CC.OO, LAB, UGT, besteak delegatu ehunekoak 1995 - 2014. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa




Iturria: LHK 1995-2014

HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK HEGO EUSKAL HERRIAN, 2014 - 2016 METATUA.

Orain arte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako datuak aztertu ditugu. Datu horiek LHKtik eskuratu ahal izan ditugu. Horiei esker begirada luzea bota ahal izan diogu hainbat datu eta hainbat kasutan xeheago. Baina Nafarroa Garaia kanpoan uzten dute eta LABeko datu basean horiek jasotzeaz gain, berriagoak diren datuak ere badaude. Ondorioz, hemendik aurrera datu horietan oinarrituko gara eta hainbat xehetasun aman ahal izateko LHKko datuak erabili behar ditugunean hala egingo dugu.

Egun, Hego Euskal Herri osoa aintzat hartuta, ELAk ditu delegatu gehien. Guztira 6.000 delegatu baino gehiago eta %35,8. Jarraian LAB dator. Bere 3.255 delegatuekin guztiaren %19,3 eskuratzen du. Oso hurbiletik CCOOk jarraitzen dio, bi hamarreko azpitik (%19,1, hain zuzen, 3.220 ordezkari dituela). Laugarren lekuan, eta koska handi xamarrean, UGT aurkitzen da (2.300 ordezkari pasa eta %13,8). Azkenik, bestelako sindikatu edo moduetan banatzen diren delegatuak daude, 2.000 baino gehiago guztira (%11,9).

DELEGATU SINDIKALAK HEGO EUSKAL HERRIA. 2014 - 2016		
	Delegatuak	%
LAB	3.255	19,3
ELA	6.026	35,8
CC.OO.	3.220	19,1
U.G.T.	2.319	13,8
Besteak	2.011	11,9
Delegatuak guztira	16.831	100,0



Iturria: LAB. Aztikerrek egina.


Herrialdeka banaketak bestelakoak dira. LABek Gipuzkoan lortzen du portzentajerik altuena. Bertan ordezkari guztien %29,6 eskuratzen du. Horrekin bere posiziorik onena lortzen du; bigarrena, lau herrialdeak kontuan hartuta. Jarraian Nafarroa Garaia eta Bizkaian datoz antzeko portzentajeetan (%16,3 eta laugarren posizioa Nafarroan eta %16,0 eta bigarren posizioa Bizkaian). Azkenik, Araban du LABek portzentajerik txikiena, %13,4, laugarren sindikatua delarik.

ELA lehen indarra da Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban eta hirugarrena Nafarroan. LABek bezala, Gipuzkoan du bere portzentajerik altuena. Bertan %43,3ra iristen da. 3,4 puntu gutxiago eskuratzen ditu Bizkaian (%39,9) eta zortzi gutxiago Araban (%35,3). Azkenik, Nafarroa Garaian eskuratzen ditu emaitzarik txarrenak. Bertan, hirugarren postura pasatzen da UGT eta CCOOren atzetik eta %22,1 eskuratzen du.

CCOO da, ehunekoei dagokienean, lau herrialdeetan gora behera txikienak dituen sindikatua. Emaitzarik onenak Nafarroa Garaian eskuratzen ditu (%22,8), bigarren postua lortzen duelarik. Ondoren Bizkaian (%21,0 eta bigarren postua) eta Araban (%18,8 eta baita bigarren postua) lortzen ditu emaitza onenak. Azkenik, portzentaje txikiena Gipuzkoan lortzen du, %13,3.

UGTk, esan dugunez, Nafarroa Garaian lortzen du lehen indarra izatea (%24,4) eta horiek dira bere emaitzarik onenak, bere beste emaitzekiko alde handi xamarrarekin gainera. Araban %16,3, Bizkaian %11,7 eta portzentajerik txikiena, Gipuzkoan %5,5 lortzen du. Lau sindikatuen artean, Araban hirugarrena da, eta Bizkaian eta Gipuzkoan laugarrena.

DELEGATU BANAKETA %. 2014 - 2016 METATUA. HERRIALDEKA					
	LAB	ELA	CC.OO.	U.G.T.	Besteak
Araba	13,4	35,3	18,8	16,3	16,2
Bizkaia	16,0	39,9	21,0	11,7	11,4
Gipuzkoa	29,6	43,3	13,3	5,5	8,3
Nafarroa	16,3	22,1	22,8	24,4	14,4



Iturria: LAB. Aztikerrek eginak.

HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK HEGO EUSKAL HERRIAN, 2002 – 2016.⁹

Azken lau zikloetako bilakaerari erreparatuta, lehen ziklotik bigarrenera sindikatu abertzaleen jaitsiera bat nabarmentzen da. ELAk bi puntuko galera izan zuen eta LABek puntu eta erdikoa. Jaitsiera horren irabazia, bereziki UGTk izan zuen, 1,8 puntuko igoera izanik %17,5eko balioan kokatuta. CCOOek ere 1,3ko igoera izan zuen.


Horren ondotik, ordea, bilakaera beste bat izan da. ELAk bere portzentajeak mantendu ditu %35,8ko balioan dagoelarik une honetan eta LAB hazi egin da, azken zikloan bereziki. 2009ko %16,0tik, 2013ko %16,8ra pasa zen eta egun %19,3ra iritsi da. Bilakaera horrekin, 2009an LAB laugarren sindikatua izatetik bigarrena izatera igaro da.

DELEGATU BANAKETA KOPURUAK ETA %. 2002-2016. HEGO Euskal Herria						
	Guztira	LAB	ELA	CC.OO.	U.G.T.	Besteak
2005*	24.771	17,5	37,4	20,1	15,7	9,3
2009	29.093	16,0	35,4	21,4	17,5	9,7
2013	26.439	16,8	35,4	21,2	16,4	10,1
2016	16.831	19,3	35,8	19,1	13,8	11,9

Iturria: LAB. Aztikerrek egina.

*2005 zikloko Nafarroako datuak ez dira zuzenak, ondorioz HEHko datuak pixka bat desitxuratu dituzte LABen alde

Delegatu banaketa %. 2002 - 2016. Hego Euskal Herria



Iturria: LAB. Aztikerrek egina.

HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK HEGO EUSKAL HERRIAN, HERRIALDEEN ARABERA 2002 - 2016.

Araban ELA da lehen indarra aztertzen ari garen ziklo guztietan eta azkenekoan goranzko joera erakutsi du. Ia %34ko balioan mantentzetik oraingo %35,3ra pasa da.

CCOOek eta UGTk, joera berdina marrazten dute. Jaitsiera txikiak izatetik lehen zikloetan, horiek gero eta handiagoak izatera pasa dira. Horrela, azken zikloan 2,6 puntu galdu ditu CCOOek eta 3,3 UGTk.


Txanponaren kontrako aurpegia LABek izan du. Bere igoera 2009tik etengabea izan da. Ondorioz, %12tik %16,2ra pasa da, hirugarren sindikatua izateko hamarrekoko bat faltan duelarik.

Lau sindikatu nagusiak alde batera utzita, Araban bestelako aukeren alde egiten duten sektore sozialek portzentajerik altuenak lortzen dituzte, Nafarroarekin batera. Guztira Araban, %13,4 osatzen dute sindikatu gabeko delegatuek, LSB-USOk, ESKk edo bestelako aukerak. Nafarroan %14,4, Bizkaian %11,4 eta indar gutxien duten herrialdean, Gipuzkoan, %8,3 lortzen dute.

⁹ Metodozko oharretan azaldu bezala, irakurketa errazteko, zikloen emaitza metatuak aurkezteko orduan zikloaren azken data jarri dugu. Ondorioz, 2002-05 zikloa 2005 bezala adierazi dugu, 2006-09 2009 bezala, 2010-13 2013 bezala eta 2014-16 2016 bezala.

Arabara bueltatuta berriro ere, bestelako sindikatu eta aukerak, ziklo batetik bestera indartu dira. Horrela, bere igoerak 0,6, 0,4 eta 1,8 puntukoak izan dira ziklo batetik bestera.

Delegatu banaketa metatuak %. 2002 - 2016. Araba



LAB. Aztikerrek egina.

Bizkaian ere, ELA da lehen indarra aztertzen ari garen ziklo guztietan. Kasu honetan jaitsiera nabarmenena izan zuen bi zikloen artean eta gero pixkanaka berreskuratzen joan da, oraindik ez bada 2005ean itxitako zikloko portzentajerik iritsi ere.


CCOOek igoera txiki bat izan zuen hasieran, baina hortik aurrera UGT bezala, jaitsiera etengabea dabil. Guztira bien artean %36,5etik %32,7ra pasa dira.

46

Txanponaren kontrako aurpegia, berriro ere, LABek izan du. Bere igoera lehen ziklotik etengabea izan da. Ondorioz, %12,5etik %16,0ra pasa da, hemen bai, hirugarren sindikatu bihurtu delarik.

Bestelako sindikatuen portzentajeak nahiko egonkor mantendu dira urte guzti hauetan, guztira puntu bat igo badira ere.


Delegatu banaketa metatuak %. 2002 - 2016. Bizkaia



LAB. Aztikerrek egina.

Gipuzkoan aldaketa oso gutxi eman dira lehen hiru zikloetan. Ia sindikatu batek ere ez du igoera edo jaitsiera esanguratsurik. Azken zikloan, aldiz, LABek igoera garrantzitsua izan du (3,1 puntukoa), ELAk puntu erdiko jaitsiera, UGTk 1,2koa eta bereziki CCOOek, 2,5 puntukoa. Bestelako sindikatuek, LABek baino apalago bada ere, ia puntu bateko igoera izan dute (0,9).

Delegatu banaketa metatuak %. 2002-2016. Gipuzkoa



Iturria: LAB. Aztikerrek egina.


Nafarroa Garaian UGT da lehen indar gisa mantendu dena azken hamar urteetan. Dena dela, joera oso negatiboa izan du, guztira 2006tik 6,6 puntu galduz.

CCOOek hasiera batean 1,1 puntuko igoera izan bazuen ere, azken urteetako jaitzierarekin orduan irabazitakoa eta gehiago galdu du (guztira 2 puntuko galera).

Galera horiek sindikatuen arteko aldeak asko estutu ditu Nafarroan. Horrela, ELAk bere emaitzak mantendu dituen bitartean, LABen igoera ikusgarria izan da (ia lau puntu igoz, 3,8) eta baita bestelako sindikatu edota ereduena ere (4,5 puntu igoz). Aldaketa horiek, sindikatu guztiak 10 puntuko tartean egotea eragin du.

47

Delegatu banaketa metatuak %. 2002- 2016. Nafarroa Garaia



Iturria: LAB. Aztikerrek eginak.

HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZAK KONTRATUAREN ARABERA (FUNTZIONARIO - LAN KONTRATUDUNA), 2014. HEGO EUSKAL HERRIA.

LHKak eta Nafarroako Gobernuak publikatutako datuen arabera, 2014an Hego Euskal Herrian hautatutako delegatu kopurua 22.982 ziren, zeinetatik 1.828 (%8,0) funtzionarioak baitziren eta 21.154 (%92,0) lan kontratudunak.

Klase sindikatu guztien artean, LAB zen bakarra portzentaje hobea zuena funtzionarioen artean lan kontratudunen artean baino, nahiz eta tarte handia ez izan.

Beste sindikatuetan, ordea, portzentaje hobeia dute lan kontratudunetan, eta funtzionarioen datuekin alderatuta, koska esanguratsu batera gainera.


Funtzionarioen artean, ELA da nagusi (%29,4) eta LAB bigarren indarra (%19,4). Ondoren dator CCOO %15,8rekin eta tarte handira UGT, %8,7rekin. Bestelako sindikatuek portzentaje handia lortzen dute. Denek batera %26,8 lortzeraino.

Lan kontratudunen artean ere, ELA da nagusi, kasu honetan portzentaje handiagoarekin (%35,62) eta bigarrenarekiko tarte handitzen duelarik. Bigarrena CCOO da %21,1arekin. Hirugarren lekuan LAB dago %16,9rekin eta gertu UGT %16,5. Eremu honetan, bestelako sindikatuek duten presentzia txikiagoa da (%9,9).

DELEGATUEN BANAKETA KONTRATU MOTAREN ARABERA SINDIKAUTKO 2014ko ABENDUA. HEGO EUSKAL HERRIA						
	Guztira		Funtzionarioak		Lan kontratudun langileak enpresa pribatuetan	
	Delegatuak	%	Delegatuak	%	Delegatuak	%
ELA	8.061	35,1	537	29,4	7.524	35,6
CC.OO.	4.748	20,7	289	15,8	4.459	21,1
LAB	3.936	17,1	354	19,4	3.582	16,9
UGT	3.646	15,9	159	8,7	3.487	16,5
Besteak	2.591	11,3	489	26,8	2.102	9,9
GUZTIRA	22.982	100,0	1.828	100,0	21.154	100,0

Iturria: LHK. EAEko egoera ekonomikoa eta lan harremanak 2014an / Nafarroako Gobernua

Delegatuen banaketa kontratu motaren arabera sindikatuko, 2014ko abendua. Hego Euskal Herria



Iturria: LHK. EAEko egoera ekonomikoa eta lan harremanak 2014an / Nafarroako Gobernua

Funtzionario eta lan kontratudunen arteko proportzio orokorrak nahiko paretsu eta antzera mantentzen dira sindikatu bakoitzaren barruan. Salbuespena, "Beste" kategoriaren barruan sailkatutakoak dira. Bertako multzoa osatzen dutenek bereziki funtzionarioen artean dute presentzia handia (delegatu horien %16,9).

DELEGATUEN BANAKETA KONTRATU MOTAREN ARABERA ETA SINDIKATU BAKOITZAREN BARRUAN, 2014KO ABENDUA.

	Guztira	FUNTZIONARIOAK	LAN KONTRATUDUNAK
Guztira	100,0	8,0	92,0
ELA	100,0	6,7	93,3
CC.OO.	100,0	6,1	93,9
LAB	100,0	9,0	91,0
UGT	100,0	4,4	95,6
Besteak	100,0	18,9	81,1

Iturria: LHK. EAEko egoera ekonomikoa eta lan harremanak 2014an / Nafarroako Gobernua

KONTRATUAREN ARABERAKO EMAITZEN ALDERAKETA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA NAFARROA GARAIAREKIN, 2014.

Funtzionarioen artean sindikatu bakoitzak lortzen duen ordekaritzari erreparatuta, alde nabarmenak azaltzen dira. Lehenik, sindikatuen arteko ordena ezberdina da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ELA lehen sindikatua den bitartean %35,7az, Nafarroa Garaian LAB da %20,1az.

Beste ezberdintasun bat, Nafarroan sindikatuen arteko alde txikiagoak direla da. Horrela, lau sindikatuen arteko aldea ia bost punturen bueltan kokatzen dira. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan berriz lehen sindikatutik laugarrenera ia 30 puntuko aldea dago.

FUNTZIONARIOEN ARTEKO BANAKETA, 2014

	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa	Nafarroa Garaia
ELA	35,7	15,8
CC.OO.	14,3	19,1
LAB	19,0	20,1
UGT	5,8	14,9
Besteak	25,2	30,2
GUZTIRA	100,0	100,0

Iturria: LHK. EAEko egoera ekonomikoa eta lan harremanak 2014an / Nafarroako Gobernua

Lan kontratuak dituzten langileen artean antzeko joerak errepikatzen dira. Dena dela aldeak ere badaude. Nafarroan lau sindikatuen arteko aldea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan baino txikiagoak badira ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan zegoen 30 puntuko aldea txikitu egiten da (28ra) eta Nafarroan 5eko aldea zena, piska bat handitzen da (16 puntura).

Ordena ere aldatzen da. Funtzionarioen artean LABek eskuratzen zuen bigarren lekua Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Lan kontratadunen artean laugarren lekura pasatzen da. Nafarroan ere, lehen indarra izatetik laugarrena izatera pasatzen da lan kontratadunen artean.

LAN KONTRATADUNEN ARTEKO BANAKETA, 2014

	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa	Nafarroa Garaia
ELA	40,2	22,1
CC.OO.	19,6	25,3
LAB	18,3	13,0
UGT	12,2	29,0
Besteak	9,7	10,5
GUZTIRA	100,0	100,0

Iturria: LHK. EAEko egoera ekonomikoa eta lan harremanak 2014an / Nafarroako Gobernua


LABen kasuan, funtzionarioen artean duen ehunekoa oso antzekoa da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian. Lan kontratadunen artean ordea, aldea ia bost puntuko da (Nafarroan baxuagoa).

UGTren aldea ere nabarmena da. Funtzionarioen artean Nafarroan laugarren izatetik lan kontratadunen artean lehena izatera pasatzen da, ia bikoiztuz bere ehunekoa. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan bikoiztu baino gehiago egiten du.

DELEGATUEN BANAKETA GENEROAREN ARABERA

2015ean Hego Euskal Herrian hauteskunde sindikalen ondotik delegatu izendapena eskuratu zutenen artean %64,2 ziren gizonak eta %35,8 emakumeak.

Delegatuen banaketa sexuaren arabera, 2015. Hego Euskal Herria



Iturria: LAB. Aztikerrek egina.

2003tik urtez urte ateratako delegatuen generoa aztertuz gero, joera argia dago generoen arteko desoreka parekatzen joateko, nahi eta oraindik alde nabarmena dagoen.


Grafikoan ikus daitekeen bezala, urte bakoitzean zein hauteskunde dagoen arabera (sektoreen arabera alegia), emakumeen presentzia handiagoa edo txikiagoa da.

Edozein kasutan, beheko "pikoak" hartuta, 2006an emakume delegatuak guztien %27,0 ziren. Zortzi urte beranduago, 2014ean %33,8.

50

Emakume delegatuen kopurua eta guztiekiko ehunekoa, 2003-2015 bilakaera. Hego Euskal Herria		
	Emakumeak	Emakume %
2003	1.591	28,1
2004	756	30,4
2005	1.097	32,1
2006	3.269	27,0
2007	2.876	31,6
2008	1.307	34,5
2009	1.393	35,9
2010	3.242	30,3
2011	3.051	34,5
2012	1.313	38,1
2013	1.343	38,1
2014	2.965	33,8
2015	2.989	35,8


Emakume delegatuen ehunekoa, 2003 - 2015 bilakaera. Hego Euskal Herria



Genero banaketa sindikatuen baitan aztertuta, bestelako sindikatuen artean ematen da generoen arteko alderik txikiena. Sindikatu horietako delegatuen %40,2 dira emakumeak. Sindikatu mota horiek administrazio publikoan eta funtzionarioen artean duten indarraren ondorio ezberrik gabe.

Klase sindikatuen artean LAB da berdintasun kuota handiena duena. 2015ean lortutako delegatuen %39 izan ziren emakumeak. ELAren kasuan %35,2 izan ziren, UGTrean %32,8 eta CCOOenean %32,9.

Emakume delegatuen portzentajea sindikatuen arabera, 2015. Hego Euskal Herria



Iturria: LAB. Aztikerrek eginak.


Perspektiba luzatuta ordea, LABen emaitzak beste batzuk dira. Horrela 2003tik LABen emakume delegatuen ehunekoa, gehienetan beste sindikatuen azpitik egon da.

Bestelako sindikatuak ordea, 2015ean erakutsitakoa ia urtero errepikatzen du, besteen gainetik kokatuz emakume delegatuen proportzioetan.

ELAren kasuan, klase sindikatuen artean proportzionalki emakume gehien dituen sindikatua izatea lortzen du edo gehienetarikoa.

51

Emakume delegatuen portzentajea sindikatuen arabera, 2003 - 2015. Hego Euskal Herria



Iturria: LAB. Aztikerrek eginak.

6. AFILIATUAK.


6.1 AFILIAZIOAK EDOTA ELKARTEGINTZA HEGO EUSKAL HERRIAN.

CISek 18 urtetik gorako herritarrei egindako bi inkesta aintzat hartuta, Hego Euskal Herrian sindikatuak dira herritar gehien biltzen dituzten eragile sozialak. Herritar guztiak kontuan hartuta gehiengoa eragileren batean edo bestean du izena emanda (%69,7). %30,6 da ez duena inongo elkarteetan parte hartzen.

Aipatu bezala, sindikatuak dira parte hartze maila altuena duten eragileak. Guztira 18 urtetik gorako herritarren %11,7a sindikaturen batean afiliatuta dago. Jarraian Kirol elkarte edo taldea (%9,9) GKE edo elkartasun elkarteak (%7,7) eta arte edo kultur elkarteak (%6,9) datoz. Nahiko atzetik datoz alderdi politikoak (%1,5) eta are gehiago elkarte enpresarialak (%1,2).

PARTE HARTZEA ELKARTEETAN, 2012 - 2015. HEGO EUSKAL HERRIA

	Maiztasuna	%
Sindikatuak	292	11,7
Kirol elkarte edo taldea	246	9,9
GKE edo elkartasun elkarteak	186	7,4
Arte edo kultur elkarteak	172	6,9
Guraso elkarteak	119	4,8
Bizilagun elkarteak	67	2,7
Elkarte erlijiosoa	61	2,5
Elkarte edo kolegio profesionala	51	2,0
Alderdi politikoak	48	1,9
Gazte elkarteak	41	1,6
Elkarte edo talde ekologista	37	1,5
Elkarte enpresariala	29	1,2
Kontsumitzaile elkarteak	22	0,9
Ez du inongo elkarteetan parte hartzen	764	30,6
Guztira (n)	2.494	100,0



Iturria: Nafarroa Garaia CIS-3097. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa CIS-71612. Aztikerrek egina.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko alderaketa egitean, Nafarroan sindikatueta izena emanda egotea ezohikoagoa da. 18 eta 64 urte arteko herritar guztiak kontuan hartuta, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa herritarren %16,5 zuten izena emanda sindikaturen batean 2012an. Nafarroa Garaian, 2015ean, datu hori bera %10,6koa zen.

18 - 64 URTE ARTEKO SINDIKATUETAN AFILIATUAK (%) 2012 - 2015

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa (2012)	16,5
Nafarroa Garaia (2015)	10,6

Iturria: Nafarroa Garaia CIS-3097. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa CIS-71612. Aztikerrek egina.

6.2 ORDAINPEKOEN AFILIAZIO TASA. OCDE ETA HEGO EUSKAL HERRIA.

Eragile sindikalak mendebaldeko edota sistema kapitalistetako lan harremanen sistemaren gakoetako bat izan dira. Sindikatuen presentzia eta eragiteko gaitasuna baldintzatzen duen faktore nagusietako bat afiliazio sindikalaren zabalkundea da. Horrek emaitza sindikalak ere baldintzatzen ditu. Langileen afiliazioa zein faktorek baldintzatzen duten ezagutzea, beraz, garrantzi handikoa da. Modu horretan ezagutuko dugu baita ere sindikatuek zein leku betetzen duten jendartearen orokorrean. Historikoki, bai Espainiak bai Frantziak, afiliazio tasa txikienetakoak izan dituzte, haien inguruko beste estatuekin alderatuta. Hori faktore askoren ondorio izan da zalantzarik gabe, baina lan harremanen eremua arautzeko hartutako erabakiek berebiziko garrantzia izan dute (legeek eta hitzarmenek, alegia). Euskal Herria bi estatu horien menpe egoteak eta ondorioz, haien legeen baldintzapean, ezinbestean eragina izan du lan harremanen eremua antolatzeko orduan eta ondorioz, baita afiliazioaren eremuan ere. Dena dela, aldeak ere badaude eta hori da hurrengo atalean aztertzen saiatuko garena, Hego Euskal Herrira mugatuta. Zentzu horretan, baldintza makroekonomikoez haratago, aztertuko ditugun datuen bidez, baldintza mikroekonomikoen analisia eginez horiek Hego Euskal Herrian afiliazioa nola baldintzatzen duten aztertuko dugu.

OCDEko langileen afiliazioaren azken datua, %16,9 da (2013). Europar Batasunean tasa hori %23,4koa zen 2011n. Islandia da nabarmen afiliazio mailan gorago dagoen Estatuak (%82,6). Ondoren datoz Finlandia, Suedia eta Danimarka %65etik gora hirurak. Aurretik aipatutako sailkapenean, hirurak "sindikatuek erabateko nagusitasuna" duten ereduaren barruan kokatzen dira. Eta datu taula honetan lehen postuetan dauden ia Estatu guztiak herrialde nordikoak dira.

OCDEko batez bestekoaren azpitik 12 estatu daude. Afiliazio tasa txikienekin, Turkia, Estonia eta Frantzia daude. Hirurak %10etik behera. Estonia eta Frantzia eredu mistoetan kokatuta ageri da aipatu sailkapenean, sindikatuek batzordeek baino nagusitasun gehiago duten ereduaren barruan.

Hego Euskal Herria taularen erdialdean ageri da, Espainia, Japonia, Alemania, Herbehereak eta Australia bezalako estatuekin batera. Fultonen sailkapenean, Alemania eta Herbehereak enpresa batzordeek erabateko nagusitasuna dutenen artean kokatzen ditu. Espainiak (eta ondorioz, Hego Euskal Herriak) batzordeei indar gehiago aitortzen badie ere, eredu mistoan kokatzen du.


AFILIAZIO TASA OCDEn, 2011-2013			
Estatua/Herrialdea	Afiliazio tasaren azken datua (2013 - 2011)	Estatua/Herrialdea	Afiliazio tasaren azken datua (2013 - 2011)
OCDE herrialdeak	16,9	Nafarroa Garaia	19,7
EB28	23,4	Zeelanda Berria	19,4
Islandia	82,6	Japonia	17,8
Finlandia	68,6	Alemania	17,7
Suedia	67,7	Herbehereak	17,6
Danimarka	66,8	Espainia	17,5
Belgika	55,0	Australia	17,0
Norvegia	53,5	Eslovakia	16,8
Italia	36,9	Suitza	16,2
Luxenburgo	32,8	Txile	15,3
Irlanda	29,6	Mexiko	13,6
Austria	27,4	Txekia	13,4
Kanada	27,2	Polonia	12,5
Erresuma Batua	25,4	Ameriketako Estatu Batuak	10,8
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa	24,9	Hungaria	10,6
HEGO EUSKAL HERRIA	23,8	Hego Korea	9,9
Eslovenia	23,1	Frantzia	7,7
Grezia	21,3	Estonia	6,4
Portugal	20,5	Turkia	4,5

Iturria: OCDE.Stat, ECVT 2010.

Hego Euskal Herriko datua lortzeko ECVT2010 inkestan oinarritu gara. Horren arabera, Espainiako datua 2010ean 18,9koa zen, hau da, OCDEren datua baino 1,3 puntu altuagoa (17,6 zen OCDEko datuen arabera). Hego Euskal Herriko kasuan, ECVT2010 inkestaren arabera, 23,8 zen afiliazio datua 2010ean (24,9 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eta 19,7 Nafarroa Garaian). Hau da, edozein kasutan Espainiako eta Frantziako afiliazioaren datuen gainetik kokatzen da Euskal Herrikoa.

Horrela, Hego Euskal Herriko afiliazio tasa OCDEko batez bestekoaren gainetik baina EU28koaren inguruan legoke.

Afiliazio tasa OCDEn, 2011 - 2013



6.3 AFILIATU KOPURUA HEGO EUSKAL HERRIAN.

Afiliazioaren datua, esan bezala, 2010eko inkesta batetik estimatu dugu. Orduetik hona, lan harrenametan aldaketa esanguratsuak egon dira. Ondorioz, 2010eko EPAren datuak kontuan hartuta estimatuko dugu garai horretan zenbat izan zitezkeen sindikaturen batean afiliatutakoak. Orduetik hona afiliatioetan egon ahal izan diren aldaketak estimatzeko, ordea, afiliazioaren ezaugarritzea eta lan esparruetan egondako aldaketak kontuan hartuta egin beharko litzateke.

Aurretik ikusi dugun moduan, beraz, 2010eko lehen hiru hilekoan, Hego Euskal Herrian 16 eta 64 urte arteko 1.879.453 pertsona bizi ziren. Horietatik %73,6 ziren aktiboak (enpleguarekin edo enplegu bila zebiltzanak). Ondorioz, beste %26,7 ez aktiboak ziren lan esparruan (nagusiki zaintza lanak egiten dituzten emakumeak, pentsionistak eta ikasleak osatzen zuten multzo hori).

16-64 urte arteko biztanleria osoa kontuan hartuta, ordainpekoak %54,8 ziren, aktiboen %74,4, hain zuzen. Beste aktiboak kooperatibistek, autonomoek, enpresariak eta familia enpresetan lan egiten dutenek osatzen dute. Beraz, "afiliatzeko moduko okupatuak" %74,4 horretara mugatzen da.

Urtea	16 - 64 biztanleria	Aktiboak	Ordainpekoak
2010	1.879.453	1.383.500	1.029.800
2015	1.813.662	1.268.400	943.400

Iturria: INE. EPA 2010-15T1. Udal erroldak.

Horietatik, aurretik ikusi dugun bezala, 2010ean %23,8koa estimatzen badugu ordainpekoen arteko afiliazio tasa Hego Euskal Herrian, 245.092 afiliatu egon zitezkeela kalkulatu dugu, 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren %17,7.

Sintesia	Biztanleak (milakoak)	Ehunekoa (%)
Hego Euskal Herria (16-64 urte)	1.879,4	100,0
Aktiboak	1.383,5	73,6
Ordainpekoak	1.029,8	54,8
Afiliatuak %23,8	245,0	17,7

Iturriak: INE, EPA 2010T1. Udal Erroldak. Aztikerrek egina

6.4 AFILIAZIO TASA HEGO EUSKAL HERRIAN ETA OCDEEN: 1999 - 2013 BILAKAERA.

Afiliazioaren datuaren bilakaera OCDEren barruan azken hamarkada luze honetan etengabeko jaitsierazkoa izan da. Hego Euskal Herria, Belgika, Italia, Espainia eta Txile salbu, beste Estatu edo herrialde guzti-guztietan datuak behera egin du epealdi honetan. OCDEko datu orokorarentzat seriearen lehen datua, 1999koa, bildu dugu. Orduan %20,8koa zen eta pixkanaka, urtez urte jaisten joan da, aipatu 16,9ra iritsi arte. Hau da, guztira afiliazio tasa %19 jaitsi da epealdi honetan OCDEn.


Jaitsiera horrek eragin nabarmena eduki du Estonia, Turkia, Hungaria, Txekia edo Eslovakia bezalako herrialdeetan. Bertan jaitsieraren aldea %50etik gorakoa izan da eta guztietan egun, %17tik beherakoa da afiliazio tasa.

Aipatu bezala, soilik bost eremutan igo da afiliazio tasa. Hego Euskal Herrian, Belgikan, Italian, Espainian eta Txilen. Dena dela, igoerak ez dira oso nabarmenak inon ere. Gainera, Italian eta Belgikan tasa altua zen hasieran eta hala izaten jarraitzen du (%35 inguru Italian eta %55 inguru Belgikan). Ez, ordea, Hego Euskal Herrian, Espainian edo Txilen. Hego Euskal Herriko datua %20-24 artean eta Espainiakoa eta Txilekoa %15 inguruan mugitu da epealdi guztian zehar.

Estatua / Herrialdea	Aldea (2013 - 1999)	Aldea % (base 1999)	Afiliazio tasaren azken datua	Estatua / Herrialdea	Aldea (2013 - 1999)	Aldea % (base 1999)	Afiliazio tasaren azken datua
OCDE herrialdeak	-4,0	-19,0	16,9	Suedia	-12,9	-16,0	67,7
Hego Euskal Herria	3,0	14,4	23,8	AEB	-2,6	-19,1	10,8
Txile	1,8	13,1	15,3	Japonia	-4,4	-19,8	17,8
Espainia	0,7	4,3	17,5	Grezia	-5,5	-20,6	21,3
Italia	1,5	4,2	36,9	Suitza	-4,7	-22,5	16,2
Belgika	0,7	1,4	55,0	Irlanda	-9,1	-23,5	29,6
Norvegia	-1,3	-2,4	53,5	Luxenburgo	-10,4	-24,1	32,8
Kanada	-0,8	-2,9	27,2	Austria	-10,0	-26,8	27,4
Frantzia	-0,3	-3,9	7,7	Herbehereak	-7,1	-28,7	17,6
Islandia	-4,8	-5,5	82,6	Alemania	-7,6	-30,0	17,7
Portugal	-1,9	-8,6	20,5	Australia	-8,4	-33,0	17,0
Danimarka	-7,3	-9,8	66,8	Polonia	-8,0	-38,9	12,5
Finlandia	-7,6	-10,0	68,6	Eslovenia	-18,8	-44,9	23,1
Zeelanda Berria	-2,3	-10,5	19,4	Eslovakia	-17,4	-50,9	16,8
Mexiko	-2,1	-13,6	13,6	Txekia	-15,6	-53,8	13,4
Hego Korea	-1,8	-15,4	9,9	Hungaria	-14,0	-57,0	10,6
Erresuma Batua	-4,7	-15,6	25,4	Turkia	-6,1	-57,2	4,5
				Estonia	-9,9	-60,7	6,4

Iturria: OCDE.Stat. ECVT 2010.

Afiliazio tasa Hego Euskal Herrian eta OCDEn: 1999-2013 bilakaera



Iturria: OCDE.Stat. ECVT 1999-2010.

Bilakaerak OCDEkoarekiko alderatuz gero, Espainiaren joerak antzekotasunak eta desberdintasunak izan ditu. Batetik, epealdi honen hasieran datua OCDEn baino baxuagoa zen, lau puntu baxuagoa zehazki (16,8). Epealdiaren lehen zatian (2006ra arte), joera antzekoa izan zuen Espainiak OCDEkoarekiko eta ondorioz, tartea gutxi gorabehera mantendu egin zen. Hortik aurrera, ordea, eta krisiaren hasierarekin bat etorritz, kontrako joera izan du, afiliazio tasak gora egin du eta. Igoera hori bereziki lehen hiru urteetan (2006 eta 2009 artean) izan zen. Joera aldaketa horrek, afiliazio tasak OCDEkoarekiko berdintzea ekarri du. Horrela, azken datuaren arabera (2012koa) Espainiako afiliazio tasa 17,5eko balioan dago.

Hego Euskal Herriaren kasuan, hazkunde nagusia 1999 eta 2003 artean jazo zen. 2,3 puntuko igoera izan zen orduan eta hortik aurrera, datuan gorabeherak egon badira ere, mantendu dela esan daiteke (2003an 23,1, 2007an 22,0 eta 2010 23,8). Dena dela, edozein kasutan, aldeak ez dira handiak.

6.5. AFILIATUTAKO LANGILEEN EZAUGARRIAK.

6.5.1 AFILIATUEN EZAUGARRITZEA.

2009 eta 2010eko ECVT datuak bilduta Hego Euskal Herrirako¹⁰, alde nabarmenak azaleratzen dira aldagai ezberdinen baitan afiliatioari dagokionean. Horrela, datu horiek oinarri hartuta, hainbat aldagairen arabera afiliatuak nola banatzen diren aztertuko dugu atal honetan. Horretarako lau dimentsio ezberdinetan sailkatu ditugu hainbat aldagai. Dimentsio horiek, ezaugarri pertsonalei edo soziodemografikoei lotuta daude lehenik, bigarrenez okupazioari edo lanpostuaren ezaugarriari, hirugarrenik langileak bere lanpostuarekiko duen asebetetze mailari eta azkenik, ekintza sindikalaren gaineko ezagutza eta balorazioari lotutakoak.

EZAUGARRI PERTSONALAK	OKUPAZIO EDO LANPOSTU EZAUGARRIAK	LANPOSTUAREKIN ASEBETETZE MAILA	EKINTZA SINDIKALAREN GAINEKO EZAGUTZA ETA BALORAZIOA
Sexua	Lanpostu mota	Egindako jarduerarekin	Ekintza sindikalaren ezagutza maila
Jaiolekua	Aktibitate sektorea (sinplifikatua)	Garapen pertsonala	Langileen interesen ordezkapena eta defentsa enpresan
Adina	Aktibitate sektorea (xehatua)	Autonomia maila	Aktibitate sindikalaren bolumena enpresan
Ikasketa maila	Lantokian langile kopurua	Erabakietan parte hartze maila	Afiliatua egoteagatik lan baldintzen hobekuntza
Bikotekidearekin bizi	Lan jardun mota osoa/partziala	Motibazio maila	Sindikatuengatik enpresan lortutako lan baldintzen hobekuntza
Seme-alabekin bizi	Asteko lan orduak	Estres maila	
	Kontratu mota mugagabea/epe baterako	Errutina edo monotonia maila	
	Lan jardun jarraia/etena	Esfortzu fisiko maila	
	Gaueko / eguneko txanda	Soldatarekin asebetetze maila	
	Lan postuan antzinasuna	Lanarekin asebetetze maila	
	Soldata		

57

EZAUGARRI PERTSONALAK

Sexuaren arabera, gizonetakoak emakumeetakoak baino gehiago afiliatzen dira. Zazpi puntu baino gehiagoko aldea dago batzuen eta besteen artean. Ordainpeko gizonen artean proportzio hori %28,1koa zen bitartean, emakumeen artean %20,7koa zen.

Jaiolekuaren arabera, Estatu espainiarrean jaiotakoak dira gehien afiliatzen direnak. Horrela, estatuan jaiotakoaren artean %30,2 zeuden afiliatuta. Euskal Herrian jaiotakoaren artean %23,2 ziren eta estatutik kanpokoaren artean proportzioa asko jaisten da, %6,0ra, hain zuzen.

Estatuan jaiotakoaren adina, batez beste, Euskal Herrian jaiotakoena baino altuagoa dela kontuan hartuta, hor egon daiteke bi multzo horien arteko aldearen justifikazioetako bat. Izan ere, zenbat eta nagusiagoa izan, orduan eta afiliatio tasa altuagoa da. 30 urtetik beherakoaren artean tasa %11,5ekoa den bitartean, 45 urte edo gehiago dutenen artean %30,1ekoa da, ia hirukoitza.


Lortutako prestakuntza mailaren arabera, gehien afiliatzen diren multzoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (%30,0), Goi Mailako Lanbide Heziketa (%29,8) eta Lehen Hezkuntza (%29,1) dutenak dira. Gutxien, goi mailako ikasketa unibertsitarioak dituztenak (%10,8) eta maila ertaineko ikasketa unibertsitarioak (%24,0).

Etxebizitza nola okupatzen duten arabera, bikote batekin etxebizitza partekatzen dutenak edota seme-alabekin bizi direnak dira gehien afiliatzen direnak, beste eredu batean bizi direnak baino.

¹⁰ Justifikaziorako ikus ohar metodologikoak

AFILIAZIOAREN EZAUGARRI PERTSONALAK, 2009-2010	
GUZTIRA	24,4
SEXUA	
Gizonezkoa	28,1
Emakumezkoa	20,7
JAIOLEKUA	
Hego Euskal Herria	24,2
Estatu Espainiarra	38,7
Estatu Espainiarretik kanpo	7,8
ADINA	
30 urte edo gutxiago	11,5
30-44 urte	24,0
45 urte edo gehiago	30,1
IKASKETA MAILA	
Lehen Hezkuntzako ikasketak baino gutxiago	0,0
Lehen Hezkuntza	29,1
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	30,0
Erdi Mailako Lanbide Heziketa	26,0
Goi Mailako Lanbide Heziketa	29,8
Batxilergoa	24,8
Maila ertaineko ikasketa unibertsitarioak	24,0
Goi mailako ikasketa unibertsitarioak	10,8
BIKOTEKIDEAREKIN BIZI	
Bikotearekin bizitzen	28,4
Beste egoerak	18,3
SEME-ALABEKIN BIZI	
Seme-alabekin bizi da	28,3
Beste egoerak	20,1

Iturria: ECVT2009-2010 Aztikerrek egina



OKUPAZIO EDO LANPOSTU EZAUGARRIAK.

Inkestatuek momentu horretan zuten lanaren eta lanpostuaren ezaugarrien arabera ere aldeak handiak dira afiliazio tasan. Nagusi eta agindupekoak dituzten tarteko arduradunak dira gehien afiliatzen direnak (%26,0) eta ondoren nagusiak dituzten enplegatuak (%24,6). Gutxien, berriz, enpresa txikiko, departamentu edo sukurtsaleko zuzendariak (%23,1) eta tailerreko edo bulegoko nagusiak, arduradunak (%23,2).

Aktibitatearen arabera, lehen sektorean ematen da afiliazio handiagoa (%33,3), ondoren, bigarren sektorean (%29,2) eta azkenik, hirugarrenean (%22,7). Aktibitate sektorea xeheago aztertuta, afiliazio gehien duten sektoreak ur horniketa, saneamendu lanak, hondakin kudeaketa eta deskontaminazioa (%50,0) eta garraioa eta bilketa (%40,4) dira. Ondoren, administrazio publikoarekin du lotura: Administrazio publikoa %36,6, osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%31,3) eta hezkuntza (%30,6). Tartean geratzen dira nekazaritza, abeltzantza, basogintza edo arrantza eta elektrizitate, gas, lurrin edo haize egokitu horniketa, bi sektoreak %33,3rekin.

Afiliaturik ez zen neurtu erauzketa industrietan edo higiezin jardueretan lana zuenik. Horiek kenduta, afiliazio tasarik baxuenak dituzten sektoreak informazioa eta komunikazioak (%7,1), jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (%7,9) eta finantza jarduerak eta aseguruak (%8,3) dira. Beste maila batean, baina behetik ere, eraikuntza (%14,5) eta ostalaritza (%15,6) ditugu.


Zenbat eta langile gehiago izan lantokian, orduan eta altuagoa da afiliazio tasa. 250 langiletik gorako enpresetan afiliazioa %38,5era igotzen da, eta 1-9 pertsona artekoetan %13,7koa da. Pertsona bakarreko enpresetan %17,9koa da afiliazioa, inkesten arabera. Horietan, ordea, ez dago hauteskunde sindikalik egiteko aukerarik.

Berdin gertatzen da lan baldintzekin. Lan baldintza hobekien dituztenek afiliazioa altuagoa izaten dute. Horrela, lan jardun osoa dutenen kasuan tasa %25,4koa da, partziala dutenena %19,8. Kontratu mugagabea dutenen artean %25,9 dira afiliatuak, tenporala edo epe jakin baterako dutenen artean %18,6. Lan jarduna jarraia dutenen artean %27,2 eta etena %21,3. Antzintasuna ere, zenbat eta handiagoa, orduan eta afiliatu gehiago (2 urte baino gutxiago %13,1, 2 urtetik 10era %8,5 eta 10 urte edo gehiago %32,8).

Kontrako norabidean doan aldagai bakarra txandarena da. Kasu horretan gehiago dira afiliatuak gaueko txandak dituztenen artean (%31,7), eguneko txandak dituztenen artean baino (%23,3).

Eta soldatak alderantzizko U kurba moduko bat egiten du. Soldatan igo ahala, afiliazioa igotzen doa, puntu bateraino, non afiliazioa berriro jaisten doan soldata igo ahala. Kasu horretan, tasa altuena 2.101-3.000 € artean kobratzen dutenek dute (%32,0). Hurrengo bi kategoriak horren inguruan daudenak dira (goitik eta behetik). 4.500 €tik gora kobratzen dutenen artean inork ez du esan afiliatuta dagoenik. Eta 1.000 €tik behera kobratzen dutenen artean %15 ingurukoa da afiliazioa.

AFILIATUAK OKUPAZIO EDO LANPOSTU EZAUGARRIEN ARABERA	
LANPOSTU MOTA	
Enplegatua, nagusiekin eta agindupekorik gabe	24,6
Arduraduna, tailerreko edo bulegoko nagusia	23,2
Tarteko arduraduna, nagusiekin eta agindupekoekin	26,0
Enpresa txikiko, departamentu edo sukurtsaleko zuzendaria	23,1
AKTIBITATE SEKTOREA (SINPLIFIKATUA)	
Lehen sektorea	33,3
Bigarren sektorea	29,2
Hirugarren sektorea	22,7
AKTIBITATE SEKTOREA (XEHEKIA)	
Nekazaritza, abeltzantza, basogintza edo arrantza	33,3
Erauzketa industriak	0,0
Manufaktura-industria	29,2
Elektrizitate, gas, lurrun edo haize egokitu horniketa	33,3
Ur horniketa, saneamendu lanak, hondakin kudeaketa eta deskontaminazioa	50,0
Eraikuntza	14,5
Handizkako eta txikizkako komertzioa, ibilgailuen konponketa	18,4
Garraioa eta bilketa	40,4
Ostalaritza	15,6
Informazioa eta komunikazioak	7,1
Finantza jarduerak eta aseguruak	8,3
Higiezin jarduerak	0,0
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	7,9
Administrazio jarduerak eta osagarriak	29,3
Administrazio publikoa eta defentsa; Derrigorrezko gizarte segurantza	36,6
Hezkuntza	30,6
Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak	31,3
Jarduera artistikoak eta entretenimendukoak	22,2
Beste zerbitzuak	18,8
LAN TOKIAN LANGILE KOPURUA	
Pertsona 1	17,9
2-9 pertsona	13,7
10-49 pertsona	28,1
50-249 pertsona	30,4
250 pertsona edo gehiago	38,5
LAN JARDUN MOTA OSOA/PARTZIALA	
Osoa	25,4
Partziala	19,8
ASTEKO LAN ORDUAK	
20 ordu edo gutxiago	16,3
21-30 ordu	21,0
31-40 ordu	26,3
41-50 ordu	20,4
51 ordu edo gehiago	39,1
KONTRATU MOTA MUGAGABEA/EPE BATERAKO	
Mugagabea	25,9
Tenporala	18,6
LAN JARDUN JARRAIA/ETENA	
Jarraia	27,2
Etena	21,3
GAUEKO / EGUNEKO TXANDA	
Gauetz	31,7
Egunez	23,3
LAN POSTUAN ANTZINATASUNA	
2 urte baino gutxiago	13,1
2 urtetik 10era	18,5
10 urte edo gehiago	32,8
SOLDATA	
600 € arte	15,1
600-1.000 €	16,5
1.001-1.200 €	19,0
1.201-1.600 €	28,7
1.601-2.100 €	32,0
2.101-3.000 €	31,3
3.001-4.500 €	14,3
4.501-6.000 €	0,0
6.000 € baino gehiago	0,0



Iturria: ECVT2009-2010 Aztikerrek egina


LANPOSTUAREKIKO ASEBETETZE MAILA.

Atal honetan 10 aldagai sartu ditugu. Guztietan 0 eta 10 arteko kopuru bat eman behar zuten inkestarek eta erantzun aukera horiek bost kategoriatara ekarri ditugu hemen (8-10, 6-7, 5, 3-4 eta 0-2). Horien barruan afiliatuak nola banatzen diren arabera hiru multzotan sailkatu ditugu:

1. Afiliazio tasa altuagoak dira 3-4 (bereziki) eta 0-2 balioak eman dituztenetan: egindako jarduerarekiko, garapen pertsonalarekiko eta lanarekiko asebetetze mailan gertatzen da hori. Horiekin antzekotasuna du motibazio maila orokorrak, kasu honetan, ordea, 5ean kokatzen direnek ere afiliazio tasa altua dute.
2. Afiliazio tasa altuagoak dira erdian (5a) eta hortik beherako balioetan, antzeko kopuruetan: autonomia mailan eta erabakietan duten parte hartze mailan gertatzen da.
3. Afiliazioa altuagoa da goiko balioak ematen dituztenetan: estres maila, errutina edo monotonia maila eta esfortzu fisiko mailari dagokienean.

Azkenik, aipatu hiru portaera horiengandik ezberdintzen da soldatarekiko asebetetze mailan emandako erantzuna. Kasu horretan, asebetetze maila edozein delarik ere, afiliazioa ez da ia aldatzen.

LANPOSTUAREKIN ASEBETETZE MAILA	
EGINDAKO JARDUERAREKIN	
8 - 10	25,3
6 - 7	21,7
5	26,0
3 - 4	40,0
0 - 2	28,6
GARAPEN PERTSONALA	
8 - 10	24,7
6 - 7	24,2
5	16,0
3 - 4	37,5
0 - 2	32,4
AUTONOMIA MAILA	
8 - 10	23,7
6 - 7	22,9
5	30,6
3 - 4	32,5
0 - 2	28,8
ERABAKIETAN PARTE HARTZE MAILA	
8 - 10	20,8
6 - 7	23,2
5	31,6
3 - 4	33,3
0 - 2	32,0
MOTIBAZIO MAILAREKIN	
8 - 10	21,1
6 - 7	20,6
5	37,2
3 - 4	29,6
0 - 2	44,9
ESTRES MAILA	
8 - 10	28,7
6 - 7	24,1
5	25,9
3 - 4	19,7
0 - 2	20,0
ERRUTINA EDO MONOTONIA MAILA	
8 - 10	34,8
6 - 7	22,2
5	25,7
3 - 4	25,4
0 - 2	17,1
ESFORTZU FISIKO MAILA	
8 - 10	33,7
6 - 7	28,3
5	22,9
3 - 4	22,1
0 - 2	16,5
SOLDATAREKIN ASEBETETZE MAILA	
8 - 10	24,9
6 - 7	24,0
5	23,2
3 - 4	26,1
0 - 2	25,7
LANAREKIN ASEBETETZE MAILA	
8 - 10	23,1
6 - 7	22,3
5	30,4
3 - 4	41,4
0 - 2	37,0



Iturria: ECVT2009-2010 Aztikerrek egina


EKINTZA SINDIKALAREN GAINEKO EZAGUTZA ETA BALORAZIOA.

Atal honetan 5 aldagai sartu ditugu. Guztietan 0 eta 10 arteko kopuru bat eman behar zuten inkestatuek eta erantzun aukera horiek bost kategoriatara ekarri ditugu hemen (8-10, 6-7, 5, 3-4 eta 0-2). Bost aldagai horien analisia eginda, bi joera nabarmenduko genituzke:

1. Afiliazio tasa altuagoak dira ekintza sindikalaren ezagutza maila zenbat eta altuagoa izan, langileen interesen ordezkapena eta enpresan egiten den horien defentsaren balorazioa altua denean eta horrekin lotuta, aktibitate sindikalaren bolumena enpresan altua dela irizten zaionean.
2. Joera banatuagoa da afiliatuta egoteagatik lan baldintzen hobekuntza sumatzen delako usteari dagokionez eta sindikatuei esker enpresan lortutako lan baldintzen hobekuntzaren hautematearen kasuan. Bi horietan, balorazioak oso onak edo oso txarrak direnean afiliazioa altuagoa da, balorazioak erdipurdikoak direnean, aldiz, afiliazioa jaitsi egiten da. Irakurketa hurrengoa izan daiteke: oso balorazio onak direnean, sindikatuen lana eta lorpenak baloratzen dira eta ondorioz, afiliatuta egotea merezi duela pentsa daiteke. Kontrako aldean, nahiz eta lorpenik ez izan, eta aurreko aldagaiak kontuan hartuta, delegatuen edo sindikatuen ekintza beharrezko ikusi eta ongi baloratzen da, ondorioz, afiliatuta egon beharraren hautematea egon daiteke. Ez gaizki ez ondo baloratzen duten horiek, berriz, sindikatuen paperaren inguruko zalantza gehiago izan dezaketela uler daiteke.

AFILAZIOA EZAGUTZA ETA IRITZIEN ARABERA	
EKINTZA SINDIKALAREN EZAGUTZA MAILA	
8 - 10	40,4
6 - 7	43,8
5	33,1
3 - 4	20,8
0 - 2	7,5
LANGILEEN INTERESEN ORDEZKAPENA ETA DEFENTSA ENPRESAN	
8 - 10	58,1
6 - 7	46,9
5	28,6
3 - 4	36,0
0 - 2	19,4
AKTIBITATE SINDIKALAREN BOLUMENA ENPRESAN	
8 - 10	60,0
6 - 7	45,8
5	35,6
3 - 4	21,7
0 - 2	24,8
AFILIATUA EGOTEAGATIK LAN BALDINTZEN HOBEKUNTZA	
8 - 10	61,4
6 - 7	36,1
5	32,6
3 - 4	42,3
0 - 2	46,7
SINDIKATUEI ESKER ENPRESAN LORTUTAKO LAN BALDINTZEN HOBEKUNTZA	
8 - 10	48,1
6 - 7	43,1
5	32,0
3 - 4	30,5
0 - 2	36,7

Iturria: ECVT2009-210 Aztkerrek egina.



7. LANGILEEN IRITZIAK.

Bukatzeko, azken atal honetan, ECVT inkestan langileei lantzen ibili garen gaiaren inguruko bost galdera egiten zitzairen:

EKINTZA SINDIKALAREN GAINEKO EZAGUTZA ETA BALORAZIOA
Ekintza sindikalaren ezagutza maila
Langileen interesen ordezkapena eta defentsa enpresan
Aktibitate sindikalaren bolumena enpresan
Afiliatua egoteagatik lan baldintzen hobekuntza
Sindikatuak esker enpresan lortutako lan baldintzen hobekuntza


Horien ingurukoak azalduko ditugu orain.

7.1. EKINTZA SINDIKALAREN GAINEKO EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Inkestaren arabera, ekintza sindikalaz duten ezagutza batez beste 3,7koa da. Gehiengo batek ez du ezagutzen ekintza sindikala bera (%52,4k 5etik beherako balorazioa egiten du). Eta multzo nagusia gainera, 0 eta 2 arteko ezagutza mailan kontzentratzen da (%38,2). Haien ezagutza 8tik 10era baloratzen dutenak %9,2 dira, guztietan multzorik txikiena.


EKINTZA SINDIKALAREN EZAGUTZA MAILA		
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
8 - 10	94	9,2
6 - 7	209	20,6
5	181	17,8
3 - 4	144	14,2
0 - 2	388	38,2
Guztira	1.015	100,0
Batez bestekoa		3,65

Iturria: ECVT 2009-2010. Aztikerrek egina




Ekintza sindikala zerbait ezagutzen dutenen artean neurtutako lau aldagaitik batek ere ez du lortzen 5a gainditzea. Baloraziorik onena langileen interesen ordezkapena eta egiten den horien defentsa da, nahiz eta batez beste 5aren azpitik dagoen (4,9 zehazki). Hori baino pixka bat beherago dago enpresan aurrera eramaten den ekintza sindikalaren lan bolumenaz egiten den balorazioa (4,7 batez beste). Eta beherago sindikatuek enpresan dituzten lorpenen balorazioa (4,4). Guztietan baxuena, afiliatuta egoteagatik lortzen diren hobekuntzak dira (3,6 batez beste). Hau da, insider-outsider teoria¹¹ defendatzen dutenen kontrako datu argia.

11 Sindikatuak lobby edo presio talde bezala definitzen dituzte, zeinak soilik haien afiliatuen interesak defendatzen baitituzten.



Datuak xeheago aztertuta, langileen interesen ordezkapena eta horien defentsa enpresan batez beste 5aren azpitik badago ere, gehiago batek 5arekin edo gehiagorekin baloratzen du. Multzoko nagusia 6 eta 7 artean kokatzen da (%30,3). Muturretan ordea, gehiago dira 0 eta 2 artean baloratzen dutenak (%17,8) 8 eta 10 artean baloratzen dutenak baino (%12,8).


LANGILEEN INTERESEN ORDEZKAPENA ETA DEFENTSA ENPRESAN		
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
8 - 10	74	12,8
6 - 7	175	30,3
5	125	21,7
3 - 4	100	17,3
0 - 2	103	17,8
Guztira	577	100,0
Batez bestekoa	4,89	



Iturria: ECVT 2009-10. Aztikerrek egina

Aktibitate sindikalaren bolumena enpresan da neurtutakoaren artean bigarren nota onena eskuratzen duena, hau da, sindikatuek edota langileen delegatuek enpresan egiten duten lana, neurri batean behintzat, ondo baloratzen da. Berrito ere gehiago batek 5arekin edo gehiagorekin baloratzen du lan bolumen hori, %38,1 delarik 5aren azpitik baloratzen duena. Aprobaturaren artean, 6 eta 7 artean dago multzo nagusia (%29,5) baina berrito ere muturretan desoreka dago ikuspegi negatiboa dutenen alde (%19,3 0 eta 2 artean baloratzen dutenak eta %11,5 8 eta 10 artean baloratzen dutenak).

AKTIBITATE SINDIKALAREN BOLUMENA ENPRESAN		
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
8-10	65	11,5
6-7	167	29,5
5	118	20,8
3-4	106	18,8
0-2	109	19,3
Guztira	564	100,0
Batez bestekoa		4,74




Iturria: ECVT 2009-10. Aztikerrek egina

Aurretik esan bezala, langileek nahiko hautemate argia dute afiliatuta egotearen inguruan. Hau da, afiliatuta egoteak ez duela lan baldintzetan hobekuntzarik ekartzen. Hori pentsatzen dute langileen %50,8k (5 azpitik baloratu dutenak). Gainera horien artean 0 eta 2 artean baloratu dutenak multzo handiena da, %40,2, hain zuzen.

Beste aldean, afiliatuta egoteak lan onurak ekartzen dituela pentsatzen dutenen artean, gehiengoak 6 eta 7 arteko balorazioa egiten du. Gutxiengoa da 8 eta 10 arteko balorazioa egiten duena (%9,1).

AFILIATUA EGOTEAGATIK LAN BALDINTZEN HOBEKUNTZA		
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
8 - 10	45	9,1
6 - 7	108	22,0
5	89	18,2
3 - 4	52	10,6
0 - 2	197	40,2
Guztira	491	100,0
Batez bestekoa		3,60


Iturria: ECVT 2009-10. Aztikerrek egina



Sindikatuaren eskutik enpresan lortutako lan baldintzen hobekuntzan, langileen interesen defentsarekin eta aktibitate sindikalaren lanarekin gertatzen den bezala, batez beste 5aren azpiko balorazioa egiten dute langileek. Hala ere, honetan ere, gehiengo batek 5 edo balorazio altuagoa egiten dute lortutako hobekuntzen inguruan (%57,4 zehazki). Kasu honetan eta aipatu beste bi balorazioekin alderatuta, 0 eta 2 arteko balorazioetan kokatzen direnak gehiago dira (%26,8, aktibitate sindikalaren bolumena enpresan %19,3 eta langileen interesen ordezkapena eta defentsa enpresan %17,8), hau da, sindikatuaren edo delegatuaren lana baloratzeko muturrera jotzen dutenak gehiago dira enpresan sindikatuak lortzen dituzten hobekuntzak baloratzeko orduan.

SINDIKATUEI ESKER ENPRESAN LORTUTAKO LAN BALDINTZEN HOBEKUNTZA		
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
8 - 10	52	10,1
6 - 7	144	27,8
5	101	19,5
3 - 4	82	15,8
0 - 2	139	26,8
Guztira	517	100,0
Batez bestekoa		4,37

Iturria: ECVT 2009-10. Aztikerrek egin



8. ERANSKINAK

BOTERE SINDIKALAREN HIGADURA

Rafa Diez Usabiga

ORDEZKARITZA ETA EKINTZA SINDIKALA,
TXANPON BERTINEKO BI AURPEGIAK

Gorka Berasategi

HAUTESKUNDE SINDIKALAK NAFARROAN

Igor Arroyo

BOTERE SINDIKALA ZABALTZEKO PROPOSAMENAK

Sophie Béroud

EUSKAL SINDIKALGINTZARI BEGIRADA BAT

Manuel Garí

BOTERE SINDIKALAREN HIGADURA

Rafa Diez Usabiga • LABeko idazkari nagusi ohi eta euskal preso politikoa

TESTUINGURU OROKORRA:

Azken hamarkadetan, sistema kapitalistaren bilakaerak, ahalik eta errentagarritasun handiena –mozkin ekonomikoak- lortzea xedetzat hartuta, ofentsiba iraunkor bat egituratu du Kapitalaren eta Lanaren arteko harremanak desorekatzeko, langileei eskubideak kenduz eta sindikalismoak lan-indarraren tresna kolektibo gisa duen gaitasun kontraktuala ahulduz. Jardunbide bikoitz horrek klase politikoaren oniritzia izan du (eskuina eta sozialdemokrazia); izan ere, hainbat lan- eta gizarte-erreformaren bitartez, lan merkatua, gizarte-segurantza, negoziazio kolektibo eta eskubide sindikalak erregulatu ditu enpresariak eta botere ekonomikoak ezarritako orientazioen alde.

Alde horretatik, botere-eskualdatze ikaragarria gertatu da Kapitalaren alde, eta horri esker ahalmen handia eskuratu du lan-harremanak baldintzatzeko, bai lan-merkatu sartzeari dagokionez (kontratazioa enpresaren “nahierara” eta eskubiderik gabe, eta prekaritatearen igoera soldatako langileen % 30era iritsi arte) eta bai enpresako baldintza soziolaboralak determinatzeari dagokionez. Negoziazio Kolektibo indargabetuz eta lan-baldintzen “liberalizazioa” bultzatuz, eta, halaber, enpresari botere arbitrarioa emanaz lan-kontratu modu unilateralean ezereztzeko.

Horrenbestez, botere ekonomikoak eta beraren “sukurtsal” politikoek goitik behera aldatu dute Kapitalaren eta Lanaren arteko pultsuaren “joko-eremua”, harreman sozioekonomikoak inboluzio antidemokratiko batean desorekatuz; zeregin horretan, sozialdemokraziaren abala izan dute euren alde, zeren eta, “Troiako zaldi” bihurtuta, sindikalismoa suntsitzen eta doktrina neoliberalak finkatzen lagundu baitu. Esanenez, “politikan” oso hedatuta dagoen konparatiba bat eginez, “Estatu-kolpe” bat gertatu dela Kapitalaren eta Lanaren arteko harremanetan. Horrek eredu diktatorial bat ezarri du, eta sindikalismoak egundoko zailtasunak ditu langile-gehiengo sozialaren lan-eskubideak eta eskubide sozial eta ekonomikoak defendatzeko. Errepikatzen dut, Marxen terminoak erabiliz: gaineitura politikoak (botere politiko eta mediatikoak) botere-eskualdatze hori bideratu du, mugimendu sindikalaren zati bat legitimatzaile aktibo edo pasibo gisa bere ondoan izanik –hori ere esan behar da-. Instituzionalki integratutako sindikalismo itunzalea azpiegitura horren osagai bihurtu da, lan-indarraren eskubideetan eta gaitasun kontraktualean gertatutako higadura izugarri hori erraztuz.

Horrenbestez, Kapital/Botere ekonomikoarekin duen pultsuan langile-klaseak irudikatzen duen argazki globalak klase-subjektu atomizatu bat islatzen du (langabeak, prekarioak, pentsiodunak, soldatakoak, autonomoak...); argazkiak erakusten du, halaber, lan-indarra etengabe debaluatzen ari dela, eta antolaketa eta borroka kolektiboaren tresnak (sindikalismoa) zailtasun nabariak dituela langileen kolektibo orokorraren interesak eta errebindikazioak defendatzeko eta konfrontazioan aritzeko.

Hori da errealitate objektiboa, bere espezifikotasunekin, eta horri egokitu behar zaio mugimendu sindikala. Dena dela, kontua ez da status quoaren zerbitzuan diharduten analista askoren diskurtso korrosiboa geure egitea, hau da, sindikalismoaren “modernizazio” bat planteatzea eta oraingo gaineitura politikoan integratzea, baizik eta, batez ere, BOTEREA enpresan eta gizartean BERRESKURATZEKO estrategia bat abiatzea, aldaketa politiko eta sozialaren aldeko mugimendu bat determinatzen duen subjektu autonomo gisa.

“Flash” sintetiko batean adierazita, horixe da testuinguru globala, eta hor aztertu behar dira ordezkapen sindikalaren bilakaeraren datu enpirikoak eta, batez ere, hor birkokatu behar ditugu gure helburuak, dinamikak eta aliantzak, gizarte- eta lan-eskubideak berreskuratzeko, sindikalismoaren protagonismoa indartzeko aldaketa politiko eta sozial bat inplementatzeko tresna gisa, Euskal Herriko DEMOKRAZIA SOZIAL eta POLITIKOaren aldeko borrokan txertatuta.

EUSKAL HERRIA:

Testuinguru orokor horretan, euskal sindikalismoak bere esku-hartzeari heltzen dio klase-subjektu atomizatu batez: soldatako langileak biztanleriaren % 30 dira, prekarietatea % 30etik gertu dago, langabezia-tasa % 14 da eta eragin berezia du gazteriarengan, pentsiodunen kolektibo biztanleria osoaren 26 % da, eta dozenaka mila autonomo eredu berri bihurtuta daude sistema ekonomikoarekin duten esplotazio-harremanean.

Klase-subjektuak bere egoeran eta Kapital/Botere ekonomikoarekin dituen loturetan erakusten duen desglose hori

gutziz baldintzatuta dago Estatuaren/Estatuen egitura eta erabakien mende dagoen esparru batengatik, hots, harreman ekonomiko eta soziolaboralen esparruagatik. Alde horretatik, Institutio autonomikoak espainiar esparru arautzaile horren egitura "zipaioak" dira, zeren modu erabakigarrian baldintzitzen baitute sindikalismo abertzalearen ordezkapen-indarra euskal langile-klasearen errebindikazio laboral, sozial eta ekonomikoen defentsan. Lan Harremanen eta Babes Sozialaren Euskal Esparruaren gutxieneko oinarriak sortzeari begira sindikalismo abertzaleak azken bi hamarkadetan egin dituen ahalginak gorabehera, Gasteizko eta Iruñeko instituzio autonomikoak Madrilen erabakitako erreforma soziolaboral guztien kudeatzaile hutsak izan dira. Horrek erakusten du zer-nolako aukera politikoa eta klasekoa egin duten instituzio horiek kudeatu dituzten alderdi politikoek.

Sindikalismo abertzalearen esku-hartzearen "jokaleku" hori ez da oztopoa izan erresistentzia- eta borroka-lan izugarri bat egiteko, eta horrek gero eta sinesgarritasun eta legitimitate handiagoa eman dio euskal langile-klasearen baitan. Gaur egun, hondarrean dagoen korrante sistemikoa gorabehera, eta botere politiko-ekonomikoa ahalbidetzeko Estatu-egiturarik gabeko euskal nazioaren baldintzapenak gorabehera, esan dezakegu Hego Euskal Herriko mapa sindikala errealtate nazional eta sozial propioaren irudi fidela dela; ondo baino hobeto islatzen du antolaketa- eta errebindikazio-unibertso bizi bat, botere/burujabetza berreskuratzearen eta koordenada politiko eta sozialak aldatzearen aldeko borrokan.

BILAKAERA:

Ordezkapen sindikalaren bilakaerari buruzko txostenean islatzen diren datuek agerian uzten dute zer-nolako esfortzua –"txinaurri lana"- egin duen bere proiektua desberdintasun izugarriko baldintzetan (baliabide ekonomikoak, ondare sindikalaren banaketa) garatu behar izan duen erakunde sindikal honek, enpresarien, instituzioen eta hedabideen aldetik pairatutako etsaitasuna ere kontuan hartuta. Errealitate objektibo horrek lehenengo erreferentzia merezi du, gizon eta emakumeen belaunaldi batzuek egindako lanaren aitortza gisa; izan ere, LAB aktibo estrategiko bihurtu dute sindikatuaren ibilbide independentista eta sozialistan, hots, langile-gehiengo sozialaren eguneroko interesak eta interes estrukturalak defendatzeko bidean.

80eko hamarkadan eta 90ekoaren zati batean, LABek bidea urratu behar izan zuen mapa sindikalean, klaseko sindikalismo abertzalearen erreferentzia bakar moduan, kontrabotereko erreferentzia moduan, Burujabetza Nazionalaren eta aldaketa sozialaren aldeko estrategia global batean integratuta.

Funtsezko etapa bat izan zen: alde batetik, gure proiektu sindikala kuantitatiboki eta modu espezifikoan garatu genuelako; bestetik, LABek gero eta eragimen handiagoa lortu zuelako ELAren eredu sindikal eta posizio politikoaren gainean, sindikalismo espainiarra integrazio instituzionalerantz bideratzen ari zela ikusita.

1994 urteaz geroztik –urte hori euskal sindikalismoaren atzera begirako azterketa guztien inflexio-puntua da-, ELAk bestelako eredu sindikal eta sozial baterantz (konfrontazioa eta kontraboterea) eboluzionatu zuen, eraikuntza nazionalari buruzko ikusmolde bati lotuta; hori egitean, bukatutzat eman zuen fase autonomista eta Burujabetza Politiko, Ekonomiko eta Soziolaboralaren aldeko jarrera hartu zuen, eta horrek bestelako indar-korrelazio bat ekarri zuen. Izan ere, "gehiengo sindikal abertzalea" (ELA eta LABen inguruan) aktibo garrantzitsu gisa agertu zen formulazio eta dinamika soziopolitiko berrietarako, euskal askapen-prozesuan.

Une horretatik aurrera, euskal espazio sindikalak autonomia eta agenda propioa izan zituen, CCOO eta UGTk Madrildik ezartzen zuten kolonizazio estrategikotik askatuta. Hori gai garrantzitsu bat da, zeren berari esker Euskal Herriko borroka soziolaboralak eta sindikalismoak aldaketa politiko eta sozioekonomikoen alde hartutako konpromisoak bestelako dimentsio eta garapena hartu baitituzte.

Azken bi hamarkada hauetan, nahiz eta gorabehera asko gertatu diren "gehiengo sindikal" horren indar sozialean eta eragimen ideologiko-politikoan, kapital gisa hartzen zuen dimentsioaren ikuspuntutik, bai ELAk eta bai LABek beren ordezkapen mailak indartu dituzte Hego Euskal Herriko lurralde guztietan. LABek, gainera, nabarmen egin du aurrera Ipar Euskal Herrian, eta subjektu sindikal dinamiko eta erreferente gisa finkatu da.

ELAk % 2ko aurrerapena izan du EAEn eta bere lidergoa finkatu du, ordezkapenaren ia % 40 lortuta, baina LABek ia % 6ko aurrerapena izan du eta bigarren indar sindikal bilakatu da, CCOOrekin berdinketa "teknikoan", ia % 19rekin. Alde horretatik, "gehiengo abertzale" horrek asko handitu du unionismo sindikalaren aldean zuen diferentziala: 1990ean 14 puntu izatetik 28 puntu izatera pasatu da 2015eko amaieran. Diferentzial horrek hazkunde are handiago bat iragartzen du etorkizunerako, UGTren desagerpen "biologikoarekin" eta CCOOren beheranzko joera finkatuarekin, baldin eta sindikatu horrek ez badu berraztertzen euskal esparruaren aurrean duen jarrera, bai politika mailan eta bai alor soziolaboralean.

Nafarroan ere joera antzekoa izan da, nahiz eta CCOO-UGTren posizio sindikalek, PSN-UPNren administrazioek bultzatuta eta elikatuta (diruz lagunduta), sindikalismo

abertzalearen garapenari aurre egiteko barrera gisa, hegoniari eutsi dioten ordezkapen mailan, nahiz eta nagusitasun hori apurtzen ari den poliki-poliki. ELAren %21,88 eta LABen %14,77 aurrerapenak, bien artean 36,65 lortuta, eta CCOO-UGT binomioaren desgasteak, 50,29 puntura jaitsita, herrialdean poliki-poliki finkatzen ari den eboluzio bat erakusten du.

Ordezkapen sindikalaren joera horri afiliazio sindikalaren igoera gehitu behar zaio, testuingurua gorabehera, hots, lan-desarautzea, krisi ekonomikoa eta sindikalismoak botere ekonomiko, politiko eta mediatikoetatik jasotako astinketak gorabehera. LABen 40.000 afiliatuak eta ELAren 100.000 afiliatuak gure nazioaren bizitza sozial eta politikoan gero eta protagonismo handiagoa hartu behar duen giza kapital bat dira, beren kontzientzia maila eta eragin ideologikoa aktibatuz beren esku-hartze laborala, ekonomikoa eta soziopolitikoan.

Mugimendu sindikal abertzalearen igoera hori azken bi hamarkada hauetan eragina izan duten aldagai politiko, ekonomiko eta soziolaboralen gaitetik gertatu da, hau da, aldagai horiek gorabehera. Beraz, hazkunde sendoa bat da, ordezkapenean aurrera egiteko joera garbi bat, langileen belaunaldi berrien barnean.

Bilakaera horretan, "lur arrasean" egindako lanaren garrantzi izugarria azpimarratuko nuke, zeren sindikatua hor legitimatzen baita egunero, enpresa edo lantoki bakoitzean egiten duen lanari esker. Mugimendu sindikalean ez dute funtzionatzen "lema" handiek, bere "buruzagien" karismak, edota propaganda edo komunikazio kanpaina baten arrakastak... eremu politikoan gertatzen den bezala; aitzitik, aurrerapen sindikala finkatzen duena milaka militantek egunero egiten duten lana da, enpresetan koherentziaz esku hartuz, eta "mikro" eta "makro" errebindikazioak modu egokian uztartzearen alde sindikatuak hartuta duen konpromisoa, eredu sozial eta politiko alternatibo bat lortzeko helburuarekin bat etorrira.

HIGADURA KONTRAKTUALA:

Lehen esan dudana bezala, 94ko otsaileko akordioa eta manifestazioa inflexio-puntu bat izan ziren; izan ere, ekimen horiei esker "gehiengo sindikal abertzalea" erreferente sindikal bihurtu zen, errebindikazio soziolaboralak eta lana eta aberastasuna banatzearen aldeko borroka (35 lanorduak, soldata soziala...) gauzatuz; halaber, erreferente soziopolitiko ere bihurtu zen, Lan Harremanen Euskal Esparrua eta bestelako eredu soziopolitiko bat exijitzeagatik, Euskal Herri burujabearen baitan.

ELAren eta LABen arteko ekintza-batasuna autonomismo-

tik zetozen sektoreak eta Ezker Abertzaleko erakunde bat bildu zituen lehenengo indar-metaketen esperientzia izan zen, eta horrek aldaketa estrategiko bat prestatzeko eta bultzatzeko pedagogia bat piztu zuen ezker abertzalearen baitan. Gehien-go sindikal horren lankidetzak eta aktibazioak fase eta maila desberdinak izan badituzte ere, koitunturen arabera, ukaezina da indar-metaketen eta konfrontazio demokratikoaren erreferentzia hori, alegia, sindikalismo abertzaleak "irudikatu" eta "bistaratu" zuen erreferentzia hori, Ezker Abertzalean gertatutako eztabaida eta aldaketa demokratikoaren eragilea eta gidaria izan dela, bi gai horiek euskarritzat hartuta.

Hori esanda, ekintza-batasunaren potentzial izugarriaz konbentziturata, eta bi sindikatuen aurrerapen kuantitatiboa aztertuta, funtsezkoa iruditzen zait kontsideratzea gure gaitasun kontraktualean pairatzen ari garen desgaste kolektiboa, bai lantokietan eta bai gizartean, errebindikazio laborala eta sozioekonomikoen defentsari dagokionez. Hori bereziki esanguratsua izan da azken 2-3 urteetan.

2008an hasitako krisiaren ondoren, Ezker Abertzalearen aldaketa estrategikoaren ostean jokaleku politikoan gertatutako eraldaketarekin batera, gehien-go sindikal abertzaleak erresistentzia fase bat izan zuen, Estatuaren erreforma eta erabaki ekonomikoei erantzuteko, borroka eta mobilizazio maila handi batez (Greba Orokorrak), euskal espezifikotasun nazionala indartuz eta potentzial sozial garrantzitsua erakutsiz. Erresistentzia-fase horretan, uste dut gehien-go sindikal abertzaleak ez zuela ondo egituratu eraso sozial eta laboralen gaitzespena, aldaketa sozialaren eta burujabetza politikoren arteko lotura ezin askatuzko lotura gisa modu pedagogikoan inplementatuko zuen diskurtso eta proposamen alternatibo batez, klase-boterea (eskubide laborala eta sozialak) sindikalismoarentzat eta langile-klasearentzat berreskuratzera zuzenduta.

Aldaketa politiko eta sozialaren aldeko borrokari uztartuta egongo zen "alternatiba" horren faltaren eraginez, gehienbat erresistentzialista zen borroka hori agortuz joan zen eta sindikalismo abertzalea beste ziklo batean sartu zen; ziklo berri horretan, ekintza-batasuna ez zenez modu estrategikoan dimentsionatu negoziazio kolektiboan, eredu sozioekonomikoan eta esparru politikoan, gure gaitasun kontraktuala are gehiago desgastatu zen enpresan eta gizartean, hasieran aipatutako eraldaketa-testuinguruan, hots, Kapital/Lan, Botere Ekonomiko-Politiko eta Gizartearen alorreko eraldaketen testuinguruan. Hori oso egoera arriskutsua da, eta egokitzapen espezifikoei eskatzen ditu erakunde sindikal bakoitzaren alde-tik, baina batez ere izaera estrategikoko ekintza bateratu bat.

Hori da nire kezka nagusia, LAB eta ELAren ordezkapenean gertutako bilakaera poztasunez egiaztatu ondoren, horrek potentzialtasun eta ardura sozial eta politiko handia ema-

ten diolako gehiengo sindikal abertzale horri. Helburu sozial eta laboral batzuen zerbitzuan jarritako tresnak gara, langile-gehiengo sozialaren interesekin bat etorrira; horrenbestez, hazkunde kuantitatibotik harago, lau urte barru ehuneko bat edo bi gehiago izatetik harago, kezkarria iruditzen zait motor sindikal hori gripatuta geratu ahal izatea herriarentzat eta klase-kolektiboarentzat funtsezkoa den une batean. Gure ordezkapenari begira egon gintezke, eta aldi berean ikusi errebindikazio laboral eta ekonomikoaren alde borrokatzeko eta eskubideak berreskuratzeko (eredu sozioekonomikoa)-aldaketa politiko eta sozialeko prozesu baten atal autonomo gisa ditugun indarra eta protagonismoa azkar ahultzen direla.

ETORKIZUNARI BEGIRA:

Ordezkapenean dugun gehiengo horretatik, gure kapital militantearen eta gure afiliatuen aktibazio egokitik, bi sindikatuok ekintza-batasunaren dimentsionamenduari heldu behar diogu NAHITAEZ. Indarrak batu behar ditugu, gehiengo sindikal berri horren aldeko konfiantza eta ilusioa sortu behar ditugu, helburuak esku-hartzearen maila guztietan kokatuz eta enpresan zein gizartean indartzen gaituen konpromiso kolektibo bat biziberrituz. Indarrak batzea eragimen sozial eta politikoa biderkatzea da.

KLASE-BOTEREA BERRESKURATZERA zuzendutako lankidetzaren estrategikoa behar dugu, eta horren garapenak ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa indartu behar ditu lantokietan, eta, horri lotuta, protagonismo sindikala areagotu behar du errebindikazio nazional eta ekonomikoetan, Estatutik datorren eredu neoliberalaren inposaketa apurtzeko behar dugun Burujabetza Politiko eta Ekonomikoari estu lotuta.

Sindikalismo abertzaleak, laneko errebindikazioak enpresetan egunero defendatzeaz gain, aldaketa politiko eta sozialaren aldeko subjektu zabal baten alderdi AUTONOMOA izan behar du, eta badiu gaitasun eta ardura nahikoak ezinbestekoa den borroka ideologikoa garatzeko, horren bidez Burujabetza Politikorako beharra (botere politikoko tresnak) uztartzeko eredu sozioekonomiko alternatibo batekin, eta, beraz, langile-klase sozialaren klase-boterea (eskubideak) berreskuratzeko borroka baten beste fase batera iritsi ahal izateko. Nire ustez, eta etorkizunari begira, badu potentzialtasun handia Euskal Estatu baten beharrezko konfigurazioan aritzeko, erdu sozial alternatibo bat bideragarri egiteko.

Horrenbestez, koiuntura politiko eta sozial honetara ordezkapen-pisu eta antolaketa-kapital esanguratsuekin iristen gara, eta hori lagungarria izan behar da klase-sindikalismo abertzalea eragile sozial gisa kokatzeko, eragimen eta ekarpen aldetik. Autonomismotik Burujabetza Politiko eta Ekonomikora daraman trantsizioak erronka handi eta ugari hamarkada bat aurkezten digu, zeren burujabetza hori eredu sozial demokratiko baten sinonimoa baita, aberastasunaren banaketan eta eskubide soziolaboralen aitortzan; horri lotuta dago, gainera, Kapitalaren eta Lanaren arteko gatazkaren eraldaketa etengabea, hots, kolektibo sindikalaren esku-hartzea determinatzen duen eraldaketa etengabea.

Beraz, aurrerapauso bat egin behar dugu. Gure egoerari eta gure ekarpenari ikuspegi egokiz begiratu behar diegu, gure sustrai ideologikoak indartuz eta antolaketa-eredua eta gizartean eragiteko mekanismoak egokituz. Ausardiaz eta dimentsio estrategikoz begiratu behar diogu sindikalismo abertzalearen lankidetzari. Posible da, beharrezkoa da, baina, gainera, ez du alternatibarik aurrez aurre ditugun erronken tamaina ikusita.

ORDEZKARITZA ETA EKINTZA SINDIKALA, TXANPON BERDINEKO BI AURPEGIAK

Gorka Berasategi • LABeko exekutibako kidea

Ez da ohikoa Euskal Herrian ordezkariak sindikalaren inguruko tamaina honetako azterketa bat plazaratzea. Hauteskunde sindikalen afera sindikatuaren aparatuetako bileretan tratatzen den gai ezezagun gisa agertu da beti, gizartean berebiziko eraginik izan ez duena. Gainera, ordezkariak sindikala Hego Euskal herrian nahiko argazki estatikoa eskaini digu azken hamarkadetan, aldaketa gutxi alegia; ELAk EAEn ordezkariak %40ren inguruan mantendu du eta Nafarroan sindikatu espainolistik urteetan izan dute ordezkariaren gehiengo.

Argazki horrek ordea azken urteetako zikloan aldaketan izango ditu behingoz. Nafarroan aldaketa estrukturalak ematen ari dira ordezkariak sindikalean. Sindikatu espainolisten hegemonia bukatzeko zorian dago, gainera sindikatu abertzaleen mesedeetan. Bigarrenik, LAB izango da hemendik aurrera EAEn bigarren sindikatu. Gure sindikatuarentzat mugari historikoa da CCOO EAeko ordezkariak sindikalean garaitzea; ELAren atzetik beti egon da sindikatu espainolista bat.

Sindikalgintza abertzalea indartu dela esan dezakegu, baina are eta gehiago sindikalgintza indartu dela esan beharra dago. Geroago azalduko dudan bezala, argazki estatiko hori mugitu izanak ekintza sindikalarekin zerikusi handia izan du. Azken urteetako testuinguru zail honetan sindikatuok erronka handien aurrean aurkitu gara; sindikatu guztiok ordea ez diegu erronka horiei modu berdinean aurre egin. Hainbat faktoreen artean, ordezkariak sindikala estrategia sindikala dela eta baldintzatua izan dela ere esan dezakegu. Aukera sindikal batzuen gainbehera eta beste batzuen gorakada eskaintza eta proiektu sindikalarekin zerikusia ere badutela alegia, datuetan oinarritzen diren joera sindikalek hori adierazten dute behintzat.

Ez dezagun ahaztu ordea Hego Euskal Herrian Espainiako estatuan ezarrita dagoen ordezkariak sindikalaren sistema indarrean dagoela. Berezitasun txiki batzuetaz harago, hemen ezin dugu beste ordezkariak sistemarik martxan jarri, eta horrek ere urteetan egon den argazki estatiko hori ez mugitzeak asko lagundu du.

ORDEZKARITZA SISTEMA, LEHIA SINDIKALA

Indarrean dagoen ordezkariak sindikala sistemak lan zentroetako hauteskunde sindikalen emaitzak kontutan hartzen ditu soilik. Horrek modu esanguratsu batean baldintzatzen ditu ordezkariak zenbakiak; soilik hauteskunde sindikalak egiten diren lan zentroetako langileek parte hartzen dute ordezkariak sindikala neurtzeko sisteman. Enpresetan langileen ordezkariak organoak (enpresa batzordeak edo pertsonal delegatuak hain zuzen) aukeratzeko hauteskundeetako emaitzak erabiltzeko hainbat muga ezartzen ditu parte hartzeari dagokionez. Alde batetik sei langile baino gutxiagoko enpresetan ezin dira hauteskunde deialdirik egin eta bestetik, nahiz eta sei langile egon, hautagairik ezean normalean sindikatuok ez ditugu hauteskunde prozesuak bultzatzen. Hauteskunde sindikalen mundutik kanpo agian aipatutako bi faktore horien eragina neurtzea zaila izan daiteke, baina baldintzapen handiak izan badira. Txostenean aipatzen denez Hego EHko langileen %20 inguru hauteskunde sindikaleatik kanpo geldituko litzateke enpresa tamaina dela eta. Bestetik, 6 eta 49 langile arteko enpresetan da ordezkariak sindikal tasa baxuena ematen den eremua; 10 enpresetatik 9 tamaina horretakoak dira. Enpresa tamaina honetan aurkitzen ditugu sindikatuok hauteskunde sindikalak bultzatzeko arazorik nagusienak. Mota hauetako enpresetan ematen da parte hartze maila txikiena (abstentzioa edo desafekzioa), nahiz eta hauteskundeak bultzatuak izan.

90. hamarkadatik aurrera ezagutzen hasten dira sindikalgintzan Pyme delakoak (Pequeña y Mediana Empresa gaztelaniaz). Aurretik sindikalgintzak enpresa handi industrialetan zein sektore publikoetako esparruetara mugatzen zuen bere eragina; enpresa txikietako langileei herrialde mailako hitzarmen sektorialak aplikatzen zitzaizkien, sindikatuak negoziatzen zituztenak hain zuzen. Enpresa handietan enpresa batzordeek eragin handia zuten, negoziazio kolektibo esparruez haratago ere (kontratazioak adibidez). Berrindustrializazioak ordea enpresa tamainak txikitzen behartu zituen hainbat enpresa, eta beste hainbat enpresei bere ateak ixtea. 90. hamarkadarekin batera esan dezakegu hasten direla pymeetan lehenengo hauteskunde prozesu sindikal "masiboak". Sindikatu indartsuen aparatuek ordezkariak sindikal berria

lortzeko moldaketa organizatiboak egiten dituzte eta horrek enpresa txiki eta ertainetan hauteskunde sindikalen prozesuak biderkatzen ditu.

Azken bi hamarkada hauetan beraz ordezkariak sindikalaren afera lehia sindikala bihurtu dela esan dezakegu. Sindikatuok ordezkari sindikalen kopurua handitzen dugunean gure atxikimendua handitzen dugu, horiek dira jokoaren arauak. Estatu espainiarrean indarrean dagoen sistemaren arabera, sindikatuon indarra ez da afiliatu kopuruagatik neurtzen, ordezkari kopuruagatik bai ordea. Horrek azaldu dezake afiliazio tasa eta ordezkariak tasaren arteko diferentzia nabaria.

Azken lan erreforma arte, non negoziazio esparru sektoriala erabat hankaz gora jarri zen, sindikatuon estrategiak oso negoziatio kolektiboari lotuta izan dira. Horrek ezinbestera hauteskunde sindikalen esparrura eramaten zuen lehia; zenbat eta ordezkari gehiago are eta indar gehiago izango dut hitzarmena negoziatzeko. Gero azalduko dudana bezala, gaur egungo testuinguruan horrek bere indarra galdu du, baina azken bi hamarkada hauetan hauteskunde sindikal esparrua erabat baldintzatu duela esan dezakegu.

Garai horietan egindako apustuek indartu zuten ELA eta beste maila batean CCOO sindikatuak EAEn eta UGT Nafarroan, azken hau erregimenaren eskuetatik helduta. Garai honetan lortu zuen LABek EAEn ordezkariak nahikoa (%15); enpresa handietan eta sektore publikoan lortutako emaitzak zirela eta. EAEn zentratuz, lehia sindikal berezia ematen zen hegemonikoa zen ELA eta gorantz zetorren CCOOen artean. Lehia hori enpresa txikietan egiten ziren hauteskunde prozesuetan ematen zen, bi sindikatu hauen artean estrategia kontrajarriak irudikatzen zirelarik. Irudi horren atzean ordea, erabaki organizatibo sendoak zeuden, bi sindikatuak bazekitelako hegemonia sindikala enpresa txikietan jokoan zegoela.

Gainontzeko Europako beste herrialdeetan ez bezala, indarrean daukagun sistemak sindikatuoi hauteskunde sindikalean lehiatzera garamatza. Frantziako sistemak aldiz ordezkariak sindikala langile guztien bozketa bidez ateratako emaitzak kontutan hartzen ditu (Prud'hommes hauteskundeak). Enpresetan ordezkariak organoak aukeratzen dira lan sindikala egiteko, beraz lehia sindikala beste maila batzuetan kokatzen da, ez enpresetako hauteskunde sindikalean. Hala ere Frantziako Gobernuak sistema hori berrikustekotan dabil, langile guztiek parte hartzen duten hauteskunde prozesu horiek bertan behera utzita.

2008 urtea arte etengabe igo izan da ordezkari kopurua. Hala ere krisialdi ekonomikoak, beste hainbat gauza bezala, hauteskunde sindikalen mundua erabat baldintzatu egin du. Nabaria da langileok sindikatuetatik zerbait ezberdina espero

duela eta antzinako errezetekin nekez aurre egingo diegula sindikatuok sortutako behar berri horiei.

EKINTZA SINDIKALA ORDEZKARITZAREN GILTZA

Esan bezala krisialdi ekonomikoak lan harremanetan eragin handia izan du Espainiako estatuan, egin diren lan erreformak oso bortitzak izan direlako. Erreforma guzti horiek hauteskunde sindikalean eragina izan dute nola ez. Baita esparru batzuetan eman den enplegu galerak ere; bereziki esparru industrialetan ordezkari kopurua asko jaitsi da. 2008tik 2014ra ia 4000 ordezkari gutxiago aukeratu dira, batez ere itxita enpresak eta langileen errolda jaitsierak direla eta. Gainera langileen artean sindikatuak lotura gutxitu egin da eta lehen hautagaitzak aurkezteko arazoak zeuden tokietan orain zailtasunak biderkatu egin dira. Lehen esan dudana bezala hauteskunde sindikalen estrategiak eta negoziatio kolektibo sektoriala oso lotuta egon dira Hego Euskal Herrian. Azken lan erreforma indarrean sartzen denean eta 2013 uztailaren hitzarmen askoak indarra galtzen dutenean estrategia batzuen agorpena agerian gelditzen da.

Ordezkaritzaren azterketaren atalean, txostenak ziklo ezberdinetan banatzen ditu ordezkariak tendentziak. Aipagarria iruditzen zait azken zikloan ateratzen diren emaitzak; ez bakarrik LAB asko indartzen delako, baita ekintza sindikalaren proiektuen garaia iradokitzen duelako. Azken bi urteetako emaitzak oso esanguratsuak dira eta proiektu sindikalen osasunaz asko esaten dute. CCOO eta UGTren gainbehera ez da kasualitatea izan, beraien ekintza sindikala lan zentroetatik oso urrun kokatzen dela kontutan hartzen badugu. Nafarroan CCOO UGTekin lehiatu sartu da, azken hauen gainbehera aprobetxatu nahian baina EAEn CCOO beheranzko ziklo batean murgilduta dago, bere garaian izandako %20tik oso urrun. Sindikal gintza abertzalean da azken ziklo honetan gehien indartzen dena, batez ere LAB, ziklo honetan Hego Euskal Herrian bigarren sindikatu garelarik (2014-2016 urteetan zehar aukeratutako ordezkariak kontutan hartuta). Tartean epealdi trinko bat eman dela kontutan hartzen badugu, kontutan hartzeko tendentzia zalantzarik gabe.

Hasieran ordezkariak sindikalaren argazki estatiko hori mugitzen ari zela aipatu dut. Mugitzen ari da, ez bakarrik EAeko ordezkariak podiumean aldaketak egon direlako, baizik eta sindikatu espainolisten eragina Hego Euskal Herrian asko gutxitzen ari delako. Zalantzarik gabe Nafarroan dago oraindik salbuespena, baina gaur egun izan duten gehiengo absolutua galtzeko zorian daude. Baita EAEn daukaten eragina ere, azken finean lan zentroan egiten dugun lan sindikala hutsaren

hurrengoaren denean, edo ekintza sindikalaren estrategia lan zentroetatik geroz eta gehiago urruntzen baduzu, ez daukazu hauteskunde sindikaletan aurkezteko estrategia eraginkorrik.

Txostenean aipatzen den ECTV inkestan Hego Euskal Herrian afiliatuak dauden langileen zenbait aldagai aztertzen dira. Niretzat azpimarragarriak direnak hauexek dira; orokorrean lan baldintza kaxkarrak edo lanarekin asebetetze maila baxua duten langileen dira eta beste maila batean ekintza sindikalaren ezagutza edo ekintza sindikalaren bitartez lan baldintzen bilakaera ikusi dutenen langileak. Hemen dago atxikimendu sindikalaren koxka, ekintza sindikalean daukagun gaitasun eta eskaintza alegia.

Azken hau LABentzat ez da zerbait berria. Historikoki gure indarguneak ekintza sindikala egiten diren guneak izan dira. Gune hauten indartzen hasi zen sindikatua lehenengo hauteskunde zikloetan eta enpresa txikietan ere horrela hasi ginen poliki-poliki muturra sartzen, beste sindikatuen ordezkariak zeuden tokietan hauteskundeak irabaziz. Fase hori ere guretzat amaitu da; azken hauteskunde zikloak ordezkariak sindikala handitzeko gako berriak eman dizkigu argi eta garbi.

Alde batetik ordezkari sindikalak dauden tokietan ekintza sindikal eskaintza eraginkorra egin behar diegu langileei, aktibazioan oinarritutako ekintza sindikala. LAB erreferentzia sindikala bilakatu behar dugu negoziazio kolektibotik harago, guztion lan eskubideen defentsan. Horretarako lan zentroetan antolaketa tresna sendoak bilatu beharko ditugu eta langile guztien parte hartzea bultzatu, borrokarako grina sortu. Bestetik inoiz antolatu ez diren guneetara gure eskaintza sindikalaren bidez iritsi behar gara.

Azken honetan daukagu benetako erronka. Garbi dago ordezkari sindikalak lortzeko langileen aktibazioa bilatu behar dugula. Horretan oinarritu behar da gure hauteskunde inguruko estrategia, horrela lortuko dugu gure proiektuaren zabalpena; langileak beraien aldarrikapenen parte sentiarazi behar ditugu beraien aktibazioa lortzeko. Horren ondorioz etorriko da inplikazioa eta langileen antolaketa.

Sindikalgintza abertzaleak orokorrean eta LAB bereziki ekintza sindikal gaitasun handia daukagula erakutsi dugu urte hauetan zehar. Hori da daukagun atxikimendurako armarik eraginkorrena, gure proiektu sindikalarekin lan zentroetan eta gizartean langileak antolatu eta LAB erreferentzia nagusia bilakatzeko. CCOO eta UGT sindikatuen eskaintza sindikala agortuta dago, egiten ez duten ekintza sindikala dela eta. Honek gure alde joka dezake, baina ezin gara egon besteen emaitzen inguruan zenbakiak egiten. Guretzat hauteskunde sindikalak langileak antolatzeko tresnak dira, eskubideen defentsan aritzeko tresna alegia.

Horregatik garrantzitsuena gure bidearekin jarraitu eta langileei sindikalgintzan parte hartzeko eskaintza egiten jarraitu behar dugu. Ordezkariak mugari garrantzitsuak lortuko ditugu ziklo oso baten amaiera gisa; sindikatua errealitate bat izateaz harago erreferentzia nagusi bihurtu da. Ziur nago testuinguru ekonomiko eta sozial honetan ordezkariak lehiak jarraituko duela. Gainera lehia hori gaur egun antolatuak ez dauden eremuetan oinarrituko dela ere ziurtasun osoz esan dezakegu. Gakoa beraz eremu horietara eskaintza sindikal indartsu batekin agertzea da, hegemonia sindikala proiektu sindikalen baitan eztabaidatu dadin, ordezkariak zenbaki huts eta hotzetan baino.

HAUTESKUNDE SINDIKALAK NAFARROAN

Igor Arroyo • Nafarroako LABeko bozeramailea

Nafarroako hauteskunde sindikalek, EAEkoekin erkatuz gero, elkarri loturiko hiru berezitasun agertzen dituzte: lehenengoz, ordezkariak sindikala enpresa gehiagotan; bigarrenez, klase sindikalismo abertzalea mugatzeko, UGT-CCOO blokeak jasotzen duen babes instituzionala; eta hirugarrenez, hauteskunde borroka latza UGT-CCOO blokearen eta sindikalismo abertzalearen artean –kontuan hartu behar da 2009tik, hau da, “krisiaren” hasieratik hona UGT-CCOO blokea gainbeheran dagoela eta sindikalismo abertzalea, ordea, gorantz doala eta bere historiako daturik onenetan dagoela-.

Lehenbiziko fenomenoari dagokionez: 6-9 langile arteko enpresetan, langileek hala adostuz gero, hauteskundeak egin ahal dira; honelako enpresen %53,71ean ordezkari sindikala dago, hortaz, enpresa hauetan guztietan aritzen diren langileen %40,31k ordezkari sindikala dauka. 10-49 langile arteko enpresetan sindikatuek hauteskundeak deitu ahal dituzte langileen gehiengoaren alde aurretiko akordiorik gabe; honelako enpresen %53,67an ordezkari sindikalak daude, hortaz, enpresa hauetan guztietan aritzen diren langileen %59,72k ordezkari sindikala dauka. EAEkiko alde handia dago, enpresa mota biak kontuan harturik (6-49 langile artekoak, alegia), enpresen %35,9an baino ez direlako hauteskundeak burutu EAEn. 50 langiletik gorako enpresetan, aldea ez da hain handia, nahiz eta egon badagoen: Nafarroan enpresen %84an ordezkari sindikalak daude, hau da langile guztien %88,7 ordezkariak dago, eta EAEn, aldiz, enpresen %80,4an, hau da, langile guztien %86,26.

Fenomeno honen zergatia arestian aipatutako beste bi faktoreetan bilatu behar da: UGT-CCOO blokeak, oro har, eta enpresa txikietan UGTk bereziki, jasotzen duten babes instituzionalean; eta bloke honen hegemonia pitzatzeko LAB eta ELAk egiten dituzten ahaleginetan. “Babes instituzional” esapidea bere adiera zabalenaz erabiltzen dugu; hau da, ezarritako botereen bultzada aktiboa, Gobernuaren, UPN-PSNren, patronalaren eta gertuko komunikabideen babes esplicitua, “erregimen” deitu izan denaren babesa, alegia. UGTk eta CCOOk urtero poltsikoratu dituzten seina milioi euroen bitartez birsortze korporatiborako egitura sustatu ahal izan dute, hamaika liburuen bitartez enpresetara jotzen eta “trebakuntza eta enplegu ajentzia” moduan proselitismo lotsagabea egiten dutelarik.

Enpresa txiki askotan jabeek nahierara ezartzen dute UGTko ordezkaria, maiz senidea edo laguna, eta langileak mehatxatzen dituzte kontra egin ez dezaten; izan erre, UGT Nafarroako lehen sindikatuak da enpresa txikietan daukan ordezkariak mailari esker (%30,41, 2016-04-30ean), komiteetan daukana baino askoz altuagoa (%23,29). Enpresa handietan, batez ere industria sektorekoetan, giza baliabideen sailak UGTk eta CCOOk aurkezten dituzten pertsonak kontratatzen dituzte, VWen kasuan, esaterako, kontratazioen hiru herenak banatzen dituzte (heren bat zuzendaritzakoen senideentzat, heren bat UGTrentzat eta beste herena CCOOentzat; azken aldi honetan zuzendaritzakoen senideak ere afiliatu behar direla ezartzen ari dira). Enpresa txiki zein handietan honen ordaina bake soziala izaten da: enpresa txikietan ekintza sindikala egiteari ukoa eta enpresa handietan beharrezkoak diren hitzarmen edo akordioak sinatzeko konpromisoa.

Erregimenaren aldeko apostu estrategikoa UGTk zein CCOOk egiten duten arren, ezberdintasunak daude bi sindikatuen artean: UGTko ordezkari eta afiliatu askok UPNri botoa ematen badiote ere, UGTko burokraziak PSNko “eskuineko aldearen” funtzioak egiten ditu eta enplegua erregulatzeko espedienteak patronalarekin zuzenean negoziatzen ditu; CCOOk, ordez, nahiz eta nafar-espainiar dogma eta “elkarrizketa soziala” bere egin, jarrera autonomoagoa dauka. UGTk bere emaitzarik onenak ‘90. hamarkadaren hasieran lortu zituen (%36,74 1993an), PSNren lidergo instituzionalari loturik, baina handik aurrera ordezkariak galtzen joan da CCOOen mesedetan; CCOOk Estatu osoan daukan lehen postua eskuratu nahi du Nafarroan ere.

“Erregimenaren blokearen” aurrean, sindikatu abertzaleek eginahalak egin dituzte “apartheid sindikala” gainditzeko eta hauteskunde sindikaletako emaitzak hobetzeko; bide honetan presioak, txantaiak eta hautagaien kalerapenak jaso badituzte ere. EAEko hauteskundeetan ere sindikatuen artean lehia egon arren, Nafarroan lehia hau gogorragoa izaten da. Eremita bietako hauteskundeetako inpugnazioak direla-eta burutzen diren arbitrajeen kopuruak argi uzten digu hau: Nafarroako hauteskunde kopurua EAEkoen erdia izan arren (827 Nafarroan, 1.681 EAEn), 2015ean 205 arbitraje egin ziren Nafarroan eta EAEn 229. Honetaz gain, CCOOk lehen postua erdiesteko hainbesteko grinaz aritzen da, ezen hauteskundeak begirako sindikatuen arteko akordioa apurtu baitu. Akordio

honek hauteskundeak ez judizializatzea ezartzen zuen, EAEn bezala, eta, hortaz, arbitrajeetako askok epaitegietan amaitzen dute.

Testuinguru honetan, erregimenaren gainbehera sozialak, zein "krisiari" emandako erantzunean erreferentia izan den sindikalismo abertzalearen bultzadak, bi blokeen arteko indar korrelazioa aldatu dute, astiro, baina iraunkor: 2009an, UGTk eta CCOOek artean ordezkariak sindikalaren %55,89 zeukaten, LABek eta ELAk, ordea, %33,7; hala ere, azken datu ofizialen arabera (2016-04-30) UGT eta CCOO %49,71ra eta LAB eta ELA %36,93ra heldu dira. Hau da, sei urtetan zehar bloke bien aldea 22 puntutik 13 puntura jaitsi da. Sindikalismo abertzalearen bigarren hedapen aldia da hau, lehenbizikoa 1993 eta 1998 urteen bitartean gertatu zen eta. 1993an bloke bien arteko aldea izugarria zen: UGT eta CCOO, %56,73; LAB eta ELA, %25,59; 31 puntu,

alegia. Eta, esan dugunez, momentu honetan 13 puntutik beherakoa da.

Indar korrelazioaren aldaketa hau 2009an hasi eta hilabetetik hilabetera aurrera doa. Zaila da honen amaiera aurreikustea, are gehiago UGTk eta CCOOek dozenaka liberatu galdu dituztela ikusita. Izan ere, sindikatu hauek Gobernuarekin zeuzkaten hitzarmenen erdiak deuseztatuak izan dira eta baliteke gainontzekoak ere etorkizunean deuseztatzea.

Datu hauek are esanguratsuagoak dira kontuan hartzen badugu Erdialdean eta Erriberan –nafarren heren bat bizi den tokian- UGTk eta CCOOek ordezkariaren bi heren baino gehiago daukatela. LABek eta ELAk Nafarroako ipar-mendebaldean euren hegemoniari eusten diote, eta momentu honetan Iruñerriko lidergoa lehian dago bloke bien artean.

BOTERE SINDIKALA ZABALTZEKO PROPOSAMENAK

Sophie Béroud • Lyon 2 Unibertsitateko zientzia politiko irakaslea

Ipar Hegoak burutu duen azterketak informazio sendo eta egokiak dakartza estrategia sindikalaren inguruko hausnarketa egin ahal izateko, 2008ko krisiak ezaugarritu duen egoera sozial eta ekonomikoan. Azterketa honek ederto azaltzen ditu azkenaldi honetan Hego Euskal Herriko enpresen egituraketetan suertatu diren bilakaerak zein lan merkatuan gertatu diren aldaketak. Honetaz gain, hainbat gako ematen ditu sindikatu ezberdinen ezarpenaren eta hauteskunde emaitzen garapenaz.

Hasteko, azterketa honen ekarpen nagusietako batzuk aukeratuko ditugu eta, ostean, ordezkariak sindikalaren inguruan eta ordezkariak honetarako burutu behar den lan militantearen inguruan planteatzen diren zenbait galdera zentratuko ditugu.

EMAITZA ESANGURATSUENETAKO BATZUK

Hainbat iturritatik datu estatistikoak biltzen dituen lan honen lehenbiziko ekarpenetako bat Hego Euskal Herriko berezko ezaugarri batzuk adieraztea da.

Hasierako datu sorta batek afiliazio tasa ematen du aditzera; tasa hau Hego Euskal Herrian (%23,8) altuagoa da Espainian (%19) eta Frantzia baino (%8). Lan hitzarmenen babesa daukaten soldatapekoen tasa %53 da. Datu hauek mugimendu sindikalak Hego Euskal Herrian izan zuen indarra, sortu ahal izan zituen indar harremanak eta oraindik daukan babesa agertzen dute. Enpresa txikietako (hau da, 10 eta 49 lagun arteko enpresetako) ordezkariak sindikala ere beste herrialde batzuetan baino handiagoa dela ikus daiteke. Emaitza hau oso esanguratsua da: herrialde guztietan enpresa tamaina aldagaiak sindikalizazioari zuzen eragiten dio. Enpresa batean zenbat eta langile gehiago egon, orduan eta aukera handiagoak daude sindikatu aitortua izateko eta sindikatuak ekimen gehiago egiteko; simetrikoki, zenbat eta langile gutxiago, orduan eta garrantzitsuagoak dira pertsonen arteko harremanak eta errazago izaten da diskriminazio eta errepresio moduzuzenak gertatzea. Hego Euskal Herrian enpresa txikien kopurua oso altua da eta hauetan dagoen sindikatuen presentzia handiak sindikalismoak lurraldean eta jendartearen duen ezarpen inportantea erakusten du.

Bigarren datu sorta enpresen bilakaerari dagokio. Azterketak erakusten duenez, soldatapekorik gabe pertsona fisiko moduan erregistratu diren enpresen kopurua 2010etik 2015era biziki handitu da. Honekin ere, 6 langiletik beherako enpresa kopuruaren garrantzia adierazten du: 2015ean enpresa guztietatik %35,3 dira sei langiletik beherakoak. Kasu honetako enpresetan langile gutxiago daude lehen aipatutakoetan baino. Gainera, honelakoetan ez daude hauteskunde sindikalak egitera legez behartuak. Ezberdinak izanda ere, elkarri lotuta dauden puntu bi aipatzea interesgarria da. Lehenengoz, autonomo faltsuen fenomeno, hau da, langabezian ez gelditzeko, euren enpresa propioa sortzen duten pertsonak, baina, benetan beste enpresa bati zerbitzua ematen diotena (oro har, lehen soldatapeko moduan lan egiten zuten enpresa berbera izaten da beste enpresa hau). Langile hauek, hortaz ez daukate soldatapekoei dagokien babes sozial edota lan eskubiderik, hau da, zelanbait soldatapeko estatutotik eta soldatapeko multzotik kanpo daude. Honek sindikalismoari galdera eta erronka hau dakarkio: garrantzitsua al da autonomo faltsu hauekin harremanak izatea, enpresario txikitat ez, baizik eta menpekotasun handiz aritzen diren langile autonomotzat jotzea? Bigarrenez, Hego Euskal Herrian sei langile baino gutxiagoko hainbeste enpresa egonda, hauetan eragiteko ekintza sindikal moduak zelan egokituko ditugun daukagu mahai gainean. Zelan helduko gara enpresa txiki hauetako langileengana? Egokia al da langile hauekin harremanak izateko bizi diren tokietan ekimen sindikalak burutzea (lan eskubideen inguruan informatzeko karabana ibiltariak, adibidez)?

Galdera hau atxikimendu sindikal txikiagoa izan ohi den sektoreei begira ere egin genezake. Ez da harrizkoa, baina industria sektoreak dauka da sindikalizazio tasarik altuena. Presentzia sindikalaren kartografia honetan oinarriturik, sindikatuaren garapena hain antolatuta ez dauden sektore eta lanbideetara bideratu behar dela esango genuke (informazio eta komunikazio sektorea, esaterako): zelan lortuko dugu sektore hauetan elkartasun kolektibo gehiago sortzea? Zer egin behar dugu aldarrikapenak sortzeko eta eskubideen aldeko borroka sustatzeko?

Komentatzea merezi duen hirugarren datu sorta, gure ustez, sindikatu etako afiliatuen profila da. Emaitza orokorrekin beste herrialde batzuetan ere badiren zenbait joera berresten dituzte: alde batetik, gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago

afiliatzen dira; bestetik, afiliatuena adina gero eta altuagoa da. Hainbat faktorek tendentzia hauek azaltzen dituzte: gazteek enplegu iraunkorra eskuratzeko dauzkaten zailtasunak, honek afiliatzeko momentua atzeratzen du eta unibertso sindikalaren ezagupenetik urrundu egiten ditu; emakume langileen multzo handi bati bizi laboral osoan zehar enplegu prekarioak egozten zaizkie. Kontratu mota erabakigarria da afiliazio sindikalerako: prekaritate moduek (zati baterako jardunaldia eta aldi baterako kontratuak) sindikalizazioa oztopatzen dute. Azterketaren datuek, era berean, Euskal Herritik kanpo eta Espainiako estatutik kanpo jaiotako langileen artean sindikalizazio tasa baxuagoa dela erakusten dute: datu honen atzean langile migratuak antolatzeke dauden zailtasunak, antolakuntza sindikalean leku iraunkorra topa dezaten dinamikak burutzeko zailtasunak, ikus daitezke.

Sindikalizazioaren alde honi dagokionez, interesgarria izango litzateke LABeko afiliatuena profilaren inguruko inkesta edukitzea, beste sindikatuetakoa afiliatuetakoa zein datu sozio-profesionaletan bereizten diren ala ez ikusi ahal izateko. 2014ko hauteskunde sindikaletara arte metatutako datuek hautesleen kasuan LABek sektore pribatu eta publikoaren artean ezarpen orekatua daukala erakusten dute, funtzionarioen artean emaitza zertxobait altuagoa bada ere. Ze nolako emaitzak dauzkagu afiliatuena eta militanteen kasuan? Zelan daude afiliatuak banatuta jardueraren sektoreen artean?

Azterketaren azken kapituluaren atal oso interesgarria azaltzen da: langileek lanean daukaten gogobetetze maila eta atxikimendu sindikalaren arteko erlazioa eta, honekin batera, sindikatuak enpresan betetzen duten paperaren inguruan langileek daukaten iritziaren eta atxikimendu sindikalaren arteko erlazioa. Puntu honen inguruan, interesgarria izango litzateke jakitea ea honelako iritzi edo motibazioek modu ezberdinetan eragiten duten LABen edo beste sindikatu batean afiliatzekotan, hau da, LAB lehenestean eragiten ote duten. Izan ere, Frantziako Solidaires¹ sindikatuko afiliatuena inguruan ikerketa burutu genuen eta honen emaitza nagusietako bat honako hau izan zen: sindikatuan afiliatzeko arrazoiaren artean, erlazio instrumentalak oso eragin gutxi dauka (arazo pertsonal bat konpontzeko edo norberaren egoera hobetzeko asmoa, alegia), baina arrazoi ideologikoak, ordea, nagusi izaten dira (zerbitzu publikoaren hondamenaren kontra egitea, lan baldintzen suntsipenaren kontra borrokatzea eta enparauak). Solidairesen afiliatu berri direnek aintzat hartzen duten beste faktore bat da sindikatuko ordezkariaren inplikazioa lantokian, hauen militantzia aktiboa eta langileekin daukaten harreman hurbila. LABen afiliatzeko ere honelako aldagaiek eragiten dutelako hipotesia egin genezake.

Proposamen hau egokitzen jotzen bada, interesekoa izango litzateke honelako ikerketa kuantitatibo bat egitea, LABek hobeto uler dezan zein den bere afiliatuena profila eta zelakoa den hauen sindikalizazio prozesua.

BOTERE SINDIKALAREN HAINBAT ITURRI

Ipar Hegoa fundazioak bere txostenean datu ugari eta oparoak bildu ditu. Gaur egun sindikatuak euren ezarpena eta eragina handitzeko aurretik dauzkaten erronkak ezagutzeko aukera ematen digu. Sindikalismoaren inguruko lan akademikoaren ekarpenetako bat izan da botere sindikalaren hainbat iturri identifikatzea eta iturri hauek ibilbide sozio-historiko ezberdinetan nazionalki zelan osatu diren erakustea. Lan harreman sistemen aniztasuna gorabehera, botere sindikalaren lau iturri zehaztu ditzakegu, Richard Hyman eta Rebecca Gumbrell-Mc Cormick-en hausnarketen arabera². Lehenbiziko botere iturria estrukturala da, antolatutako langileen indarrari esker, sindikatuak lan banaketa edo ekoizpen prozesu barruan lortu duten kokapenari lotuta dago. Bigarrena, elkartzeko boterea da, sindikatuak masa egiteko daukaten ahalmenari lotuta dago, hau da, afiliatu kopuru handia batzeko, baina baita momentu garrantzitsuetan indar numeriko hau mugiarazteko ere, daukaten ahalmenari dagokio. Hirugarren iturria bateratze boterea da, sindikatuko kideen interes heterogeneoetatik harago, zeharkako elkartasunak sortzeko daukaten ahalmena da. Laugarren botere iturria baliabide instituzionalak dira, enpresa barrukoak zein kanpokoak. Baliabide instituzional hauek Estatuari eta enpresarioei egindako presioaren emaitzatzat jo daitezke, hainbat momentu historikotan beste hiru botereak konbinaturik lortu den emaitza, alegia.

Momentu historiko honetan Espainiako Estatuak, ezarri dituen lege erreformen bitartez, sindikatuak enpresetan dauzkaten baliabide instituzionalak guztiz murriztu ditu; funtsezkoa da, beraz, mugimendu sindikalak bestelako botere moduak zelan erabil ditzakeen hausnartzea. Zelan zabalduko gara gaur egun ekonomiarako estrategikoak diren sektoreetan presente egoteko? Zelan sortuko ditugu harreman handiagoak enpresa nagusiko eta enpresa laguntzaileetako edo azpikontrateetako langileen artean? Zelan erakarriko ditugu gazte gehiago sindikatuak, prekaritateak eragiten duen desegituraketa kontuan hartuta? Erronka hauei ekiteko, sindikatuak egituraketa eta antolaketa moldatu beharra daukate (enpresa oso txikiak langileengana heltzeko modua topatzeko, adibidez), baina baita ekintza sindikala ere.

¹ Sophie Bérout, Guillaume Desage, Jean-Michel Denis, Marthin Thibaut L'Union syndicale Solidaires : une organisation au miroir de ses militants, profils, pratiques, valeurs, rapport de recherche, Triangle, 2011. <https://halshs.archives-ouvertes.fr/hal-00585462/document>

² Rebecca Gumbrell-Mc Cormick, Richard Hyman, Trade Unions in Western Europe, Hard Times, Hard Choices, Oxford, Oxford University Press, 2013.

EUSKAL SINDIKALGINTZARI BEGIRADA BAT

Manuel Garí • Ekonomista eta sindikalista

Krisialdi hasieratik zortzi urte igaro diren honetan, kapitalismo globalizatu eta finantziarizatuan lanak zentralitatea galdu duelako baieztapen "posmoderno" guztiz faltsua –eta, era berean, herri interesentzat zeharo arriskutsua– dela egiaztatu ahal izan dugu. Aitzitik, etengabe hazten ari den ezberdintasun soziala, lan baldintzen prekarizazioa eta "austeritate-autoritarismo" bikotearen inposaketa (lan harremanetan, lantokietan, aurrekontu publikoetan eta jendarteetan) ulertezinak dira, baldin eta klase sozialen arteko gatazka sozial nagusia oraindik orain diru sarrerak eskuratzearen ingurukoa dela ulertzen ez badugu. Beste kontu bat da, erasoaren aurrean, langileriaren erresistentzia ahula izan dela eta ez dela gai izan neoliberalismoaren oldarraldia geldiarazteko. Hau ez da gure jendarteetako gatazka bakarra. Izan ere, gatazka hauek eremu zabala hartzen dute, hala nola –eta gehiegi zehaztu gabe– estatutik gabeko nazioetako burujabetza eta lurralde antolamenduaren afera, ekoizpen ereduaren eta biosferaren arteko kontraesana, TTIP itunak agerian utzi dituen herrialde inperialisten eta beste herrialdeen arteko merkataritza harremanak, besteak beste.

Europako Batasunaren kasuan, erasoaldi neoliberalak Maastricht eta Egonkortasun Ituna bezalako akordioen bitartez ezartzen da. Akordio hauek Europako Komisioko gauzatzen ditu, Europako Banku Zentralaren eta Nazioarteko Moneta Funtsaren laguntzaz, eta gobernu kontserbadoreen edo sozial liberalen babes osoz. Espainiako estatuaren kasuan, Alderdi Popularra eta PSOE honen guztiaren ordezkari paregabeak izan dira eta, hauekin batera, Alderdi Jeltzalea EAEn, eskuma erregionalista Nafarroan eta CiU Katalunian. Europako langileriak eta Europako herriek, eta zehazkiago, Hego Euskal Herrikoak, Kataluniakoak eta Galiziakoak, zein Espainiako Estatuak, ez dute merezi jasotako tratua.

Era berean, esan bezala, XXI. mendean lanak oraindik dauka zentralitatea, baina, hala ere, sindikalismoa Espainiako Estatuan zilegitasun krisi handia pairatzen ari da eta bere zeregina zein den berriro aurkitzeko zailtasunak dauka. Europako sindikalismoak, oro har, patronal handiek gai inportanteen inguruan hartzen dituzten erabakiak lagundu baino ez du egiten, salbuespenak salbuespen, hala nola Greziako langile mugimenduaren erresistentzia heroikoa Troikaren aginduen aurrean. Salbuespen horien artean, baina konpondu beharreko arazo sindikal antzekoekin, LAB bezalako sindikatuak daude. Agian sindikatu honen eta beste

batzuen arteko ezberdintasunik nagusia ekintza sindikalaren norabidean datza, ez baitago hain instituzionalizatuta eta, kontzertazio sozialean baino, mobilizazioan oinarritzen baita. Txosten honetan ez dira gai hauek aztertzen, baina "atzean daude". Honengatik guztiagatik, txostena guztiz egokia dela uste dut. Premiazko lana da eta Euskal Herriko, Espainiar Estatuak eta, seguruenik, Europako beste herri batzuetako sindikalismoarentzat hausnargai izango da.

LABek badu berezitasun bat: jaio zenetik, eta bere ibilbide osoan zehar, beti egon da Euskal Herriaren historia sozial eta politikoiari atxikirik eta "nazio aferari" loturik. ELAren kasua ere antzekoa da, nahiz eta sindikatu honen sorburu politiko eta historikoak zein jatorri sozialak bestelakoak izan. Espainiako Estatu barruan dauden estatutik gabeko beste nazioei dagokienez, Galizian antzerako sindikatuak badago –hemen fenomeno hain hedaturik ez dagoen arren– eta Katalunian, ordea, ez daukagu honelakorik. Hau dela eta, lehenbiziko hausnarketa bat egin dezakegu: eremu estatalekoak ez diren sindikatu "nazionalistak" sortu izana ez da borroka nazionalaren emaitza zuzena, baizik eta egon diren premiei aurre egiteko borondate politikoaren emaitza.

Hego Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan gatazka marko eta mapa politiko ezberdinak daude eta, hein batean, ezaugarri produktibo ezberdinak ere bai. Azken honek, nolabait, krisiak euskal langileria espainiar langileria baino neurri txikiagoan kolpatu izana azaltzen du. Baina, era berean, kontuan hartu behar da lan harreman markoa (lan erreforma, negoziazio kolektiboaren arauak, eskubideak enpresetan eta abar) berbera dela eta eredu sindikala ere sistema eta arau berberen arabera dela, txostenean azaltzen diren ezberdintasunak gorabehera (afiliazioa, estaldura, e.a.).

Espainiako Estatu osoan, zilegitasun sindikala hauteskunderaz hauteskunde erabakitzen da, enpresaz enpresa, sektorez sektore eta lurraldez lurralde, eta afiliatuen kopurua oro har baxua da (oso murrizta gazteen kasuan), Hego Euskal Herrian Espainian baino altuagoa izan arren. Sindikatuek hauteskundeetan ahalegin handiak egiten dituzte eta oraindik orain ez dute topatu sindikatuekiko atxikimendu formala, hau da, afiliazio bitartekoa, sendotzeko modua. Hortaz, gai honi dagokionez, Hego Euskal Herrian eta Estatuan dauden ezberdintasunekin batera, hainbat berdintasun ere badaude. Lan harremanetarako marko autonomoak hitz egin ahal izateko oso goiz da oraindino.

Lan harremanen egitura Hego Euskal Herrian, OCDEn eta Europan txostenak ondorio garrantzitsuak mahaigaineratzen ditu atal guztietan. Bestalde, iturri ezberdinek informazio estatistikoa jorratu ahal izateko arazoak ekartzen dituzte, izan ere, Nafarroa eta EAE artean eta, zer esanik ez, Ipar Euskal Herrian, "maila" bereko ikerketak egiteko iturri estatistikoak ezberdinak baitira. Korapilo hauek ondo askaturik daude txostenean. Beraz, honi buruz ezer gutxi daukat esateko.

Beharbada, eta oker ez banago, Europako Lan Baldintzen Inguruko VI. Inkestak (EWCS, European Working Condition Surveys) eman duen informazioa jorratzea falta dela esango nuke. 2015ean Eurofoundek eta Ipsos-ek batera egindako inkesta honek 35 herrialde arakutzen ditu: EBeko 28 Estatuak, EBra sartzeko aukera daukaten bost herrialde (Albania, Jugoslaviako Errepublikak izan zen Mazedonia, Montenegro, Serbia eta Turkia), Suitza eta Norvegia. Beraz, inkesta honek beste edozeinek baino herrialde gehiago ikertzen ditu. Honetaz gain, gogoeta interesgarriak –nahiz eta leundu samarrak egiten ditu lanaren kalitatearen inguruan eta hainbat atali buruz ematen du informazioa; atal hauen artean daude, sarreran bertan dakarren moduan, "arriko fisiko eta psikosozialak, lan jardunaldiaren iraupena eta antolaketa, lan kategoriak eta kontratuak, lan lekuak, lanaren antolaketa, lanaren eta bizi pribatuaren arteko kontziliazioa eta lanaren eragina lanetik kanpoko bizian, trebakuntza eta ikasketak lanean, langileen ahotsa lantokietan, osasuna eta ongizatea, eta soldadak".

Iturrien inguruan, garrantzia handikoa ez den beste ohar bat: ECVT siglei uste dut "Encuesta de Calidad de Vida en el Trabajo" dagokiela. Eta datuen aurkezpenaren kasuan, azken ohar txo bat: gaztelarazko itzulpenean 82 orrialdetik 84 orrialdera ez dut ondo azalduta ikusten sektorekako afiliazio kopuruek (lehen mailako sektorekoek, adibidez) sektore horretako unibertsoari (lan populazioari, alegia) erreferentzia egiten diotela. Haiserako irakurraldi batean errakuntza suerta daiteke.

Interesekoa izango zatekeen beste atal batzuen inguruan azterketa txiki bat egin izan balitz, hau da, lanbide osaketan gertatutako eraldaketak, sektore guztietan informatizazioak izan duen eragina eta langileek beren buruaz daukaten pertzepzioa eta jendarte estratifikatuan beren burua zelan kokatzen duten aztertu izan balitz.

Era berean, uste dut jarraipen handiagoa egin behar zaiela hainbat auzi soziali, hala nola, lan vulnerabilitatearen indizeaz (indice de vulnerabilidad laboral) adierazten denari. Izan ere, Espainiako Estatuan 2007tik indize hau 8 puntutan hazi da eta 56,5ean dago honezkero, hau da, EBeko batez bestekoa baino 12 puntu gehiago; honek lanean zein langabezia dagoen soldatapeko populazioaren egoera zein den argi uzten du. Era berean, urtez urte OCDEk enplegu tasak, aldi baterakotasuna

eta iraupen luzeko langabezia kontuan hartzen dituen enplegu kalitatearen indizea lantzen du. Indize hau sakonago jorratzea merezi du. Izan ere erakunde horretako partaideak diren 34 herrialdeen artean, Espainiako estatua azken aurreko postuan dago, 10 puntutatik 2,4 baino ez dituela. Posible balitz, erreminta hauen bitartez Hego Euskal Herriko egoera aztertzea interesgarria izango litzateke, egoera soziala hobeto ezagutzeko eta egokitzat jotzen diren konparazioak burutu ahal izateko.

Lan istripu eta gaixotasunen inguruko informazio zabalagoaren falta igarri dut. Atal hau bereziki garrantzitsua da lanaren kalitatea aztertzeko, "lan duinaren" oinarrizko osagarria den heinean, baina, honetaz gain, enpresa handietatik azpikontratei begira egiten den sindikalismoaren funtsezko gaia ere bada.

Era berean, Lan Kontra Erreformaren onarpenaz eta krisiaren aitzakiaz enplegua erregulatzeko espedienteak biderkatu egin dira; uste dut gai honek Hego Euskal Herrian zelan eragin duen ez dela jorratu behar besteko inportantzia.

Ohar hauek guztiak gorabehera, arestian esandakoa berriro esan behar dut: Lan harremanen egitura Hego Euskal Herrian, OCDEn eta Europan txostena oinarri sendoa da helburu sindikaletarako. Lan on honen ostean, egiteko berriak datoz. Esparru metodologikoan Ipar Hegoak eta Aztikerrek erronka daukate aurretik, ahal denean LAB sindikatuaren "barrukien" ikerketa egitea, datuak analizatuta, egituraketa eta barne fluxuak aztertuta, eta afiliatuek eta afiliatuta ez dauden sektoreek LABen inguruan daukaten pertzepzioa ezagutzeko ikerketa kualitatibo teknikak erabilita.

Sindikatuak etorkizunean erabakiak hartzeko garrantzizkoak izango diren hainbat gai lantzen jarraitu behar dela uste dut:

- Desberdintasunaren, prekaritatearen eta pobreziaren hazkundearen inguruan egiten diren lanak,
- Autoktonoak ez diren pertsonen eta, bereziki, beste kontinente batzuetako migranteak direnen artean ze atxikimendu eta eragin mailak dauzkan LABek
- Sindikatu osoaren feminizazio maila –datu hau inportantea da, Espainiako Estatu osoan LAB baita idazkari nagusi emakumezkoa daukan sindikatu bakarra- eta ze leku ematen zaion berdintasunaren aferari negoziazio kolektiboaren barruan,
- Langatuen arreta eta afiliazio maila
- Gauza bera pentsionisten kasuan, sektore hau beste ezein baino gehiago hazten ari dela kontuan hartuta
- Zelan lortu gazte prekario edo prekarizatuek, edo enplegurik ez aurkitzeagatik balio kaitatik at dauden gazteek, LABekin bat egitea
- Zer jokabide sindikal hartu autonomo faltsuekin edo klandestinitatean soldatapean daudenekin

- Zelan egin aurre administrazioko eta koadro eta profesionalen arteko korporatibismoari eta amarillismoari,
- Zer egin errelatoaren inguruko borroka gero eta handiagoa den jendarte honetan; ekintza sindikala eta proposamen programatikoak diskurtsoan oinarritu behar dira eta, hortaz, komunikazioak (modu eta teknologia zahar eta berriek) klasearen eta sindikatuaren arteko norabide bietan (klase-sindikatu, sindikatu-klase) balio estrategikoa dauka,
- Zelako trebakuntza premiak dauzkan afiliazioak eta zuzendaritzak
- Zeintzuk eremu dauzkan afiliazioak parte hartzeko, zelan funtzionatzen duten, zeri eutsi behar zaion eta zer aldatu behar den,
- Autonomia sindikala bermatzeko eta bestelako helburu batzuk dauzkaten iturri arbitrarioen menpekoak ez izateko finantziazioaren oraina eta geroa (beste batzuen kasuetatik ikasten),
- Afiliazioaren alden eta baje jarraipena, zein den arrazoia, iraunkortasunaren, afiliatuta ematen den denboraren batez bestekoaren, ber-afiliazioen eta abarren analisia,
- Zelan sustatu ezinbestekoa den batasun sindikala eta, era berean, zelan bermatu LABen hazkundea eta zelan bilatu bere hegemonia

Honetaz gain, beste gai biren inguruan hausnarketa sakona egin behar da, ekintza sindikalaren ereduaren eta norabidean daukaten eragin handia dela eta: batetik, ekoizpen ereduaren aldaketa, ingurumenaren eta biosferaren mugek hala behartuta eta, bestetik, Euskal Herriaren sarrera lanaren nazioarteko dibisioan, honek arrisku eta aukerak dakartza baina, era berean, zeregin berriak, hala nola, LABen nazioarteko harreman sindikalak berdefinitu beharra.

